# 201. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2024ko urriaren 31n, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

| | |
|---|---|
| Lehendakaria: | Iñaki Ostolaza Esnal |
| Bertaratutakoak: | Argi Yeregui Egaña<br>Aitor Manterola Garate<br>Marina Bidasoro Arozena<br>Asier Arakistain Alberdi<br>Maite Egaña Larrañaga<br>Itziar Etxabe Etxabe<br>Unai Larrañaga Uranga<br>Nerea Goiria Mendiolea<br>Jose Miguel Antia Albizu<br>Ainhoa Illarramendi Azkue<br>Iker Mardaras Arrieta<br>Mireia Aranbarri Ieregi<br>Xabier Odriozola Etxaniz<br>Duñike Agirrezabalaga Ugarte |
| Bertaratu ez direnak: | Joxe Mari Azkue Castillo<br>Ander Olaizola Esnal |
| Idazkaria: | Alexander Marañon Muñoz |

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Arratsalde on. Hasi eingo gara. Arratsalde on eta ongi etorriak ohiko osoko bilkurara, urriko ohiko osoko bilkurara. Bueno eguneko aztergaiekin hasiko gea.

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

### 1.-AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

**(198. zkia. 2024.07.24)**
**(199. zkia. 2024.09.12)**
**(200. zkia. 2024.09.26)**

198., 199. eta 200. Akta aho batez onartu dituzte.

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

## 2.- IRIZPENAK.

### 2.1.- UDALAREN AURREKONTUAREN 15. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

"Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000016-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** 2024ko urriaren 23an ospatzen den Ogasun Batzordeak onartzea/ez onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 1 | PERTSONAL GASTUA | 1.700.000,00 |
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK | 2.100.000,00 |
| 4 | TRANSFERENTZI ARRUNTAK | 400.000,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 1.991.791,27 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **6.191.791,27** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | ACTIVOS FINANCIEROS. | 6.191.791,27 |
| **GUZTIRA** | | **6.191.791,27** |

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Proposamen hau Ogasun Batzordeak onartzen du, eta ondoren Osoko Bilkurari bidaltzen zaio, Osoko Bilkuraren onarpenaren ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera behin behineko onarpena bidaliko da, eta hamabost egunez jendaurrean ezarriko da.

Zumaian,

Kontu-hartzailea Batzordeburua

Alkateak hitza eman dio Unairi.

UNAI LARRAÑAGA: Batzordean esan genuen bezala, kreditu aldaketa hauek datozte ba urtian zihar, urtia martxan zaola ja indarrera bueltau dielako arau fiskalak. Orduan, horrek eramaten gaitu ba defizit zero bat lortu ahal izatera. Eta horretarako ba formula ezberdinek galdetu ginon Aldundiei, batik bat ez genun erantzun zehatzik jaso. Eta erabili dugun formula hau da, dakiguna ziur horretara eramango gaituela urtian bukaeran, ezta. Ta bueno nahiz eta esan zenbaki deigarri samarra izan leiken kopuruatiken ba mugimendu kontable bat, besteik ez dala.

Grabaketan minutu bateko isilunea dago, idazkariak jasotako bozkak honako hauek dira.

**Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU; 4 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

Udalaren Udal Aurrekontuaren 15. Kreditu aldaketa onartu da.

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

**2.2.- UDALAREN AURREKONTUAREN 16. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**"Konpromiso kreditu bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000017 zenbakidun espedienteak onartzeko irizpena".**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, 2024ko urriaren 23ko Ogasun Batzordean kreditu konpromiso modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak 22. artikuluan.

Gaia aztertu ondoren,

**IRIZPENA**

**Lehenengoa.-** 2024ko urriaren 23an ospatzen den Ogasun Batzorde honek onartzen du/ez du onartzen Osoko Bilkurara eramatea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu konpromiso modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin:

-2025. urterako konpromiso kreditua gutxitzea:
5 0100.622.432.00.97 2025 Mollaberri birgaitzea (ULO)-PRTR 50.000,00€.

-2025. urterako konpromiso kreditua gehitzea:
5 0100.601.134,00.01 2025 Itzurunbidea igogailua 465.000€.
5 0100.622.334.00.98 2025 Konbentuko lorategia 250.000€

-2025. urterako konpromiso kreditua sortzea:
5 0100.601.153.21.01 2025 Erribera 1: 300.000,00€.
5 0100.629.334.02.01 2025 Konbentuko kapera 400.000,00€.
5 0100.622.173.00.01 2025 Santioko arrapala (ULO) 200.000,00€

-2026. urterako konpromiso kreditua sortzea:
5 0100.622.432.00.97 2026 Mollaberri birgaitzea (ULO)-PRTR 250.000,00€.

Finantzaketa, aurrezki garbia.

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea/ez eramatea onartzen da.

Batzordeburua | Kontu-hartzailea

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

Jose Miguel Antia, une honetan gehitu da osoko bilkurara.

Alkateak hitza ematen dio, Unai Larrañagari.

UNAI LARRAÑAGA: Hauek aldiz, konpromisozko kreditu batzuk die batzuk igotzia tokatu zaigu, beste batzuk zortzie eta hau da batik bat ba urte bukaeran lizitatzeko aber denbora ematen digun baina ez baldin badigute ematen ba 2025eko aurrekontuak martxan egon bitartean indarrean egon bitartean, lizitazio horiek aurrera eramateko behar dugu hori hor edukitzea prest. Orduan, horretarako aldaketak dira.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskarrik asko Unai. Zerbait? Esan

XABIER ODRIOZOLA: Arratsalde on. Gaur konpromiso kreditu horietako batean, Itzurungo igogailua azaltzen da eta 2022ko maiatzean Itzurun bidean egingo zen igogailuaren inguruan lau proposamen argitaratu zituen Udal Gobernuak, Proposamen guztiak igogailua zubiaren inguruan jartzen zuten. Bizilagunen ikuspuntutik, aldiz, kokapen hori Itzurun Bideko maldetik goregi edo zegoela aipatzen zen eta beherago edo ahalik eta beheren jartzea litzatekeela helburutzat hitz egin zen bilera batean edo erabaki zen. Bizilagunen ustez irtenbide ez egokia ematen zuten lau proposamen aurkeztu ziren, proposamenek arazoa partzialki baino ez zutelako konpontzen. Igogailura iristeko aldaparen erdia oinez gainditu beharko litzatekeela. Hau dela eta, proiektuaren azken bertsioan, Itzurun bideko pasealekuan zehar igo behar den zatia, igogailuaren kokalekuraino iristeko 40 bat metro dira Amaiako plazatik arkitektoek egindako txostenaren arabera. Ta lehen esan bezela, aldaparen ia erdia oinez gainditu beharko litzateke.

Gaur, ordea, Izengo igogailuaren inguruan ez da proiektua bozkatzen, proiektua berez aurrera doa, baizik eta bi urte geroago esleitu den igogailu honen kreditu aldaketa bat. Esleipena irailean egin zen eta bueno barkatu, lizitazioa barkatu, irailean egin zen eta hutsik geratu da urriaren 2an, eta kreditu aldaketan ikusten da 150.000ko igoera bat 350.000tik eta gero 2025eko aurrekontutan berriro azaltzen da 675.000 euroko partida batean. Orduan iruditzen zaigu 350.000etik 675.000 salto horia duplikatzea dela .Orduan bai, 16. kreditu aldaketa eta 17. Kreditu aldaketan abstenitu egingo gara, gehienbat igogailuko partida hori asko igo delako.

INAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko. Xabier. Zuk zerbait komentatzeko Duñike edo?

UNAI LARRAÑAGA: Batipat kontableki hitza bat esan duzulako. Aurten igotzen da partida hau lizitazioa, baina bakarrik izango da 2025eko aurrekontuak martxan jarri arte. Behin aurrekontuak martxan daudenean sartuko litzateke ja aurrekontutan agertzen dan inporte hori. Orduan, gaurkoarekin gehi 2025erako ja jarrita genukeen konpromisozko kredituarekin osatuko litzateke geroko zenbateko hori. Hau da, ez da duplikatzen. Hau da, bat jarriko litzateke martxan 2025eko aurrekontuak izan arte, ba lizitazio hori aurrera bota ahal izateko. Eta ez

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

baldin bada egiten bitarte horretan ja 2025eko aurrekontuak, nolabait jango luke hori. Hori kontableki. Gero ja proiektua

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Besterik gabe  hutsikan geatu zala konkurtsoa eta %ko 20 bat gehitu dugula ba aber hutsik ez den geratzen. Besterik gabe.

XABIER ODRIOZOLA: Duplikatzeana esaten dut aurtengo 2024ko aurrekontua 345.000 dira eta 2025ekoan 675.000  delako.

UNAI LARRAÑAGA: Baina hurrengo urtekoan ere  konpromisozko kreditu bat zaon. Hau da, azkenien gehikuntza hori, Iñakik esan duen bezala, proiektu guztien % 20 igo da. Hori da historia.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: 2024ko aurrekontuak egin genituenean, ikusten gendun ba parte bat egingo zela 2024an eta bestea 2025ean eta lizitatu ahal izateko partida osoa doitu behar da. Orduan, horreatikan dago parte bat 2024an eta bestea 2025ean, nola lizitatzen baldin badugu 2025ean sartu dugun guztia indarrean lizitatzen baldin badugu 2024an geratzen zaigu beste partida bat beharko duguna  doitu 2025ean. Horreatikan iten da Kreditu aldaketa. Da lizitatu ahal izateko baino igoera % 20ko igoerakin aterako dugu berriro.
Eskarrik asko.

Bozkatzea, aldeko bozka? Abstentzioa?

**Aldeko botoak:   10 boto  (9  EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak:  0**

**Abstentzioak:      5 (5 EAJ-PNV)**

**ERABAKIA:**

Udalaren Udal Aurrekontuaren 16. Kreditu aldaketa onartu da.

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

## 2.3.- UDALAREN AURREKONTUAREN 17. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

**“Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000018-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia azaldu ondoren,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** 2024ko urriaren 23an ospatzen den ogasun batzorde honek onartzen du/ez du onartzen Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

| Kapitulua | Izena | Egungo kredituak | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK | 740.000,00 | 115.000,00 | 625.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **740.000,00** | **115.000,00** | **625.000,00** |

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

| Kapitulua | Izena | Egungo kredituak | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 350.000,00 | 115.000,00 | 465.000,00 |
| | **GUZTIRA** | **350.000,00** | **115.000,00** | **465.000,00** |

**Bigarrena.-** Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtso eta publizitate araurik. Behin, Osoko Bilkurak onartzen duenean behin betiko bihurtuko da.

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen/ez da onartzen da.

Kontu-hartzailea Batzordeburua

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

Kreditu aldaketa egin ahal izateko 115.000 euro igo behar izan dugu, lizitatuta geneukana baino eta orduan horreatikan 115.000 euro sartzen ditugu orain, gauza berdinagatikan eta ateratzen dugu kale garbiketarako aurreikusita zeuden kontratua osotasunean hogeta lauan ematen baldin bazan denbora badaezpada diru kopuru hori eta nola ez den gauzatu, soberan daukagu diru hori eta hori da partida hori doitu dugu Itzurungo igogailurako lehengo arrazoien berdina.

Besterik ez baldin badago, bozkatu eingo degu. Aldeko bozka? Abstentzioa?

**Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 5 (5 EAJ-PNV)**

**ERABAKIA:**

Udalaren Udal Aurrekontuaren 17. Kreditu aldaketa onartu da.

**2.4.- 2024KO HASIERAKO AURREKONTUAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**2024KO HASIERAKO AURREKONTUAREN ALDAKETAREN IRIZPENA**

2024ko urriaren 23ko ogasun batzorde honetan proposamena aurkeztu, eta kontu-hartzailearen txostena azaldu dira, guzti horren ondorioz, eta 2/2023 Foru Dekretu-Arauak ahalbidetzen duenez, 21/2003 Foru Arauaren artikuluen aldaketaren ondorioz.

Gaia azaldu ondoren,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** 2024ko urriaren 23an ospatzen den Ogasun Batzordeak onartzen/ez du onartzen 2024ko hasierako aurrekontua aldatzeko espedientea.

**Bigarrena.-** Horren ondoren, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontuaren aldaketa onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

Proposamen hau Ogasun Batzordeak onartzen du, eta ondoren Osoko Bilkurari bidaltzen zaio, Osoko Bilkuraren onarpenaren ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera behin behineko onarpena bidaliko da, eta hamabost egunez jendaurrean ezarriko da.

Zumaian,

Kontu-hartzailea Batzordeburua

Alkateak Unai Larrañagari eman dio hitza.

UNAI LARRAÑAGA: Hau hasieran esan detan helburu berdinekin goaz, defizit zero hori lortzera. Baina hamen Foru Arauak aldaketatxo bat izan du eta finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakinera zuzenien pasatzen uzten digute nolabait guk lehengo urtian maileguak markatu genuzen partidatikan, bederatzigarren partidatik zortzigarren partidara pasatuko litzateke txertaketa zuzen bitartez eta ez aurrez ibili dugun formula hori erabiliz. Orduan, gerakina hartzen da eta zuzenean pasatzen dugu aurrekontuetara. Horreatikan da aldaketa.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko.

Zerbait komentazeko. Bozkatu eingo degu. Aldeko bozka?

**Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

**LEHENENGOA.-** 2024ko hasierako aurrekontuaren aldaketa onartu da.

**BIGARRENA.-** Horren ondoren, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontuaren aldaketa onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

**2.5.- ZUMAIAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO, UDAL ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2024KO URRIAREN 23KO HERRITARRAK BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA,ZUMAIAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HERRITARRAK DE 23 DE OCTUBRE DE 2024, PARA LA APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA MUNICIPAL PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE ZUMAIA**

**AURREKARIAK**

1.- Udal-ordenantza honen bidez, Zumaiako Udalak berdintasun politiketan egindako bidea kontsolidatzea da asmoa, eta bide batez, 1/2023 Emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen legearen testu bateratuak (hemendik aurrera Euskadiko berdintasun legea) esaten duen moduan toki-administrazioek berdintasunari buruzko arau propioak egiteko konpromisoari erantzutea.

2.- Udal ordenantza honen bidez, udalari eragiten dioten berdintasunari buruzko arauak batu eta lurreratu nahi izan dira emakume eta gizonen berdintasunerako bidean pauso sendoak emateko helburuarekin. Horretarako, prozedimendu administratiboaren 39/2015 legearen 129.1 artikuluan aipatzen diren printzipioen arabera egin dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efikazia. Izan ere, legeei eta egungo errealitate sozialari erantzuten dien aldaketak dira.

**3.**- Udal ordenantza landu da Udaleko sail desberdinekin, euren inplikazioa bermatzeko

**ANTECEDENTES**

**1.-** La presente Ordenanza Municipal pretende consolidar el camino recorrido por el Ayuntamiento de Zumaia en materia de políticas de igualdad y dar respuesta al compromiso de las administraciones locales de elaborar sus propias normas de igualdad, tal y como establece el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y de Vidas Libres de Violencia contra las Mujeres (en adelante Ley de igualdad de Euskadi).

**2.-** La presente Ordenanza Municipal pretende unificar y aterrizar las normas sobre igualdad que afectan al Ayuntamiento con el objetivo de dar pasos firmes hacia la igualdad de mujeres y hombres. Para ello, la Ordenanza se ha elaborado de acuerdo con los principios de urgencia, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficacia a los que se refiere el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo. Es decir, que responde a las leyes y a la realidad social actual.

**3.-** La presente ordenanza se ha trabajado con las distintas áreas del ayuntamiento, para garantizare su implicación.

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

**4.-** Ordenantzari hasiera onarpena eman aurretik egindako tramiteak honakoa dira:

- Kontsulta publikoari buruzko iragarkia Udalaren web atarian 2024ko maiatzaren 3tik maiatzaren 31 arte.
- Aurkeztutako Iritzien Idazkaritzaren ziurtagiria 2024-10-16
- Ordenantza-proiektua 2024-10-17
- Idazkaritzako txosten juridikoa- erabaki proposamena 2024-10-17

**4.-** Se han realizado los siguientes trámites antes de la aprobación inicial de la Ordenanza:

- Anuncio de consulta pública en el portal web del Ayuntamiento desde el 3 de mayo de 2024 hasta el 31 de mayo de 2024.10.17
- Certificado de la Secretaría de opiniones presentadas 16-10-2024
- Proyecto de ordenanza 17-10-2024
- Informe jurídico de la Secretaría propuesta de acuerdo 17-10-2024

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2024ko urriaren 23ko Berdintasun, Gazteria, Parte-Hartze eta Aniztasun Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

**Alde: 9**
**EH Bildu: 5**
**EAJ: 3**
**PSE: 1**

**Kontra: 0**

**ALDEKO** irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako , Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, eta horren arabera, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko da:

1.- Zumaiako Udaleko Berdintasunerako ordenantzari behin behineko onarpena ematea espedientean jasota dagoen

**DICTAMEN**

En consecuencia la Comisión de Igualdad, Juventud, Participación y Diversidad con fecha 23 de octubre de 2024, tras la siguiente votación:

**A favor: 9**
**EH Bildu: 5**
**EAJ: 3**
**PSE: 1**

**En contra: 0**

Acuerda **ESTIMAR** el presente dictamen de conformidad con el artículo 135.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

1.- Aprobar inicialmente la ordenanza para la Igualdad del ayuntamiento de Zumaia, según consta en el expediente

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

moduan

2.- Espedientea, eta ondorioz, hasieran onartutako ordenantza kontsultetarako, jendeaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea ezartzea, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Aldi berean, udal ordenantzaren testua udalaren web atarian argitaratzea: www.zumaia.eus.

2.- Abrir un periodo de consultas, información pública y audiencia a los interesados del expediente y, en consecuencia, de la Ordenanza inicialmente aprobada, por un plazo de treinta días, mediante la publicación del correspondiente anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Al mismo tiempo, publicar el texto de la ordenanza municipal en el portal web del Ayuntamiento: www.zumaia.eus.

3.- Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko bilkuraren berariazko akordiorik behar izan gabe, eta ordenantzaren testu osoa isilbidez behin betiko onartzeko erabakia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

3.- Transcurrido dicho plazo sin que se hayan formulado reclamaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente aprobado, sin necesidad de acuerdo expreso del Pleno, y el acuerdo de aprobación definitiva del texto íntegro de la Ordenanza se publicará para general conocimiento en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Batzordeburua: Alkatea

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc

| **ZUMAIAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL-ORDENANTZA** | **ORDENANZA MUNICIPAL PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE ZUMAIA** |
|---|---|
| Aurkibidea | Índice |
| ZIOEN AZALPENA:<br>ATARIKO TITULUA<br>I. TITULUA: Eginkizunak, antolaketa eta baliabideak.<br>I. KAPITULUA: Marko orokorra<br>II. KAPITULUA: Berdintasun saila<br>III. KAPITULUA: Udal berdintasun-politikak bultzatzeko koordinazio politiko-teknikoa<br>IV. KAPITULUA: Udaletik kanpo berdintasuna sustatzeko koordinazioa<br>V. KAPITULUA: Indarkeria matxistaren kontrako politiken koordinazioa | EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:<br>TÍTULO PRELIMINAR<br>TÍTULO I: Funciones, organización y recursos.<br>CAPÍTULO I: Marco general<br>CAPÍTULO II: Área de Igualdad<br>CAPÍTULO III: Coordinación técnica de las políticas de igualdad municipales<br>CAPÍTULO IV: Coordinación para la promoción de la igualdad fuera del Ayuntamiento<br>V. CAPÍTULO: Coordinación de políticas contra la violencia machista |
| II. TITULUA: Udal jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak<br>I. KAPITULUA: Berdintasunerako Plana<br>II. KAPITULUA: Udal ikerketa eta estatistikak<br>III. KAPITULUA: Udal-administrazioaren zerbitzura diharduten langileen kudeaketa<br>IV. KAPITULUA: Ordezkaritza orekatua<br>V. KAPITULUA: Barne- eta kanpo-informazioa eta komunikazioaren ekoizpena eta kudeaketa<br>VI. KAPITULUA: Udaleko araudian eta jardueran generoak duen eragina<br>VII. KAPITULUA: Genero-ikuspegidun aurrekontuak<br>VIII. KAPITULUA: Lehiaketa eta kontratu publikoak<br>IX. KAPITULUA: Dirulaguntzak<br>X. KAPITULUA: Espazio publikoaren eta instalazio publikoen erabilera | TÍTULO II: Medidas para la incorporación de la perspectiva de género en la actividad municipal<br>CAPÍTULO I: Plan de Igualdad<br>CAPÍTULO II: Investigación y estadísticas municipales<br>CAPÍTULO III: Gestión del personal al servicio de la administración municipal<br>IV. CAPÍTULO: Representación equilibrada<br>V. CAPÍTULO: Producción y gestión de la información y comunicación<br>CAPÍTULO VI: Incorporación de la perspectiva de género de la normativa y actividad municipal<br>CAPÍTULO VII: Presupuestos con perspectiva de género<br>CAPÍTULO VIII: Concursos y contratos públicos<br>CAPÍTULO XI: Subvenciones<br>CAPÍTULO X: Uso de espacios públicos e instalaciones públicas |
| III. TITULUA: Udal politika, eskumen eta esku-hartze eremuetan berdintasuna sustatzea<br>I. KAPITULUA: Pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko politikak<br>II. KAPITULUA: Ekonomia feminismotik sustatzeko politikak<br>III. KAPITULUA: Kultura eta bizikidetza osasuntsu baterako politikak<br>IV. KAPITULUA: Lurralde jasangarrirako politikak | TÍTULO III: Promover la igualdad en las políticas, competencias e intervenciones municipales<br>CAPÍTULO I: Políticas para mejorar las condiciones de vida de las personas<br>CAPÍTULO II: Políticas de promoción de la economía feminista<br>CAPÍTULO III: Políticas de cultura, salud y convivencia<br>CAPÍTULO IV: Políticas para un territorio sostenible |

b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| IV. TITULUA: Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak<br>I. KAPITULUA: Xedapen orokorra<br>II. KAPITULOA: Prebentzioa<br>III. KAPITULUA: Detekzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa.<br>IV. KAPITULUA: Salaketa soziala | TÍTULO IV: Vidas sin violencia machista<br>CAPÍTULO I: Disposiciones generales<br>CAPÍTULO II: La prevención<br>CAPÍTULO III: Detección, atención, coordinación y reparación.<br>IV. CAPÍTULO: Denuncia social |
| XEDAPEN GEHIGARRIA<br>AZKEN XEDAPENAK | DISPOSICION ADICIONAL<br>DISPOSICIONES FINALES |
| ZIOEN AZALPENA: | EXPOSICIÓN DE MOTIVOS: |
| I.<br>Udal-ordenantza honen bidez, Zumaiako Udalak berdintasun politiketan egindako bidea kontsolidatzea da asmoa, eta bide batez, 1/2023 Emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen legearen testu bateratuak (hemendik aurrera Euskadiko berdintasun legea) esaten duen moduan toki-administrazioek berdintasunari buruzko arau propioak egiteko konpromisoari erantzutea.<br>Azken urteotan, berdintasun politiketako marko arautzailea asko garatu da. Izan ere, mugimendu feministak azken hamarkadetan eragin dituen hausnarketa eta borrokei esker zenbait erronka agenda politiko-instituzionalean ezinbesteko bihurtu dira. Esaterako: berdintasunera iristeko emakumeen ahalduntzea hauspotzeko beharra; ekintza positiboen eta genero-zeharkakotasunaren estrategiak eremu guztietara zabaldu eta administrazio guztien zeregina izatera pasatu izana; emakumeen egoeren aniztasuna kontuan hartzeko beharra, diskriminazio anizkoitza eta intersekzionalitatea kontuan hartu behar direla ohartaraztea; gizarte eta ekonomiaren logikan bizitzaren eta planetaren jasangarritasuna lehen lerroan jartzea; emakumeez gain, bestelako gorputzen beharrak kontuan hartzea, izan haurrak, LGTBI+ kolektibokoak, edo familia eredu berriak dituztenenak. Finean, feminismotik egindako ekarpenek berdintasun politiken arau esparrua asko zehaztea ekarri du, bai | I.<br>La presente Ordenanza Municipal pretende consolidar el camino recorrido por el Ayuntamiento de Zumaia en materia de políticas de igualdad y dar respuesta al compromiso de las administraciones locales de elaborar sus propias normas de igualdad, tal y como establece el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y de Vidas Libres de Violencia contra las Mujeres (en adelante Ley de igualdad de Euskadi).<br>En los últimos años, el marco regulador de las políticas de igualdad ha experimentado un importante desarrollo. Y es que las reflexiones y luchas del movimiento feminista en las últimas décadas han permitido que algunos retos se conviertan en elementos indispensables en la agenda institucional. Por ejemplo, la necesidad de fomentar el empoderamiento de las mujeres para alcanzar la igualdad, la extensión de las estrategias de acción positiva y del *mainstreaming* de género a todos los ámbitos y a todas las administraciones, la necesidad de tener en cuenta la diversidad de las situaciones de las mujeres, la discriminación múltiple e interseccionalidad, la puesta en primera línea de la sostenibilidad de la vida y del planeta en la lógica social y económica, la consideración de las necesidades de otros cuerpos, ya sean niños, niñas o personas del colectivo LGTBI+. En definitiva, las aportaciones desde el feminismo han hecho que se defina mucho el marco normativo de las políticas |

ESKRBORRADOR-6B0RADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| nazioartean, bai eta instituzio hurbilagoetan ere. | de igualdad, tanto a nivel internacional como en las instituciones más cercanas. |
| Udal-ordenantza honen bidez, udalari eragiten dioten berdintasunari buruzko arauak batu eta lurreratu nahi izan dira emakume eta gizonen berdintasunerako bidean pauso sendoak emateko helburuarekin. Horretarako, prozedimendu administratiboaren 39/2015 legearen 129.1 artikuluan aipatzen diren printzipioen arabera egin dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efikazia. Izan ere, legeei eta egungo errealitate sozialari erantzuten dien aldaketak dira. | La presente Ordenanza Municipal pretende unificar y aterrizar las normas sobre igualdad que afectan al Ayuntamiento con el objetivo de dar pasos firmes hacia la igualdad de mujeres y hombres. Para ello, la Ordenanza se ha elaborado de acuerdo con los principios de urgencia, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficacia a los que se refiere el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo. Es decir, que responde a las leyes y a la realidad social actual. |
| II. | II. |
| Berriki garatu diren emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko arauen artean honakoak dira nagusi. | Entre las normas de promoción de la igualdad de mujeres y hombres de reciente desarrollo destacan las siguientes. |
| Batetik, Nazio Batuen Erakundearen Giza Garapen Jasangarrirako 2030 agenda, zeinak emakumeen eta neskatilen ahalduntzea ezartzen duen genero berdintasuna sustatzeko estrategia nagusitzat. Bestetik, 2014tik Espainiar Estatuan indarrean den Europar Kontseiluak onartutako Istanbulgo Hitzarmena, Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzkoa. Bi marko nagusi hauetatik eratorri dira 2017an adostutako Indarkeria matxistaren aurkako Estatu Ituna eta Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan emandako moldaketak. | Por un lado, la Agenda 2030 de la Organización de las Naciones Unidas para el Desarrollo Humano Sostenible, que establece el empoderamiento de las mujeres y las niñas como estrategia central para promover la igualdad de género. Por otro lado, el Convenio de Estambul, aprobado por el Consejo Europeo del Estado Español desde el año 2014, relativo a la prevención y lucha contra la violencia hacia las mujeres y la violencia doméstica. De estos dos marcos principales se derivan las modificaciones introducidas en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de medidas de protección integral contra la violencia machista y el Pacto de Estado contra la violencia machista acordado en 2017. |
| Hirugarrenik, 10/2022 Sexu Askatasunerako berme integralerako legeak, 4/2023 Legea, trans pertsonen benetako berdintasunari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzkoek eta Euskadiko 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak, bai eta 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babestekoa (LOPIVI Legea moduan ezaguna denak) ekarri dituzten betebeharrak, berdintasun politiken kolektibo hauen errealitatea kontuan hartzeari buruzkoak eta | En tercer lugar, también se han tomado en cuenta nuevos marcos jurídicos, como la Ley 10/2022 de garantía integral de la libertad sexual, la Ley 4/2023 de igualdad efectiva de las personas trans y de garantía de los derechos de las personas LGTBI y la Ley 4/2024 de 15 de febrero de Euskadi sobre no discriminación por identidad de género y reconocimiento de los derechos de las personas trans, así como la Ley Orgánica 8/2021 de 4 de junio de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. |

| | |
|---|---|
| indarkeria matxistaren gaia era zabalagoan ulertu eta artatzeari buruzkoak.<br>Azkenik, prozedura administratiboei lotuagoa dagoen kontuak ere garatu dira, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei lotutakoak, genero ikuspegia txertatzeko berdintasun klausulak gehiago txertatzeari buruz, bai eta genero eraginaren aurretiazko ebaluaketa behar duten prozeduren ingurukoa, Euskadi mailan, Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuak ezartzen dituenak, edota administrazio publikoek beren barne antolamenduari begira legealdi bakoitzean erregistratu beharreko Berdintasun Planen ingurukoak, 5/2015 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotzen den moduan. | Por último, se han desarrollado cuestiones más vinculadas a los procedimientos administrativos, como la incorporación de cláusulas de igualdad en la contratación pública y a las subvenciones, así como de aquellos procedimientos que requieran una evaluación previa del impacto de género a nivel de Euskadi, que establece el texto refundido del Ley de igualdad de Euskadi, o de los Planes de Igualdad que las administraciones públicas deben registrar en cada legislatura en relación con su organización interna, tal y como se recoge el Estatuto Básico del Empleado Público 5/2015. |
| III.<br>Atariko tituluan udal-ordenantzaren helburuak eta eragin esparrua zehaztu dira, bai eta ordenantza idazteko kontuan izan diren arauak ere.<br>Lehen tituluak udal barruko berdintasun politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak, egiturak eta hauen funtzioak jasotzen ditu.<br>Bigarren tituluan, administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia txertatzeari buruzko zereginak zerrendatzen dira, hala nola, komunikazio ez-sexista, kontratazio publikoa, hitzarmenetako klausulak, enplegu publikoaren sustapenari buruzkoak, araugintzari, hirigintzari eta aurrekontuei generoaren aurretiazko ebaluazioa egiteko prozedurari buruzkoa, eta abar.<br>Hirugarren tituluak udalaren eskumen eta politiketan genero ikuspegia eta ikuspegi feminista zeharka txertatzeko jarraibideak ezartzen ditu.<br>Azkenik, laugarren tituluak indarkeria matxistari aurre egiteko irispide eta betebeharrak ezartzen ditu. | III.<br>En el Título Preliminar se definen los objetivos y el ámbito de actuación de la Ordenanza Municipal, así como las normas tenidas en cuenta para su redacción.<br>El Título Primero recoge los recursos, estructuras y funciones necesarias para el desarrollo de las políticas de igualdad en el ámbito municipal.<br>En el Título Segundo se enumeran las tareas relativas a la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos administrativos ordinarios, tales como la comunicación no sexista, las cláusulas de igualdad en las subvenciones y en la contratación pública, las relativas a la promoción del empleo público, el procedimiento de evaluación previa de impacto de género a la normativa, en las normas urbanísticas y en los presupuestos, etc.<br>El Título Tercero establece las pautas para la incorporación transversal de la perspectiva de género y feminista en las competencias y políticas municipales.<br>Por último, el Título Cuarto establece el alcance y las obligaciones para hacer frente a la violencia machista. |
| ATARIKO TITULUA | TÍTULO PRELIMINAR |
| **1. artikulua. Xedea eta arau-esparrua**<br>1. Ordenantza honen xedea da nazioarteko, Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia | **Artículo 1. Objeto y marco normativo**<br>1.- La presente Ordenanza tiene por objeto establecer el régimen jurídico municipal |

| | |
|---|---|
| Erkidegoko arauen esparruan, emakume eta gizonen berdintasunak udalerrietan izan beharreko araubide juridikoa ezartzea. Abiapuntu gisa, emakumeen aurkako diskriminazioa fenomeno unibertsala eta egiturazkoa dela aitortzen du Udalak, gizonek eta patriarkatuak emakumeengan izan duten botere eta menperatzearen ondorio direnak. Horrez gain, sexu-genero sistemak pertsona oro baldintzatzen duela aitortzen du, maila ezberdinetan bada ere. Horregatik, berdintasun politikak intersekzionalitatearen ikuspegitik landu beharko dira, diskriminazioak pertsonaren bizitza zikloaren, posizio sozialaren eta unearen arabera aldakorrak izan daitezkeelako. | para la igualdad de mujeres y hombres en el marco de las normas internacionales, europeas, estatales y de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Como punto de partida, el Ayuntamiento reconoce la discriminación contra las mujeres como un fenómeno universal y estructural derivado del poder y dominio que tanto los hombres como el patriarcado han tenido sobre las mujeres. Además, reconoce que el sistema sexo-género condiciona a todas las personas, aunque sea a distintos niveles. Por ello, las políticas de igualdad deberán abordarse desde la perspectiva de la interseccionalidad, ya que las discriminaciones pueden variar en función del ciclo de vida, la posición social y el momento de la persona. |
| 2. Ordenantza honen bidez lortu nahi dena da emakumeen eta gizonen berdintasunerako esparruan egin beharreko jarduerak arautzen dituzten printzipio orokorrak zehaztea, eta bizitzaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, sexu-genero diskriminazioa gainditzea eta, guzti horretarako neurri-sorta bat zehaztea. Bereziki emakumeen ahalduntzea sustatzeko, eta emakumeen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko, emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatuz eta emakumeen eskubideak benetan betetzeko orduan ageri diren oztopoak kenduz. | 2.- La presente Ordenanza tiene por objeto establecer los principios generales que regulan las actuaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres y promoverla en todos los ámbitos de la vida, así como la superación de la discriminación por razón de sexo y el establecimiento de una serie de medidas a tal fin. En particular, con el fin de promover el empoderamiento de las mujeres y reforzar su situación social, económica y política, eliminando todo tipo de discriminación contra las mujeres y las barreras existentes para el efectivo cumplimiento de sus derechos. |
| 3. Bestalde, sexu-genero sistema ez jarraitzeak eragindako bestelako kolektiboen aurkako diskriminazioei aurre hartu, mina erreparatu eta pertsona hauen eskubideak bermatzea bilatuko da udal-ordenantza honen bidez. | 3.- Por otro lado, a través de esta Ordenanza Municipal se pretende prevenir las discriminaciones contra las personas y colectivos que no responden al sistema sexo-género, atender el dolor sufrido y garantizar los derechos de estas personas. |
| 4. Aurreko atalean ezarritakoarekin bat etorriz, arautu beharreko arloa denez gero, berebiziko garrantzia dute honako lege hauek: | 4.- De acuerdo con lo establecido en los puntos anteriores, al tratarse de un ámbito de regulación, resulta de especial importancia la siguiente legislación: |
| a) Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (1979ko abenduaren 18an onartua eta espainiar Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsia). | a) La Convención relativa a la eliminación de toda clase de discriminación contra la mujer (aceptada en el 18 de diciembre de 1979 y confirmada por el Estado español el 16 de diciembre de 1983). |
| b) Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta | b) Convenio relativo a la prevención y lucha contra la violencia hacia las mujeres y la |

ESKUBORRADOR-6BORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| borrokari buruzko hitzarmena (Istambul, 2011ko maiatzaren 11n Europar Kontseiluak onartua eta 2014ko abuztuaren 11n espainiar Estatuan indarrean jarrita). | violencia doméstica (Istambul, aprobado por el Consejo Europeo el 11 de mayo de 2011 y entrada en vigor en el Estado español el 11 de agosto de 2014). |
| c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. | c) Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres. |
| d) Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea. | d) La Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local. |
| e) Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa. | e) La Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de medidas de protección integral contra la violencia de género. |
| f) 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena (aurrerantzean Euskadiko berdintasun legea). | f) Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Ley de igualdad de Euskadi). |
| g) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babestekoa. | g) Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de Protección Integral de la Infancia y la Adolescencia frente a la Violencia. |
| h) 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa. | h) Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual. |
| i) 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen benetako berdintasunari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzkoa. | i) Ley 4/2023, de 28 de febrero, para la igualdad efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI. |
| j) 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. | j) La Ley 4/2024, de 15 de febrero, sobre la no discriminación por identidad de personas trans y el reconocimiento de sus derechos. |
| **2. artikulua. Helburuak** | **Artículo 2. Objetivos** |
| 1. Udalerrian emakume eta gizonen berdintasuna erdiestea, eta genero-sistemak sortutako diskriminazio mota guztiak desagerraraztea. | 1.- Lograr la igualdad de mujeres y hombres en el municipio, y eliminar todas las formas de discriminación generadas por el sistema sexo-género. |
| 2. Emakumeen banakako eta taldekako jabekuntza sustatzea eta beren egoera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea. | 2.- Fomentar el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres y potenciar su situación social, económica y política. |
| 3. Pertsona trans, gay, lesbiana, bisexual eta intersexualen (hemendik aurrera LGTBI+) partaidetza soziopolitikoa sustatzea eta haien eskubideak ahalbideratzea. | 3.- Promover la participación sociopolítica de las personas trans, gays, lesbianas, bisexuales e intersexuales (en adelante LGTBI+) y posibilitar sus derechos. |
| 4. Udal barruko jarduera eta antolamendua genero ikuspegitik garatzea. | 4.- Desarrollar la actividad y la organización dentro del Ayuntamiento desde la perspectiva de género. |
| 5. Indarkeria matxistaren kontrako erantzun integrala eta koordinatua ematea. | 5.- Dar una respuesta integral y coordinada a la violencia machista. |

-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| 6. Horretarako, Udalak, emakume eta gizonen berdintasunarekin eta feminismoarekin duen konpromisoa ezagutzera ematea, berdintasuna intersekzionalitatearen ikuspegitik ulertuta, eta gainerako erakundeen laguntza lortzea, baita gizarte zibilarena ere.<br>7. Eredu sozioekonomikoa sustatzerakoan Zumaiako Udalak zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean izatea. | 6.- Dar a conocer el compromiso municipal con la igualdad de mujeres y hombres y el feminismo, entendiendo la igualdad desde el punto de vista de la interseccionalidad, y contar con el apoyo del resto de instituciones, así como de la sociedad civil.<br>7.- Poner en el centro el cuidado y la sostenibilidad de la vida a la hora de promover el modelo socioeconómico. |
| **3. artikulua. Aplikazio-eremua**<br>1. Ordenantza hau Zumaiako Udalaren administrazioan ezarriko da, eta haren mendeko edo hari lotutako organismoetan.<br>2. Erakunde pribatuei ere ezarriko zaie, Ordenantzak berak ezartzen dituen kasuetan eta, bereziki, Zumaiako Udalarekin kontratuak edo lankidetza-hitzarmenak sinatzen dituzten erakunde pribatuei, edo Zumaiako Udalak emandako dirulaguntzak jasotzen dituztenei. | **Artículo 3. Ámbito de aplicación**<br>1.- La presente Ordenanza será de aplicación a la Administración del Ayuntamiento de Zumaia y a sus organismos dependientes o vinculados.<br>2.- También se aplicará a las entidades privadas, en los casos que la propia Ordenanza establezca y, en particular, a las entidades privadas que suscriban contratos o convenios cooperativos, o que perciban subvenciones concedidas por el Ayuntamiento. |
| **4. artikulua. Oinarrizko printzipioa eta printzipio instrumentalak**<br>1. Ordenantza honen funtsezko arau-oinarriak Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikuluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9.2d) artikulua dira; horien arabera, botere publikoek norbanakoek osatzen dituzten taldeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra erdietsi behar dute. Baita Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuan 4.3 eta 19.2 artikuluetan udalei ematen zaizkien berdintasunerako udal-ordenantzak egiteko eskumenak ere. | **Artículo 4. Principio básico y principios instrumentales**<br>1.- Las bases normativas fundamentales de esta Ordenanza son los artículos 9.2 y 14 de la Constitución Española y el artículo 9.2.d) del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que establecen que los poderes públicos adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de la persona y de los grupos en que se integra sean efectivas y reales. Así como las competencias para la elaboración de ordenanzas municipales para la igualdad que se atribuyen a los ayuntamientos en los artículos 4.3 y 19.2 del texto refundido de la Ley de igualdad de Euskadi. |
| 2. Aurreko atalean aipatutako berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko, Euskadiko berdintasun legea testu bateratuaren 3. artikuluaren arabera gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko botere publiko guztien lana zuzendu eta bideratu behar duten printzipioak baliatuko ditu udal-botereak, | 2.- Para lograr la igualdad real y efectiva mencionada en el apartado anterior, el poder municipal utilizará los principios que deben regir y orientar el trabajo de todos los poderes públicos de la Comunidad Autónoma en materia de igualdad de mujeres y hombres, en particular: la igualdad de trato; la igualdad de |

BORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| zehazki hauek: *tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; generoaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ikuspegi intersekzionala txertatzea; sexu- edo genero-identitatearen garapen askea, sexu-orientazioa, gorputz-autonomia eta autodeterminazioan; ordezkaritza orekatua; lankidetza eta koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea; gizonen inplikazioa; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea; hizkuntza-eskubideen babesa eta euskararen erabileraren sustapena.* | oportunidades; la prevención y erradicación de la violencia machista contra las mujeres; el respeto a la diversidad y a la diferencia; la integración de la perspectiva de género; la acción positiva; la eliminación de roles y estereotipos en función del género; la integración de la perspectiva interseccional; el libre desarrollo de la identidad sexual o de género, la orientación sexual, la autonomía corporal y la autodeterminación; la representación equilibrada; la colaboración y coordinación e internacionalización; el empoderamiento de las mujeres; la implicación de los hombres; la participación; la innovación, transparencia y rendición de cuentas; la protección de los derechos lingüísticos y la promoción del uso del euskera. |
| Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuan ezarritako 16 printzipioetatik bosten definizioak ordenantza honetan jasotzen dira duen garrantziak eta berritasunak hala eskatzen duelako. | La definición de cinco de los 16 principios establecidos en el Texto Refundido de la Ley de igualdad de Euskadi se recoge en esta Ordenanza por su novedad e importancia. |
| a) Genero-ikuspegiaren integrazioa.<br>Zumaiako udalak genero-ikuspegia txertatu behar du politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra. Udal-ordenantza honen ondorioetarako, hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan diferenteak, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, exekutatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan. | a) La integración de la perspectiva de género.<br>El Ayuntamiento de Zumaia debe incorporar la perspectiva de género en todas las políticas y acciones de manera que en todas ellas se establezca el objetivo general de eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres. A los efectos de esta Ordenanza Municipal, se entiende por integración de la perspectiva de género la consideración sistemática de las diferentes situaciones, condiciones, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres, incorporando objetivos y actuaciones específicas dirigidas a eliminar las desigualdades y promover la igualdad en todas las políticas y acciones, a todos los niveles y en todas sus fases de planificación, ejecución y evaluación. |
| b) Ekintza positiboa.<br>Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatzeko, Zumaiako Udalak neurri espezifikoak eta iragankorrak hartu behar ditu bizitzako esparru guztietan sexuan oinarritutako izatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko. Neurria hauek, askotan, kolektibo espezifikoei zuzendutako neurriak izango dira. | b) La acción positiva.<br>Con el fin de promover la consecución de una igualdad real y efectiva de mujeres y hombres, el Ayuntamiento de Zumaia debe adoptar medidas específicas y transitorias para eliminar o reducir las desigualdades basadas en el sexo en todos los ámbitos de la vida. Estas medidas, en muchos casos, irán dirigidas a colectivos específicos. |

| | |
|---|---|
| c) Emakumeen ahalduntzea. | c) El empoderamiento de las mujeres. |
| Zumaiako Udalak baldintzak ezarri behar ditu eta behar diren egokitzapenak egin behar dituzte emakumeak ahalduntzen laguntzeko, emakumeen dibertsitatea kontuan hartuta. Udal-ordenantza honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz jabetzeko egiten duten prozesua, banaka zein modu kolektiboan, bai eta beren bizitzei buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoan oinarritutako desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumena, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere. | El Ayuntamiento de Zumaia debe establecer las condiciones y realizar las adaptaciones necesarias para facilitar el empoderamiento de las mujeres teniendo en cuenta la diversidad de las mismas. A los efectos de esta Ordenanza Municipal, se entiende por empoderamiento de las mujeres el proceso de apropiación individual y colectiva de la situación estructural de desigualdad y discriminación que sufren las mujeres por el hecho de serlo, así como el proceso de adquisición de competencia, poder y control que les permita tomar decisiones estratégicas sobre sus vidas y transformar estructuras e instituciones que refuercen la desigualdad y discriminación por razón de género en determinados aspectos de la vida. |
| d) Intersekzionalitatea: | d) La interseccionalidad: |
| Arau honen ondorioetarako, intersekzionalitatearen ikuspegia kontuan hartzeak esan nahi du kontuan hartu behar dela nola sexuak edo generoak harremana duen bestelako bereizkeria-egoerak sor dezaketen inguruabarrekin. Esaterako, jatorri etnikoa edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familiaren konfigurazioa, desgaitasuna, adina, sexu-joera, sexu edo genero identitatea, genero-adierazpena, landa-eremukoa izatea, migratzailea, errefuxiatua, seropositiboa, guraso bakarra izatea edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal, sozial edo administratibo. Horrela, intersekzionalitatea kontuan hartzeak esan nahi du faktore hauek guztiek nola elkar eragiten duten kontuan hartzeak, egoera, botere- eta zapalkuntza-ardatz desberdinak ematen baitira. Kontzeptu honek bereizkeria anizkoitzaren konplexutasuna azpimarratu nahi du, faktore eta egoera berdinetan bereizkeria edo pribilegio egoera desberdinak eman daitezkeela adieraziz. | A los efectos de esta norma, tener en cuenta la perspectiva de la interseccionalidad implica tener en cuenta cómo el sexo o el género se relacionan con otras circunstancias que pueden dar lugar a situaciones de discriminación. Por ejemplo, el origen étnico o social, el idioma, la religión, la cultura, la política u otras opiniones, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el nacimiento, la configuración familiar, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad sexual o de género, la expresión de género, la pertenencia al mundo rural, la condición de migrante, refugiada, seropositiva, situación de monomarentalidad (o monoparentalidad), o cualquier otra condición o situación personal, social o administrativa. Así, tener en cuenta la interseccionalidad significa tener en cuenta cómo interactúan todos estos factores, ya que se dan diferentes situaciones y diferentes relaciones de poder. Este concepto trata de subrayar la complejidad de la discriminación múltiple, señalando que en los mismos factores y situaciones se pueden dar situaciones de discriminación o de privilegio diferentes. |

| | |
|---|---|
| e) Sexu- edo genero-identitatearen garapen askea, sexu-orientazioa, gorputz-autonomia eta autodeterminazioa:<br>Emakumeen eta gizonen berdintasun benetakoa eta eraginkorra sustatzeko botere publikoek, alde batetik, sexu- eta/edo genero-identitatearekin eta genero-orientazioarekin erlazionatutako diskriminazioak bizitzaren alor guztietatik desagerrarazteko neurriak hartu behar dituzte, eta, beste batetik; beharrezko politika publikoak garatu behar dituzte pertsona guztien, eta bereziki emakume guztien, gorputz-autonomia eta autodeterminazioa bermatzeko eta, bereziki, sexu- eta ugalketa-eskubideak balia ditzaketela ziurtatzeko, diziplina anitzeko ikuspegi integral batetik. | e) El desarrollo libre de la identidad sexual o de género, la orientación sexual, la autonomía corporal y la autodeterminación:<br>Los poderes públicos para promover la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres deben adoptar medidas para eliminar las discriminaciones relacionadas con la identidad y orientación sexual y/o de género, y, por otro lado, desarrollar las políticas públicas necesarias para garantizar la autonomía física y la autodeterminación de todas las personas y, en particular, de todas las mujeres, y, en especial, el ejercicio de los derechos sexuales y reproductivos, desde una perspectiva multidisciplinar e integral. |
| I.TITULUA: Eginkizunak, antolaketa eta baliabideak. | TÍTULO I: Funciones, organización y recursos. |
| *I. KAPITULUA: Marko orokorra* | *CAPÍTULO I: Marco general* |
| **5. artikulua. Xedapen orokorra**<br>1. Zumaiako Udalak emakume eta gizonen berdintasun politikak sustatzeko estrategia nagusi gisa estrategia duala erabiliko du, hau da, genero-zeharlerrotasunaren estrategia batetik, eta bestetik, ekintza positibo neurriak sustatzearena. | **Artículo 5. Disposicion general**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia utilizará como estrategia principal para promover las políticas de igualdad de mujeres y hombres la estrategia dual, que consiste en promover medidas de acción positiva, por un lado, y por otro, impulsar la transversalidad de género en la administración municipal. |
| 2. Genero-zeharlerrotasuna garatzeko, udaleko departamentu guztiek eta haren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakunde publiko guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dute, bai bertako langile nahiz ordezkari politiko guztiek. Horretarako, bakoitzak bere jarduera esparruan, neurri zehatzak programatu eta ezarriko ditu, neurri horien jarraipena egingo du, eta norberaren alorreko politiketan generoaren ikuspegia integratuko dute. | 2.- Para el desarrollo de la estrategia de la transversalidad de género, se promoverá la igualdad de mujeres y hombres desde todas las áreas del ayuntamiento y organismos y entidades públicas dependientes o vinculados al mismo, tanto por el personal técnico como político. Para ello, en sus respectivos ámbitos de actuación, programarán e implantarán medidas concretas, realizarán un seguimiento de las mismas e integrarán la perspectiva de género en las políticas de sus áreas. |
| 3. Berdintasun sailaren funtzioa izango da Udaleko berdintasun politikak bultzatu, koordinatu, bide laguntza eman, jarraipena egin eta ebaluatzea. Halaber, 10 artikuluetan jasotako gainerako eginbeharrak ere izango ditu. | 3.- Corresponde al área de Igualdad el impulso, coordinación, apoyo, seguimiento y evaluación de las políticas de igualdad del Ayuntamiento. Asimismo, tendrá los demás deberes previstos en el artículo 10 de esta ordenanza. |

ESKUBIDEAK-6BORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| **6. artikulua. Udalaren eginkizunak**<br>Zumaiako Udalaren eginkizunak emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuan, 7. artikuluan aurreikusitakoak dira. | **Artículo 6.- Funciones del Ayuntamiento**<br>Las funciones del Ayuntamiento de Zumaia son las previstas en el artículo 7 del texto refundido de la Ley de igualdad de Euskadi. |
| **7. artikulua. Emakume eta gizonen berdintasunerako politiken koordinazioa**<br>1. Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Zumaiako Udalean berdintasun-politikak genero-zeharkakotasuna estrategiaren bidez bultzatu daitezen honela antolatuko da:<br><br>a) Berdintasun Saila.<br>b) Udal berdintasun-politikak bultzatzeko koordinazio politiko-teknikoa.<br>c) Udaletik kanpo berdintasun politikak sustatzeko koordinazioa.<br>f) Indarkeria matxistaren kontrako politiken koordinazioa.<br><br>2. Udal ordenantza honetan jasotakoa garatzeko beharrezkoak diren bestelako koordinazio guneak sustatuko ditu Udalak.<br><br>3. Aipatutako egitura eta espazioak 8. artikulutik 16. artikulura garatzen dira. | **Artículo 7. Coordinación de las políticas de igualdad de mujeres y hombres**<br>1.- A los efectos de lo dispuesto en esta norma, y a los efectos de promover las políticas de igualdad en el Ayuntamiento de Zumaia a través de la estrategia de igualdad y transversalidad de género, se establece la siguiente organización:<br>a) Área de Igualdad.<br>b) Coordinación técnica de las políticas de igualdad municipales.<br>c) Coordinación para el impulso de políticas de igualdad fuera del ámbito municipal.<br>f) Coordinación de las políticas contra la violencia machista.<br><br>2.- El Ayuntamiento promoverá otros espacios de coordinación necesarios para el desarrollo de lo previsto en la presente Ordenanza Municipal.<br>3.- Dichas estructuras y espacios se desarrollan en los artículos 8 a 16. |
| *II. KAPITULUA: Berdintasun saila* | *CAPÍTULO II: Área de Igualdad* |
| **8. artikulua. Berdintasun saila**<br>Berdintasun saila zeharkakotasunez jarduten duen saila da udal barruan. Udal sail egonkorra, eta iraunkorra izango da. | **Artículo 8. Área de Igualdad**<br>El Área de Igualdad trabajará de forma transversal dentro del Ayuntamiento. Será un área municipal independiente y permanente. |
| **9. artikulua. Adskripzioa, langile espezializatuak eta kolaborazioa**<br>1. Berdintasun sailak bere funtzioak era autonomoan egiteko egitura propioa izango du, eta aurrekontu propioa izango du.<br><br>2. Berdintasun saileko teknikariek berdintasun-arloko prestakuntza berezitua izan beharko dute, eta hala jasoko da lanpostuen zerrendan.<br>a) Berdintasun-arloko prestakuntza berezitua egiaztatu egin beharko da, unibertsitateak, herri-administrazio batek nahiz organo ofizial | **Artículo 9. Adscripción, personal especializado y colaboración**<br>1.- El Área de Igualdad tendrá su propia estructura para el ejercicio autónomo de sus funciones y contará con presupuesto propio.<br>2.- El personal técnico del Área de Igualdad deberá tener formación especializada en materia de igualdad, que se recogerá en la relación de puestos de trabajo.<br>a) La formación específica en materia de igualdad deberá acreditarse mediante certificación expedida por una Universidad |

ZIRRIBORROA - BORRADOR -b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| batek emandako egiaztagiriz frogatuz emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko edo emakumeen aurkako indarkeria matxistan esku-hartzeari buruzko gutxienez 150 orduko prestakuntza hartu izana, edota frogatuz gutxienez bi urteko lan-esperientzia izatea emakumeen eta gizonen berdintasun politiken eremuan.<br>b) Berdintasun teknikariak, gutxienez, erdi-mailako teknikari kategoria izango du. Udaleko arloetako arduradunekin interlokuzioa egin eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, jarraipena egin, koordinatu eta ebaluatzeko. | o administración pública u órgano oficial, de haber recibido una formación mínima de 150 horas en materia de igualdad de mujeres y hombres o de intervención en violencia machista contra las mujeres, o de al menos dos años de experiencia laboral en el ámbito de las políticas de igualdad de mujeres y hombres.<br>b) La Técnica de Igualdad tendrá, como mínimo, la categoría de Técnico de Grado Medio para poder así interlocutar con puestos de responsabilidad de las diferentes áreas del Ayuntamiento e impulsar, coordinar, hacer seguimiento y evaluar las políticas de igualdad de mujeres y hombres. |
| **10. artikulua. Eginkizun orokorrak**<br>Berdintasun sailak Euskadiko berdintasun legeko 10. artikuluan ezartzen diren eginkizunak garatu beharko ditu. Horiez gain, eginkizun hauek azpimarratu edo gehitzen dira:<br>1. Udal barruko berdintasunerako politikak bultzatu, diseinatu, programatu eta aholkularitza emateko ardura izango du, bereziki Ordenantza honetan ezarritako prozedurak eta eginkizunak betetzen laguntzeko.<br>2. Indarkeria matxistaren kontrako politiken diseinuan parte hartze aktiboa izatea, eta politika hauen koordinazioa bultzatzea gizarte-politikaren arlokoarekin zein gaiarekin zerikusia duten eskumenak dituen sailarekin. Horrez gain, zerbitzu eta lan ildo horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.<br>3. Zumaiako emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzeko programak koordinatuko ditu, hala nola Zumaiako Emakumeon* Etxea. Arreta berezia emango zaie egoera zaurgarrian dauden emakumeei.<br>4. Zumaiako berdintasunaren aldeko eragileekin interlokuzioa sustatzea, udal politiketan berdintasunaren ikuspegia eta feminismoaren aldarrikapenak eta lan-ildoak zabaldu eta kontrastatzeko. | **Artículo 10. Funciones generales**<br>El Área de Igualdad deberá desarrollar las funciones que se establecen en el artículo 10 de la Ley de igualdad de Euskadi. Además, se destacan o añaden las siguientes funciones:<br>1. El impulso, diseño, programación y asesoramiento de las políticas de igualdad dentro del ámbito municipal, en particular con el fin de facilitar el cumplimiento de los procedimientos y funciones establecidos en la presente Ordenanza.<br>2. Participar activamente en el diseño de políticas contra la violencia machista, impulsando la coordinación de las mismas tanto con el ámbito de la política social como con las áreas que trabajen en la materia. Asimismo, realizar el seguimiento y evaluación de este servicio y línea de trabajo.<br>3. Coordinará programas para fomentar el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres de Zumaia, como la Casa de las Mujeres* de Zumaia. Se prestará especial atención a las mujeres en situación de vulnerabilidad.<br>4. Fomentar la interlocución con agentes de igualdad de Zumaia para difundir y contrastar la perspectiva de igualdad y las reivindicaciones y líneas de trabajo del feminismo en las políticas municipales. |

ESKUBERRIA5-6B0RRAD0R-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| **11. artikulua. Baliabideak**<br>Zumaiako Udalak ordenantza honetan agindutako funtzioak garatzeko beharrezko giza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak, materialak eta administratiboak jarriko ditu Berdintasun Sailaren esku. | **Artículo 11. Recursos**<br>El Ayuntamiento de Zumaia pondrá a disposición del Área de Igualdad los medios personales, económicos, materiales y administrativos necesarios para el desarrollo de las funciones encomendadas en la presente Ordenanza. |
| *III. KAPITULUA: Udal berdintasun-politikak bultzatzeko koordinazio politiko-teknikoa* | *CAPÍTULO III: Coordinación técnica de las políticas de igualdad municipales* |
| **12. artikulua. Udal barruan berdintasun politikak bultzatzeko barne-koordinazioa** | **Artículo 12. Coordinación interna para impulsar políticas de igualdad dentro del Ayuntamiento** |
| 1. Berdintasun politikak koordinatzeko urtean gutxienez bilera bat egingo da udal sail guztietako arduradun politikoekin. Bilera horretan udal sail bakoitzak aurreko urtean egindako ekimenen berri emango du, bai eta datozen hilabeteerako ekimen berri ere. Ekimen hauen jarraipena Berdintasun Planaren bidez egingo da. Horren gain, berdintasunerako udal ordenantzari jarraipena egiteko baliatuko da marko hau. Bilera Berdintasun sailak deituko du eta berdintasun teknikaria izango da akta jasotzearen arduraduna. | 1.- Se realizará al menos una reunión anual de coordinación de las políticas de igualdad con las personas responsables políticas de todas las áreas municipales. En esta reunión cada área municipal dará a conocer las iniciativas realizadas el año anterior, así como las nuevas iniciativas para los próximos meses. El seguimiento de estas iniciativas se realizará a través del Plan de Igualdad. Además, este marco se utilizará para el seguimiento de la ordenanza municipal de igualdad. La reunión será convocada por el Área de Igualdad y la Técnica de Igualdad será la responsable del acta. |
| 2. Maila teknikoan berdintasun politikak koordinatzeko urtean gutxienez bi bilera egingo dira. Bilera hauen helburua udal sail bakoitzak berdintasuna sustatzeko garatu dituen eta garatuko dituen neurriak konpartitu, koordinatu eta ebaluatzea izango da, Berdintasun Planean ezartzen den moduan. Horrez gain, genero-mainstreamingaren estrategia hobetu eta garatzen jarraitzeko ere baliatuko da bilera berdintasun klausulen jarraipena, araudian genero ikuspegia txertatzeko betebeharra edota sail bakoitzean sexu-bereizkeriak identifikatzeko baliatutako datu bilketak konpartitzeko, besteak beste. Bilera hauetan udal sail bakoitzeko arduradun batek hartu beharko du parte gutxienez. Bilerak urteko sei hilabete bakoitzean egingo dira eta Berdintasun sailaren ardura izango da hauek deitu eta aktak jasotzea. | 2.- Se celebrarán al menos dos reuniones anuales de coordinación de las políticas de igualdad a nivel técnico. El objetivo de estas reuniones será compartir, coordinar y evaluar las medidas que cada área municipal ha desarrollado y desarrollará para promover la igualdad, tal y como se establece en el Plan de Igualdad. Asimismo, se aprovechará para seguir mejorando y desarrollando la estrategia del mainstreaming de género; incluyendo el seguimiento de las cláusulas de igualdad, la obligación de incorporar la perspectiva de género en la normativa o las recogidas de datos utilizadas en cada área para identificar las desigualdades de género. En estas reuniones deberá participar al menos un responsable o una responsable de cada área municipal. Las reuniones se celebrarán cada seis meses y será el Área de Igualdad el encargado de convocarlas y levantar las actas. |

| | |
|---|---|
| 3. Aurreko epigrafean ezarritakoaren kaltetan izan gabe, behar diren batzorde edo lantalde sektorial, tekniko edo politikoak eratuko dira, genero-ikuspegia Zumaiako Udalaren arloetan garatzen diren politika publikoetan sar dadin. | 3.- Sin perjuicio de lo establecido en el epígrafe anterior, se crearán las comisiones o grupos de trabajo sectoriales, técnicos o políticos que sean necesarios para que la perspectiva de género se incorpore a las políticas públicas que se desarrollen en las áreas del Ayuntamiento de Zumaia. |
| 4. Udalbatzako ordezkari politiko guztiek Berdintasun Politiken jarraipena egin ahal izateko Batzorde Informatzaileetan berdintasun politiken berri emango da. | 4.- Se informará en las Comisiones Informativas a fin de que todos los grupos políticos de la Corporación puedan realizar el seguimiento de las Políticas de Igualdad. |
| **13. artikulua. Erakundeen arteko koordinazioa**<br>1. Berdintasunerako udal-politika bultzatzean, gainerako udalerriekin eta gainerako erakunde publiko zein pribatuekin koordinatuta egoteko, Zumaiako Udalak Gipuzkoako nahiz bestelako berdintasunerako sareetan parte hartuko du.<br>2. Berdintasuna sustatzeko bestelako egitasmoak koordinatzeko guneetan ere parte hartuko du Zumaiako Udalak, esaterako, Hezkidetza mahaian edo Zaintzen inguruko egitasmo zehatzetan. | **Artículo 13. Coordinación interinstitucional**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia participará en las redes sobre políticas de igualdad para la coordinación con el resto de municipios y demás entidades públicas y privadas en el impulso de la política municipal de igualdad.<br>2.- El Ayuntamiento de Zumaia participará también en los espacios de coordinación de otros proyectos de promoción de la igualdad, como la Mesa de Coeducación o en proyectos concretos sobre cuidados. |
| *IV. KAPITULUA: Udaletik kanpo berdintasuna sustatzeko koordinazioa* | *CAPÍTULO IV: Coordinación para la promoción de la igualdad fuera del Ayuntamiento* |
| **14. artikulua. Emakume talde eta eragile feministekin koordinatzeko Foroa**<br>1. Zumaiako Udalak, antolatu gabeko emakumeei, emakume talde, eragile feminista eta LGTBI+ kolektiboko eragileekin batera lan egiteko foro edo kontseilu bat izango du. Gune horren helburua izango da herriko emakume taldeekin eta eragile feministarekin udalak interlokuzio iraunkor bat izatea eta politika feministen inguruko erabakiak hartzea. Horren gain, Udalari herriko beharren ezagutza hurbilagoa izateko balioko dio interlokuzioak. Emakumeen boteretze politikorako espazioa izango da eta berdintasunaren aldeko lidergo feministekin batera lan egiteko espazioa izatea bultzatuko da. Horretarako, Udalak gardentasunez eta informazioa emanaz lan egingo du. | **Artículo 14º. Foro de coordinación con grupos de mujeres y agentes feministas**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia dispondrá de un foro o consejo de trabajo conjunto con mujeres no organizadas, colectivos de mujeres, agentes feministas y agentes del colectivo LGTBI+. El objetivo de este espacio será que el ayuntamiento tenga una interlocución permanente con los grupos de mujeres del pueblo y con agentes feministas y que se tomen decisiones en torno a las políticas feministas. Además, la interlocución servirá al Ayuntamiento para tener un conocimiento más cercano de las necesidades del pueblo. Será un espacio de empoderamiento político de las mujeres y se impulsará un espacio de trabajo conjunto con liderazgos feministas a favor de la igualdad. Para ello, el Ayuntamiento trabajará con transparencia y facilitará la información necesaria. |

| | |
|---|---|
| 2. Halaber, Berdintasun sailaren bitartez, gune honetako partaideen profila anitza eta ugaria izateko ahalegina egingo du Udalak. | 2.- Asimismo, a través del Área de Igualdad, el Ayuntamiento procurará que el perfil de las participantes en este espacio sea amplio y variado. |
| **15. artikulua: Zumaiako Emakumeon* Etxea ekipamenduaren koordinazioa** Zumaiako Emakumeon* Etxea koordinatzeko egiturak eta funtzionamendua "Emakumeon* Etxeko funtzionamendua" izeneko araudian jasotzen da, 2023ko abuztuaren 10ean GAOn argitaratutako ebazpenean jasotzen den moduan. | **Artículo 15: Coordinación del equipamiento Casa Mujeres de Zumaia** El funcionamiento y las estructuras de coordinación de la Casa de las Mujeres de Zumaia se recogen en el Reglamento "Funcionamiento de la Casa de las Mujeres*", tal y como se recoge en la Resolución publicada en el BOG el 10 de agosto de 2023. |
| *V. KAPITULUA: Indarkeria matxistaren kontrako politiken koordinazioa* | *CAPÍTULO V: Coordinación de políticas contra la violencia machista* |
| **16. artikulua: Udal barneko eta erakundeen arteko koordinazioa** 1. Indarkeria matxistari buruzko politikak koordinatzeko guneak sustatuko ditu Zumaiako Udalak. Politika hauek gidatzeko printzipio nagusiak izango dira Europar Kontseiluko Istanbulgo protokoloan jasotzen direnak, 1/2004 Lege Organikoan jasotzen direnak eta Euskadiko berdintasun legeko testu bateratuan jasotzen direnak, hau da 1/2023 Dekretuan jasotakoak. Horrez gain, kontuan hartuko dira 10/2022 Legeak Organikoak eta 4/2023 Legeak jasotzen dituen kasuak. | **Artículo 16: Coordinación intra e interinstitucional** 1.- El Ayuntamiento de Zumaia promoverá espacios de coordinación de las políticas de violencia machista. Los principios rectores de estas políticas serán los recogidos en el Protocolo de Estambul del Consejo de Europa, en la Ley Orgánica 1/2004 y en el texto refundido del Ley de igualdad de Euskadi 1/2023. Además, se tendrán en cuenta los supuestos contemplados en la Ley 10/2022 -Orgánica y en la Ley 4/2023-. |
| 2. Koordinazioa Udal barrukoa eta erakunde artekoa izango da. Udal barruko koordinazioan, gutxienez, honako arlo hauek hartuko dute parte: Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Berdintasuna. Erakundeen arteko koordinazioan Osakidetzaren eta Ertzaintzaren parte hartzea bultzatuko da, udal barruko koordinazioan parte hartzen duten arloez gain. Koordinazio-esparru horiek gutxienez urtean behin bilduko dira.. | 2.- La coordinación será intramunicipal e interinstitucional. En la coordinación intramunicipal participarán, por lo menos, las siguientes áreas: Servicios Sociales, Guardia Municipal e Igualdad. En la coordinación interinstitucional se impulsará la participación de Osakidetza y Ertzaintza, además de las áreas que participan en la coordinación intramunicipal. Estos marcos de coordinación se reunirán por lo menos una vez al año. |
| 3. Berdintasun Sailak sustatuko ditu gune hauek. Horrela, indarkeria matxistaren kontrako politikak eta kasuen kudeaketak printzipio hauekin diseinatu eta garatuko dira: genero-ikuspegiarekin, emakumeen ahalduntzea oinarri hartuta eta berbiktimizazioa saihestea helburu dutela. | 3.- Estos espacios serán promovidos por el Área de Igualdad. Así, las políticas y la gestión de casos contra la violencia machista se diseñarán y desarrollarán bajo los principios de la perspectiva de género, del empoderamiento de las mujeres y de la prevención de la revictimización. |

b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| 4. Zehaztasun gehiago jasotzen dira IV. Tituluan. | 4.- Mayor concreción en el Título IV |
| II. TITULUA: Udal jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak | TÍTULO II: Medidas para la incorporación de la perspectiva de género en la actividad municipal |
| *I. KAPITULUA: Berdintasunerako Plana* | *CAPÍTULO I: Plan de Igualdad* |
| **17. artikulua. Definizioa**<br>Emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean Zumaiako udal-politika nola gauzatu behar den antolatu eta planifikatzen duen agiria da Berdintasunerako Plana, eta udaleko arloekin eta herritarrekin batera diseinatuko da. | **Artículo 17. Definición**<br>El Plan para la Igualdad es el documento que organiza y planifica la ejecución de la política municipal de Zumaia en materia de igualdad de mujeres y hombres y se diseñará conjuntamente con las áreas municipales y la ciudadanía. |
| **18. artikulua. Esku-hartzerako eremuak eta gogoeta espezifikoko neurriak**<br>1. Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuan 16.3. artikuluan xedatzen denari kalterik egin gabe, Berdintasunerako Planak jarduketa-neurri zehatzak garatuko ditu ordenantza honetan aurreikusitakoa bete dadin. Horretarako udal sail guztien arteko elkarlana sustatuko du.<br>2. Halaber, Berdintasunerako Planak, edo horren ondorioz egin litezkeen plan edo programa zehatzek, arreta berezia jarri beharko dute intersekzionalitatearen ikuspegia integratzeari. Hau da, jatorri, adin, hizkuntza, baliabide ekonomiko, sexu-orientazioa edo genero identitate anitzei, besteak beste. | **Artículo 18. Ámbitos de intervención y medidas de reflexión específicas**<br>1.- Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 16.3 del texto refundido de la Ley de igualdad de Euskadi, el Plan para la Igualdad desarrollará medidas concretas de actuación para dar cumplimiento a lo previsto en la presente Ordenanza. Para ello promoverá la colaboración entre todos los departamentos municipales.<br>2.- Asimismo, el Plan para la Igualdad, o los planes o programas específicos que de él se deriven, deberán prestar especial atención a la integración de la perspectiva de la interseccionalidad. Es decir, al origen, edad, idioma, recursos económicos, orientación sexual o identidad de género entre otras. |
| **19. artikulua. Prestaketa eta kontrola**<br>1. Berdintasun sailak diseinatu eta bultzatuko du Berdintasunerako Plana, eta bere gain joango da Plan horren jarraipena eta ebaluazio orokorra egitea. Departamendu bakoitzak berari egokitu zaizkion ekintzen ardura, jarraipena eta ebaluazioa izango ditu.<br><br>2. Halaber, Ordenantza hau izango da oinarri eta abiapuntua Berdintasunerako Planaren edukiak, norabidea eta jarduera-neurriak finkatzean.<br>3. Berdintasunerako Planaren diseinuan kontuan hartu behar dira Udalak eduki ditzakeen beste plan nahiz dokumentu | **Artículo 19. Preparación y control**<br>1.- El Área de Igualdad diseñará e impulsará el Plan para la Igualdad, asumiendo el seguimiento y la evaluación general del mismo. Cada Área tendrá la responsabilidad, de hacer seguimiento y evaluación de las acciones que le hayan correspondido.<br>2.- Asimismo, la presente Ordenanza servirá de base y punto de partida a la hora de fijar los contenidos, dirección y medidas de actuación del Plan para la Igualdad.<br>3.- En el diseño del Plan para la Igualdad se tendrán en cuenta los objetivos y contenidos recogidos en otros planes y documentos estratégicos que pueda tener |

-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| estrategikoetan jasotako helburu eta edukiak behar den egokitzapena egiteko. | el Ayuntamiento para realizar la necesaria adecuación. |
| 4. Zumaiako Udalak, Berdintasun planaren diseinuan udal sailetako arduradun eta teknikarien eta herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko partaidetza prozesuak sustatuko ditu.<br>5. Berdintasunerako Planaren inguruan komunikazio- eta hedatze-mekanismo egokiak egotea ziurtatuko da. | 4.- El Ayuntamiento de Zumaia promoverá procesos de participación en el diseño del Plan de Igualdad para recoger las opiniones y aportaciones del personal técnico municipal y de la ciudadanía.<br>5.- Se asegurará la existencia de mecanismos comunicativos y de difusión para dar a conocer el Plan de Igualdad. |
| **20. artikulua. Txostena**<br>Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuaren 16.6 artikuluari jarraituz, Emakunde Emakumearen Euskal Institutuari Berdintasunerako Planaren berri eman beharko zaio onartu aurretik, hark oniritzia eman diezaion. | **Artículo 20. Informe**<br>De conformidad con el artículo 16.6 del texto refundido de la Ley de igualdad de Euskadi, el Plan para la Igualdad deberá ser informado previamente a su aprobación al Instituto Vasco de la Mujer Emakunde |
| **21. artikulua. Onarpena**<br>1. Zumaiako Udalak beti edukiko du Berdintasunerako Plan bat indarrean. Planaren indarraldia bukatu baino lehen, Berdintasun sailak proposatuko du Plan berria egitea. Plan berri hori onartu arte, aurreko planaren luzapena emango da. | **Artículo 21. Aceptación**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia siempre tendrá en vigor un Plan para la Igualdad. Antes de finalizar la vigencia del Plan, el Área de Igualdad propondrá la elaboración del nuevo Plan. Hasta la aprobación de este nuevo plan se procederá a la prórroga del anterior. |
| 2. Gardentasuna eta kontu-emateari begira, Plana eta hauen ebaluaketak eskuragarri egon beharko dira web orrian edo eta udaleko gardentasun atarian. | 2.- A efectos de transparencia y rendición de cuentas, el Plan y sus evaluaciones deberán estar disponibles en la página web o en el portal de transparencia del Ayuntamiento. |
| **22. artikulua. Urte osoko ekintza-programak**<br>Planak urteroko ekintza-programa izan beharko du dagozkion baliabideak definituta. Departamentu bakoitzak urtero egingo ditu beren berdintasunerako ekintza-programen jarraipena. | **Artículo 22. Programación anual**<br>El plan deberá disponer de un programa de accion anual con la definición de los recursos correspondientes. Cada Área realizará anualmente el seguimiento de sus programas de acciones para la igualdad. |
| *II. KAPITULUA: Udal ikerketa eta estatistikak* | *CAPÍTULO II: Investigación y estadísticas municipales* |
| **23. artikulua. Estatistika eta ikerketen egokitzapena**<br>1. Ordenantza honetan jasotako arauak betearazteko eta eraginkortasunez bermatzeko genero-ikuspegia bere ohiko jardunean txertatzen duela, Udalak bere eskumenen alorrean, 1/2023 Dekretuan, hau | **Artículo 23. Adaptación de estadísticas e investigaciones**<br>1.- Con el fin de garantizar el cumplimiento y la eficacia de las normas contenidas en la presente Ordenanza, el Ayuntamiento, en el ámbito de sus competencias, deberá cumplir con lo establecido en el Decreto |

| | |
|---|---|
| da Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuaren 17. artikuluaren «a» letratik «f»-ra bitartekoetan ezarritakoa bete beharko du: | 1/2023, texto refundido de la Ley de Igualdad de Euskadi, en las letras «a» a «f» del artículo 17: |
| 2. Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexu-genero adierazlea jasoko da sistematikoki, aukera dagoen guztietan, "*emakume*" eta "*gizon*" aldagaiez gain, hirugarren aukera bat emanaz genero-identitate anitzei lekua egiteko helburuarekin. | 2.- Las estadísticas, encuestas y recogidas de datos que se realicen incluirán sistemáticamente el indicador sexo-género, siempre que exista posibilidad, además de las variables "mujer" y "*hombre*", una tercera opción, con el objetivo de visibilizar las identidades no binarias. |
| 3. Soilik salbuespenezko kasuetan, Berdintasun sailaren aldeko iritziarekin eta zioak emanda dituen txostenaren bidez justifikatu ahal izango da arestian zehazturiko betebeharretako bat ez betetzea. | 3.- Únicamente en casos excepcionales, el incumplimiento de alguna de las obligaciones anteriormente señaladas podrá justificarse mediante informe motivado y favorable del Área de Igualdad. |
| **24. artikulua. Ikerketa eta estatistiken esleipena** | **Artículo 24. Asignación de estudios y estadísticas** |
| Udal-ikerketa eta estatistikak zerbitzu-kontratuen bidez egiten direnean, enpresa esleipendunak aurreko artikuluan jasotako eginkizunak betetzeko konpromisoa hartu beharko du ezinbestean. | Cuando la investigación y estadísticas municipales se realicen a través de contratos de servicios, la empresa adjudicataria se comprometerá inexcusablemente al cumplimiento de las funciones previstas en el artículo anterior. |
| *III. KAPITULUA: Udal-administrazioaren zerbitzura diharduten langileen kudeaketa* | *CAPÍTULO III: Gestión del personal al servicio de la administración municipal* |
| **25. artikulua. Xedapen Orokorra** | **Artículo 25. Disposición General** |
| 1. Zumaiako Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa bermatuko du lanpostuen definizioan, sarbidean, sailkapen profesionalean, promozioan, prestakuntzan, lan-osasunean, ordainsarietan eta lan-eskubideetan, lan-baldintza duin eta ez-baztertzaileak bermatuz. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia garantizará el principio de igualdad de mujeres y hombres en la definición de puestos de trabajo, acceso, clasificación profesional, promoción, formación, salud laboral, retribuciones y derechos laborales, garantizando condiciones laborales dignas y no discriminatorias. |
| 2. Aurreko atalean aurreikusitako eskubideak gauzatzeko, 5/2015 Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako moduan Berdintasunerako barne-plana egin eta aplikatuko du Zumaiako Udalak. | 2.- Para el ejercicio de los derechos previstos en el apartado anterior, el Ayuntamiento de Zumaia elaborará y aplicará el Plan Interno para la Igualdad previsto en el Estatuto Básico del Empleo Público 5/2015. |
| **26. artikulua. Sarbidea, hautaketa eta sustapena** | **Artículo 26. Acceso, selección y promoción** |
| 1. Egokitzat jotako beste neurri batzuk har badaitezke ere, enplegu publikoko lan-postuak lortzeko, betetzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuak erregulatzen dituzten udal -arauetan edo -egintzetan, | 1.- Sin perjuicio de otras medidas que se consideren oportunas, en las normas o actos municipales reguladores de los procesos selectivos para el acceso, provisión y promoción en el empleo público, incluidos |

-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| praktikaldiei buruzkoak barne hartuta, honako hauek jaso behar dira: | los relativos a las prácticas, se recogerán las siguientes clausulas: |
| a) Klausula bat, gaikuntza-berdintasuna egonda emakumeei lehentasuna ematen diena emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidegoa, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. | a) Una cláusula en virtud de la cual se da prioridad a las mujeres en aquellos cuerpos, niveles, escalas y categorías de la Administración en los que las mujeres son inferiores al 40%. Se exceptúan las razones que justifiquen la no aplicación de esta medida por el otro candidato o candidata al puesto de trabajo, que no supongan discriminación por razón de sexo, tales como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades de acceso y promoción. |
| Giza Baliabideen sailak estatistika egokiak eta eguneratuak izan behar dituzte honako hau bermatu ahal izateko. | El Área de Recursos Humanos deberá disponer de estadísticas adecuadas y actualizadas que garanticen este artículo. |
| b) Klausula bat, hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatzeko, guztiek ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan behar dute. | b) Una cláusula por la que se garantice una representación equilibrada de mujeres y hombres en los jurados de selección, todas ellas con capacitación, competencia y preparación adecuada. |
| c) Aurreikuspenak, hautagaiaren lanbide-esperientzia baloratzeko merezimendu-baremoetan honako hauek ere kontuan har daitezen: lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia-egoeran, pertsonen zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen. | c) Previsiones para la valoración de la experiencia profesional del o de la candidato/a, de forma que se tengan en cuenta los baremos de méritos, en primer lugar, el tiempo que ha permanecido el o la candidato/a en situación de excedencia por cuidado de personas o violencia; en segundo lugar, el tiempo que ha dedicado el/la aspirante a la protección de la maternidad y paternidad o a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de forma corresponsable en las reducciones de jornada de trabajo; y, en el tiempo de disfrute de permisos de mujeres empleadas públicas por violencia de género. |
| d) Zenbait neurri hartzea hautaketa, hornikuntza eta sustapen prozesuetan amatasunari behar bezalako babesa emateko, jaio aurreko eta ondorengo aldietan, kontuan hartuta guraso bakarreko familiek nolako zailtasun erantsiak dituzten kontziliaziorako; helburua da sexuagatiko diskriminazio-egoerarik ez gertatzea. Ondorioz, deialdi bakarreko sistemarekin egiten diren ariketetan edo probetan, edo izangaiak bertaratu beharra duten beste jarduketa batzuetan, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea arrazoi bat izan dadila —behar bezala egiaztatuta— egintzaren | d) La adopción de medidas para la adecuada protección de la maternidad en los procesos de selección, provisión y promoción, en los períodos prenatal y postnatal, teniendo en cuenta las dificultades añadidas a la conciliación de las familias monoparentales, con el fin de evitar situaciones de discriminación por razón de sexo. Que, en consecuencia, en los ejercicios o pruebas que se realicen con el sistema de llamamiento único, o en otras actuaciones en las que sea necesaria la asistencia de las personas aspirantes, se justifique debidamente el cambio de |

ESKUBORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| denbora edo lekua aldatzeko justifikazio gisa. Aldaketa-eskaerak onartzen badira, antolakuntza mailan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartuko dira izangai guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko. | tiempo o lugar del acto por embarazo, parto o lactancia. En el caso de que se acepten solicitudes de cambio, se adoptarán las medidas organizativas necesarias y adecuadas para garantizar el principio de igualdad de todos y todas las aspirantes. |
| 2. Aurrez aipatutakoaz gain, hautapen-prozesuetan berdintasun-printzipioa bermatu ahal izateko, eta langile berriak sartzean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaikuntza bermatzeko, Zumaiako Udalak neurri hauek hartuko ditu: | 2.- Además de lo anterior, a fin de garantizar el principio de igualdad en los procesos selectivos y garantizar la capacitación en materia de igualdad de mujeres y hombres en la incorporación del nuevo personal, el Ayuntamiento de Zumaia adoptará las siguientes medidas: |
| a) Berdintasunari buruzko edukiak ezartzea ikasgai-zerrendetan, bai izaera orokorrekoak, bai lortu nahi den lanpostuaren esparrukoak ere. | a) Establecer en las listas del temario contenidos en materia de igualdad, tanto de carácter general como en el ámbito del puesto al que se aspira. |
| b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aditu bat ezartzea berdintasunerako teknikarien hautapen-prozesuetako epaimahaietan. | b) La incorporación de una persona experta en igualdad de mujeres y hombres en los tribunales calificadores de los procesos selectivos de las y los técnicos de igualdad. |
| **27. artikulua. Berdintasun politiken ezagutza** | **Artículo 27. Conocimiento de las políticas de igualdad** |
| 1. Agintaldi bakoitzeko lehen urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal politiken inguruko oinarrizko ezagutza izateko saioak jasoko dituzte ordezkari politikoek. Horrez gain, urtero egingo zaie ezagutza hau handitzeko trebakuntza eskaintza. Edukiak Berdintasun sailarekin kontrastatuz definituko dira. | 1.- Las personas con cargos políticos recibirán durante el primer año de cada mandato formación básica en políticas municipales para la igualdad de mujeres y hombres. Además, anualmente se les ofertará formación para ampliar este conocimiento. Los contenidos se definirán mediante el contraste con el Área de Igualdad. |
| 2. Udal-teknikariek eta ordezkari politikoek berdintasunerako ordenantza eta berdintasun plana ezagutu behar dituzte. Bestetik, berdintasunerako politiken ildo nagusiei buruzko informazioa emango zaie, indarrean dauden jarduera-irizpideak jakinaraziz. | 2.- El personal técnico y político municipal deberán conocer la ordenanza y el plan de igualdad. Por otro lado, se les informará sobre las líneas generales de las políticas de igualdad, informando de los criterios de actuación vigentes. |
| 3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikastaroei edota jardunaldiei buruzko informazioa emango zaie Zumaiako Udaleko teknikariei edo ordezkari politikoei, Berdintasun sailaren bitartez. | 3.- Se informará al personal técnico y político del Ayuntamiento de Zumaia de los cursos y/o jornadas en materia de igualdad de mujeres y hombres, a través del Área de Igualdad. |

| | |
|---|---|
| **28. artikulua. Prestakuntza**<br>1. Euskadiko berdintasun legeak 18. artikuluan xedatzen dena betez, eta genero-ikuspegia administrazioaren jardunean txertatzea ahalbidetzeko, giza baliabideetan ardura duenak, udal langileek genero-berdintasunaren arloan trebakuntza izatea bermatuko du, trebakuntza progresiboa eta espezifikoa eta iraunkorra eta derrigorrezkoa. Zumaiako Udalak neurriak hartuko ditu udal langileek berdintasunari buruzko beharrezko ikastaroak jaso ditzaten.<br>Herri-administrazioen euskal erakundeak emandako ikastaroen bidez edo Zumaiako Udalean egingo diren ikastaroak antolatuta gauzatu ahal izango da trebakuntza hori. | **Artículo 28. Formación**<br>1.- En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 18 del Ley de igualdad de Euskadi, y con el fin de facilitar la integración de la perspectiva de género en el ayuntamiento, el área de recursos humanos, garantizará la formación en materia de igualdad de los empleados municipales, en su modalidad de formación progresiva y específica, permanente y obligatoria. El Ayuntamiento de Zumaia adoptará las medidas oportunas para que el personal municipal reciba los cursos necesarios sobre igualdad.<br>Esta formación podrá llevarse a cabo a través de cursos impartidos por el Instituto Vasco de Administración Pública o mediante la organización de cursos a realizar en el Ayuntamiento de Zumaia. |
| 2. Aurreko ataleko helburua bermatzeko xedearekin, Giza Baliabideen sailak langileek berdintasunaren arloko prestakuntzan inbertituriko denbora neurtu eta baloratuko du. | 2.- Con el fin de garantizar el objetivo del apartado anterior, el Área de Recursos Humanos valorará y medirá el tiempo invertido por el personal en formación en materia de igualdad. |
| 3. Giza Baliabideen sailak prestakuntza-planak diseinatuko ditu genero-berdintasunaren esparruan beren langileentzat Berdintasun sailarekin elkarlanean; eta plan horiek elementu hauek izango dituzte gutxienez: | 3.- El Área de Recursos Humanos diseñará planes de formación para su personal en materia de igualdad, en colaboración con el Área de Igualdad, que contemplen como mínimo los siguientes elementos: |
| a) Berariazko prestakuntza-ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan, bai oinarrizko izaera orokorrekoak, bai izaera bereziago eta espezializatuagoak.<br>b) Emakumeek eta gizonek, berdintasunezko baldintzetan, prestakuntza bermatzeko beharrezko neurriak ezartzea. | a) Acciones de formación específicas en materia de igualdad de mujeres y hombres, tanto de carácter general básico como de carácter más específico y especializado.<br>b) Establecer las medidas necesarias para garantizar la formación de mujeres y hombres en condiciones de igualdad. |
| **29. artikulua. Ordainsariak**<br>Zumaiako Udalak langileen artean soldata arrakalak ote dauden aztertuko du, eta eskuragarri dituen neurri guztiak hartuko ditu sexu-bereizkeria zuzenak edo zeharkakoak ezabatzeko eta berdintasunezko politika bermatzeko, bai lanpostuen balorazioan, bai ordainsarien politikan. | **Artículo 29. Retribuciones**<br>El Ayuntamiento de Zumaia analizará la existencia de brechas salariales entre sus trabajadores y adoptará todas las medidas disponibles para eliminar cualquier discriminación directa o indirecta por razón de sexo y garantizar una política de igualdad, tanto en la valoración de puestos de trabajo como en la política retributiva. |
| **30. artikulua. Lan-segurtasuna eta osasuna**<br>Lan-segurtasunari eta osasunari dagokionez, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa burutzeko, Zumaiako Udalak | **Artículo 30. Seguridad y Salud Laboral**<br>Para la ejecución del principio de igualdad de mujeres y hombres en materia de seguridad y salud laboral, el Ayuntamiento |

| | |
|---|---|
| beharrezko neurriak hartuko ditu helburu hauek lortzeko: | de Zumaia adoptará las medidas necesarias para la consecución de los siguientes objetivos: |
| a) Genero-bereizketak aztertzea lan-baldintzetan, lan-arrisku psikosozialekiko esposizioan, higiene zein ergonomia lan-arriskuekiko esposizioan, eta, horrez gain, prebentzio-mekanismoak ezartzea. | a) Analizar las discriminaciones en las condiciones de trabajo, en la exposición a los riesgos psicosociales en el trabajo, en la higiene y en la ergonomía en la exposición a los riesgos laborales, y establecer mecanismos de prevención. |
| b) Generoaren ikuspegitik, laneko gaixotasunei buruzko ikerketak bultzatzea. | b) Promover la investigación sobre enfermedades profesionales desde la perspectiva de género. |
| c) Emakume langileen ugalketan, haurdunaldian eta edoskitzean osasunaren prebentzioa bermatzea. | c) Garantizar la prevención de la salud en la reproducción, embarazo y lactancia de las trabajadoras. |
| d) Indarkeria matxistaren edozein adierazpen saihestea lan inguruan, eta horretarako, lan-segurtasunerako protokoloan sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa eta neurriak egotea bermatuko da eta honen berri emango zaie langile guztiei. | d) Evitar cualquier manifestación de violencia machista en el ámbito laboral, garantizando la existencia de un protocolo y medidas de prevención del acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el protocolo de seguridad laboral, informando de ello a todo el personal. |
| e) Langileei lan-arriskuen prebentzioan generoaren ikuspegitik prestakuntza ematea. | e) Formar al personal en la prevención de riesgos laborales desde la perspectiva de género. |
| **31. artikulua. Lanaren eta familiaren bateragarritasuna eta erantzukizunen partekatzea** | **Artículo 31. Conciliación y corresponsabilidad laboral y familiar** |
| Zumaiako Udalak bere Berdintasunerako barne-planean neurri hauek hartuko ditu: | El Ayuntamiento de Zumaia en su Plan Interno para la Igualdad adoptará las siguientes medidas: |
| a) Langileen lan-bizitza eta bizitza pertsonal zein profesionala bateratzen laguntzeko neurriak, betiere emakumeen jabekuntzaren ikuspegitik, eta aldi berean zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzen dutenak. | a) Medidas de apoyo para favorecer la conciliación de la vida laboral y personal y profesional de las trabajadoras y trabajadores, siempre desde la perspectiva del empoderamiento de las mujeres y de la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidados. |
| b) Antolakuntzan aldaketa-prozesuak sustatzeko neurriak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta bizitzaren zaintzari arreta emateko. | b) Medidas para promover procesos de cambio en la organización con el fin de atender a la igualdad entre mujeres y hombres y al cuidado de la vida. |
| c) Langileentzako ordutegi- eta espazio-malgutasuna bultzatzeko neurriak, betiere emakumeen jabekuntza ikuspegi batez, eta zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko. | c) Medidas que tiendan a favorecer la flexibilidad de los espacios de trabajo y horarios para impulsar la conciliación, desde una perspectiva del empoderamiento de las mujeres y la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado. |

ZIRRIBORROA - BORRADOR -b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| *IV. KAPITULUA: Ordezkaritza orekatua* | *CAPÍTULO IV: Representación equilibrada* |
| **32. artikulua: Ordezkaritza orekatua**<br>1. Zumaiako Udalak ordezkaritza eta osaketa orekatua bermatuko du bere administrazio-organo guztietan. Oreka hori bete ezean, kasuan kasuko sailaren arduradunak zuritu beharko du txosten baten bidez zergatik ez duen betetzen artikulu hori, txosten hori erreferentziazko espedientean jasoko du eta Berdintasun sailaren eskura jarri. | **Artículo 32: Representación equilibrada**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia garantizará una representación y composición equilibrada en todos sus órganos administrativos. En caso de incumplimiento de este artículo, el responsable del área correspondiente deberá justificar mediante un informe las razones por las que no cumple dicho artículo, informe que recogerá en el expediente de referencia y que pondrá a disposición del área de Igualdad. |
| 2. Artikulu honetan adierazitakoaren ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza baldin badu. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkatuta daudenean izango da orekatua. | 2.- A los efectos de lo previsto en este artículo, se entenderá que existe una representación equilibrada cuando en los tribunales o órganos afines de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40%. En el resto de los casos, el equilibrio se produce cuando ambos sexos están representados. |
| 3. Epaimahai guztietan klausula bat izango dute, hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatzeko, guztiek ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela. Horrez gain, egokitzat jotzen diren beste neurri batzuk ere har daitezke. | 3.- En todos los tribunales existirá una cláusula por la que se garantice una representación equilibrada de mujeres y hombres en los tribunales de selección, todos ellos con capacitación, competencia y preparación adecuada. Asimismo, podrán adoptarse otras medidas que se consideren oportunas. |
| 4. Salbuespen gisa, eta legeak onartzen dituen kasuetan soilik, organo arduradunak txostena helaraziko dio Berdintasun sailari, azken honek oniritzia emateko, ordezkaritza orekatuaren printzipioa ez aplikatzeko. Salbuespen horietan ohikoena hau izaten da: *1/2023 Legea, 3. Artikulua, 10. Puntua, b) Emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa izanik, egokitzat jotzen denean emakumeek ordezkaritza handiagoa izatea, erabakiak hartzeko eremuetan ordezkaritza txikiegia izatearen ondorioz historikoki izan duten desberdinkeria-egoera zuzentze aldera.* | 4.- Excepcionalmente, y sólo en los casos en que la ley lo permita, el órgano responsable dará traslado del informe al Área de Igualdad para que éste dé su visto bueno a fin de no aplicar el principio de representación equilibrada. Una de las excepciones más habituales recogidas en la ley de igualdad es la siguiente:<br>*Articulo 3:10 b) Cuando, existiendo una representación de mujeres superior al 60 % en el órgano, esa sobrerrepresentación se considere acorde al objetivo de corregir la histórica situación de desigualdad que han sufrido las mujeres, derivada de su infrarrepresentación en los ámbitos de toma de decisiones.* |
| **33. artikulua: Organo-politikoak**<br>1. Hauteskundeen ostean sortzen den Udalbatzak eta Gobernuak sexuen ordezkaritza orekatua bete beharko du. Era berean, oreka hori bermatuta egon beharko | **Artículo 33: Los órganos políticos**<br>1.- El Pleno y el Gobierno que se creen después de las elecciones tendrán una representación equilibrada de los sexos. Asimismo, este equilibrio deberá quedar |

BORRADOR -b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| da Batzorde Iraunkorrak osatzean, baita sortu daitezkeen beste batzordeak osatzean ere: Bozeramale Batzordean, izendapen askeko karguetan, epaimahaietan, hautaketa-epaimahaietan, udal-kontseiluetan, parte-hartze organoetan, baita gainerako udal-organoen osaketan ere. | garantizado en la composición de las Comisiones Permanentes, así como en la constitución de otras que pudieran crearse: Junta de Portavoces, cargos de libre designación, tribunales, tribunales de selección, consejos municipales, órganos de participación, así como en la constitución del resto de órganos municipales. |
| 2. Zumaiako Udalak ordezkaritza politikoek osatutako organoetan genero-rol eta estereotipoen araberako lan banaketak ekiditen saiatuko da. Horrez gain, zaindu egingo du hautatutako ordezkariek ez dezaten pairatu portaera edo hizkera sexistarik ez eta gehiegizko lan-zamarik emakume edo gizon izanagatik. | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia procurará evitar la distribución de tareas que marcan los roles y estereotipos de género en los órganos constituidos por las representaciones políticas. Asimismo, velará que los y las representantes electas no sufran comportamientos o lenguajes sexistas ni cargas excesivas de trabajo como por ser mujer u hombre. |
| 3. Azkenik, hautatutako ordezkariek bizitza pertsonala, lana eta ordezkaritza funtzioak elkarrekin uztartzeko modua izatea bultzatuko du Zumaiako Udalak, segurtatuz ordutegiek eta lan egiteko moduek denei ahalbidetzen dietela beren zereginak osoki betetzea. | 3.- Por último, el Ayuntamiento de Zumaia impulsará la conciliación de la vida personal, laboral y política de las personas electas, asegurando que los horarios y modos de trabajo permiten el pleno ejercicio de sus funciones. |
| *V. KAPITULUA: Barne- eta kanpo-informazioa eta komunikazioaren ekoizpena eta kudeaketa* | *CAPÍTULO V: Producción y gestión de la información y comunicación* |
| **35. artikulua. Xedapen Orokorrak** | **Artículo 35. Disposiciones Generales** |
| 1. Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuaren 26. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeari kalterik egin gabe, Zumaiako Udalak komunikazio ez sexista eta barneratzailea erabiliko du edozein informazio, komunikazio, idatzizko dokumentu, ikonografia eta euskarri ekoiztean eta kudeatzean, zuzenean edo pertsona fisiko edo juridiko edo erakundeen bitartez ekoitziak, bai barruko nahiz kanpoko komunikaziorako. | 1.- Sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 26 de la ley de igualdad de Euskadi, el Ayuntamiento de Zumaia hará uso de una comunicación no sexista e inclusiva para la producción y gestión de cualquier información, creación de documentos escritos, iconografía y soporte, producidos directamente o a través de personas físicas o jurídicas o entidades, tanto para la comunicación interna como externa. |
| 2. Emakumeek bizitza sozial, politiko, kultural eta ekonomikoaren hainbat eremutan eta gizarte-rol eta egoera guztietako edozein eremutan duten presentzia ere islatuko du Zumaiako Udalak. | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia reflejará también la presencia de las mujeres en los diferentes ámbitos de la vida social, política, cultural y económica, así como en cualquier ámbito de los diferentes roles y situaciones sociales. |
| 3. Gainera, Zumaiako Udalak sexu baten edo bestearen gehiagotasun edo gutxiagotasunaren ideian oinarrituriko aurreiritziak, jardunak eta hitzezko adierazpenak eta irudiak ekidingo ditu, edo | 3.- Además, el Ayuntamiento de Zumaia evitará prejuicios, actuaciones y expresiones verbales e imágenes basadas en la idea de la superioridad o inferioridad de uno u otro |

| | |
|---|---|
| emakumeen irudi anakronikoa ematen duten emakumeen eta gizonen rol estereotipatuak. | sexo, o roles estereotipados de género que den una imagen anacrónica de las mujeres. |
| 4. Emakumeen eta gizonen trataera, protagonismoa eta balorazioa berdinak direla bermatuko du Zumaiako Udalak idatzizko, irudi bidezko eta ahozko informazioan, ikonografian, publizitatean eta barneko eta kanpoko komunikazioan. Gainera, arreta berezia eskainiko du gizonek eta emakumeek modu parekatuan ordezka dezatela Udala bere komunikazio-jardueretan, hala nola, prentsaurrekoetan, sari-banaketetan, epaimahaietan, etab. | 4.- El Ayuntamiento de Zumaia garantizará la igualdad de trato, protagonismo y valoración de mujeres y hombres en la información escrita, gráfica y oral, iconografía, publicidad y comunicación interna y externa. Además, prestará especial atención a que hombres y mujeres que representen al Ayuntamiento lo hagan de forma paritaria en sus actividades de comunicación, tales como ruedas de prensa, entrega de premios, jurados, etc. |
| 5. Historikoki emakumeen ikusezintasuna konpentsatzeko neurri positibo gisa, emakumeen gain-ordezkaritza onartuko da. | 5.- Como medida positiva para compensar históricamente la invisibilidad de las mujeres, se aceptará la sobrerepresentación de las mujeres. |
| 6. Udalak gizartearen eta erakundeen gaitzespena hedatuko du indarkeria matxistaren adierazpen kulturalen eta sinbolikoen aurrean. | 6.- El Ayuntamiento difundirá el rechazo social e institucional a las manifestaciones culturales y simbólicas de la violencia machista. |
| 7. Informazio, komunikazio eta ikonografia ez-sexista sustatzeko eta jokabide eta jokaera estereotipatuak ekiditeko asmoz, Berdintasun sailak laguntza eta aholkuak emango dizkie eskaera egiten duten udal-erakunde eta elkarte guztiei. | 7º.- Con el fin de promover la información, comunicación e iconografía no sexista y evitar conductas y comportamientos estereotipados, el Área de Igualdad prestará apoyo y asesoramiento a todas las entidades municipales y asociaciones solicitantes. |
| *VI. KAPITULUA: Udaleko araudian eta jardueran generoak duen eragina* | *CAPÍTULO VI: Incorporación de la perspectiva de género de la normativa y actividad municipal* |
| **36. artikulua. Definizioa eta objektua** | **Artículo 36. Definición y objeto** |
| 1. Ordenantza honen ondorioetarako, generoak duen eragina kontuan hartzeak esan nahi du udal-jarduerak edo udal-araudiak emakume eta gizonengan duten eragina kontuan hartu behar dela une oro, bakoitzaren behar eta egoerak ezagutzeko aurrez datuak eta informazioa jasoaz modu desagregatuan. Analisi hori udal jarduerak emakume eta gizonen berdintasunean duen eragina ezagutzeko ezinbestekoa izango da, eta berdintasunerako pauso zuzentzaileak diseinatzen laguntzea izango du helburu. | 1.- A los efectos de esta Ordenanza, la incorporación de la perspectiva de género implica tener en cuenta en todo momento la incidencia de la actividad municipal o de la normativa municipal en mujeres y hombres, recabando previamente datos e información desagregada para conocer sus necesidades y circunstancias. Este análisis es imprescindible para conocer el impacto de la actividad municipal en la igualdad de mujeres y hombres y tendrá como objetivo contribuir a diseñar las acciones correctoras para impulsar la igualdad. |
| 2. Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuan, 20. artikuluan ezarri denari kalterik egin gabe, eta aipaturiko lege horren 19.3. artikuluan xedatu denaren itzalpean, | 2.- Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 20 de la ley de igualdad de Euskadi, y al amparo de lo dispuesto en el artículo 19.3 de la citada Ley, el Área promotor |

| | |
|---|---|
| dagokion departamentu sustatzaileak genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharko du tokiko arauen proiektu guztietan eta horiek aldatu eta eguneratzen direnean: ordenantzetan, erregelamenduetan, hirigintza- eta aurrekontu-arauetan, enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei buruzko proposamenetan eta Plan sektorial nahiz estrategikoetan. | correspondiente deberá realizar una evaluación previa del impacto de género en todos los proyectos de normas locales y su modificación y actualización de ordenanzas, reglamentos, normas urbanísticas y presupuestarias, convocatorias de ofertas de empleo público y concursos de traslados y planes sectoriales y estratégicos. |
| 3. Berdintasun sailari dagokio prozeduran sail arduradunari aholkua eta bidelaguntza ematea eta genero eraginaren aurretiazko ebaluaketaren txostena egoki egin den egiaztatzea. | 3. Corresponde al Área de Igualdad asesorar y acompañar al Área responsable en el procedimiento y comprobar la correcta elaboración del informe de evaluación previa de impacto de género. |
| 4. Hala ere, arau-proiektu hauek salbuetsita daude:<br>• Pertsonei eta baliabideen banaketari eragiten ez dioten arau-proiektuek.<br>• Funtsean antolaketa helburu duten arau-proiektuak. | 4.- No obstante, quedan excluidos los siguientes proyectos normativos:<br>• Proyectos normativos que no afecten a las personas ni al reparto de los recursos.<br>• Proyectos normativos de carácter esencialmente organizativo. |
| 5. Salbuespena izango da txosten arrazoitu baten bidez justifikatzen bada arauari edo planari ez dagokiola genero-ikuspegia txertatzea; txosten hori departamentu sustatzaileak egingo du eta berdintasun sailari helaraziko dio. | 5.- La excepción se justificará mediante informe motivado que será elaborado por el área promotor y remitido al área de Igualdad. |
| **37. artikulua. Txostena egiteko gidalerroak**<br>Zumaiako Udalak genero eraginari buruzko aurretiazko ebaluaketa egiteko jarraibideak eguneratuak izango ditu eta jakinaraziko ditu udal langileen artean. | **Artículo 37. Directrices para la elaboración del informe**<br>El Ayuntamiento de Zumaia mantendrá actualizadas las directrices para la realización de la evaluación previa de impacto de género y las dará a conocer entre el personal municipal. |
| *VII. KAPITULUA: Genero-ikuspegidun aurrekontuak* | *VII CAPÍTULO: Presupuestos con perspectiva de género* |
| **38. artikulua. Xedapen Orokorra**<br>1. Zumaiako Udalak ordenantza honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak gauzatzeko, eta oro har, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko baliabide ekonomikoak bere aurrekontuetan esleitu eta zehaztuko ditu urtero, eta horretarako, gutxienez udal aurrekontuaren %1 Berdintasun sailari esleituko zaio. | **Artículo 38. Disposición General**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia destinará y concretará anualmente en sus presupuestos los recursos económicos destinados a la ejecución de las funciones y medidas previstas en la presente Ordenanza y, en general, al impulso de la igualdad de mujeres y hombres, asignando al área de Igualdad un mínimo del 1% del presupuesto municipal. |
| 2. Aurrekontuen prozeduran genero ikuspegia txertatzeko, aurrekontu proposamenaren | 2.- Para la incorporación de la perspectiva de género en el procedimiento |

b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| espedienteak genero eraginaren aurretiazko analisia egiten duen txosten bat jaso beharko du. Txostenak jasotzen duen analisia progresiboki sakontzen joango da, EAE mailan genero perspektibadun aurrekontuak egiteko prozedurak zehazten doazen heinean. | presupuestario, el expediente de la propuesta de presupuesto deberá incluir un informe en el que se realice un análisis preliminar de impacto de género. El análisis se irá profundizando progresivamente a medida que se vayan perfilando los procedimientos para la elaboración de los presupuestos con perspectiva de género a nivel de la CAPV. |
| *VIII. KAPITULUA: Lehiaketa eta kontratu publikoak* | *CAPÍTULO VIII: Concursos y contratos públicos* |
| **39. artikulua. Xedapen Orokorra**<br>1. Zumaiako Udalak kontratazio arduratsuaren ikuspegiarekin egin behar du lan eta genero-ikuspegia sartu beharko ditu kontratazio publikoan nahitaez, kontratu legeak eta Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuak hala ezartzen baitute. Zeregin horren ardura izango du kontratuaren arduradunak. | **Artículo 39. Disposición General**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia debe trabajar la contratación responsable, así, deberá incluir la perspectiva de género en la contratación pública obligatoriamente, tal y como establecen la ley de contratos del sector público y el texto refundido de la ley de igualdad de Euskadi. Esta tarea será responsabilidad de las y los responsables del contrato. |
| 2. Zumaiako Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak jasoko ditu kontratazio guztien baldintza-pleguetan, administrazio-klausuletan eta preskripzio teknikoetan, gobernu, arduradun edo teknikariaren arloko erantzukizuna izanik. Klausula hauek, gainontzekoak bezala, justifikatuta egon beharko dira.<br>3. Besterik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatuko dituzte adjudikazio-irizpideetan eta exekuzio-baldintza berezietan, bereziki kontuan hartuta *bereizkeria anizkoitza eta intersekzionalitatea*. Helburu horretarako, honako neurriak ezarriko dira: | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia recogerá los criterios para la igualdad de mujeres y hombres en los pliegos de condicion, cláusulas administrativas y prescripciones técnicas de todas las contrataciones, siendo esta responsabilidad política y técnica. Estas cláusulas, al igual que el resto, deberán estar justificadas.<br>3.- Asimismo, incorporarán cláusulas de igualdad de mujeres y hombres en los criterios de adjudicación y en las condiciones especiales de ejecución, atendiendo especialmente a la múltiple discriminación y a la interseccionalidad. A tal fin, se establecerán las siguientes medidas: |
| a) Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako lege hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 1/2023 Legegintza Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; eta Zumaiako Berdintasunerako Udal Ordenantza.<br>Bete beharreko neurrien artean daude: 50 langiletik gorako enpresek Berdintasun Plana | a) La empresa adjudicataria estará obligada al cumplimiento de las siguientes leyes: la Ley Orgánica 3/2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres; el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Violencia Machista contra las Mujeres; y la Ordenanza Municipal de Igualdad de Zumaia.<br>Entre las medidas a cumplir se encuentran: Que las empresas de más de 50 |

BORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| izatea, sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpena prebenitzeko neurriak izatea eta ordainsarien auditoria egina izatea. | trabajadores y trabajadoras cuenten con un Plan de Igualdad, dispongan de medidas de prevención del acoso sexual o por razón de sexo y que cuenten con una auditoria retributiva. |
| b) Horrez gain, Pertsona edo entitate lizitatzaileak, gutxienez, hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratuaren iraunaldi guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera. Ordaintzekoa den soldata ezin izango da inolaz ere ezarritako soldata baino txikiagoa izan. Baldintza hau betetzen dela bermatzeko, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzak jasotzen dituen hitzarmenaren kopia eta nomina-agiriak, edo, kasuan kasu, zinpeko aitorpena eskatu ahalko dira, beharrezkoa den kasuetan. | b) Asimismo, la persona o entidad licitadora deberá garantizar, como mínimo, durante toda la vigencia del contrato el salario recogido en convenio colectivo, en función de la categoría profesional a la que pertenezca el o la trabajadora. En ningún caso el salario podrá ser inferior al salario establecido. Para garantizar el cumplimiento de este requisito, se podrá solicitar copia del convenio y documentos que contengan las condiciones de trabajo que se aplicarán efectivamente a estas y estos o, en su caso, declaración jurada, en los casos en que sea necesario. |
| c) Zerbitzua garatuko duten talde lizitatzaileko pertsona guztiek emakumeenganako eta gizonenganako jarrera errespetagarria eta berdinzalea edukiko dute une oro, eta inoiz ez dute izango jarrera desatsegin, mingarri edo diskriminatzailerik, sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioagatik. | c) Todas las personas del equipo licitador que desarrollen el servicio mantendrán en todo momento una actitud respetuosa e igualitaria con las mujeres y los hombres, y en ningún caso mantendrán actitudes desagradables, dolorosas o discriminatorias por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual. |
| 4. Kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko dira Estatuko oinarrizko legerian kontratatzeko debekua ezarrita duten pertsona fisikoak eta juridikoak; horien artean, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzeagatik eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste oso astuna dela-eta egindako delituengatik edo zehapen irmoengatik jarritakoak. | 4.- Quedarán excluidas del procedimiento de contratación a las personas físicas y jurídicas que incurran en prohibición de contratar establecida por legislación básica del Estado, entre otros por no cumplir con la obligación, en su caso, de contar con un plan de igualdad, o por delitos o sanciones firmes por infracción muy grave en materia de igualdad de mujeres y hombres. |
| 5. Genero-ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat denean, xede horren definizioan berariaz txertatu ahal izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifiko bat. | 5.- Cuando la inclusión de la perspectiva de género sea una característica técnica del objeto del contrato, podrá incluirse en la definición de dicho objeto una mención específica a la igualdad de mujeres y hombres. |
| 6. Kontratuaren xederako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaitasun espezifikoak eskatzen badira, gaitasun tekniko edo profesional gisa eskatuko da esperientzia zehatza, ezagutzak edo prestakuntza izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren | 6.- Cuando para el objeto del contrato se requieran competencias específicas en materia de igualdad de mujeres y hombres, se exigirá como competencia técnica o profesional la experiencia específica, conocimientos o formación en materia de igualdad de mujeres y hombres en los |

b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| arloan, kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritakoaren arabera. | términos establecidos en la normativa sobre contratación pública. |
| 7. Kontratazio-organoek klausula hauek jasoko dituzte kontratazio-agirietan, salbu eta modu objektiboan justifikatzen bada kontratuaren objektua ez dagoela lotuta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, artikulu honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako moduan: | 7.- Los órganos de contratación incluirán en los documentos de contratación las siguientes clausulas, salvo que se justifique objetivamente que el objeto del contrato no está relacionado con la igualdad de mujeres y hombres en los términos previstos en el párrafo primero de este artículo: |
| a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako adjudikazio-irizpideak, baremoaren guztiz-koaren % 5ko haztapenarekin, gutxienez. | a) Criterios de adjudicación para la igualdad de mujeres y hombres, con una ponderación mínima del 5% del total del baremo. |
| b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea; emakumeak bereizten dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak dituen irudia sustatzea. | b) Utilizar la comunicación no sexista en toda la documentación, publicidad, imagen o material; evitar cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres; y promover una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, diversidad de roles e identidades de género. |
| c) Baldintza hau betetzen dela bermatzeko, kontratuak iraun bitartean erabili den dokumentazio, publizitate, idatzi nahiz material grafikoen kopiak (euskarri informatikoan) eskatuko dira. | c) Para garantizar el cumplimiento de esta condición, se solicitará copia en soporte informático de la documentación, publicidad, escritos y material gráfico utilizado durante la vigencia del contrato. |
| d) Kontratuaren jarraipenari lotutako memorietan pertsonei buruzko datuak sexuaren arabera desagregatuak emango dira eta datuen analisia egingo du kontrastistak. | d) En las memorias de seguimiento del contrato se facilitarán datos de personas desagregados por sexo y se realizará un análisis de los datos por parte de la o del contrastista. |
| 8. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla egiaztatu beharko da, eta horretarako: | 8. Deberá acreditarse el cumplimiento efectivo de las cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres, y a tal efecto: |
| a) Kontratistak emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausula guztiak bete dituela frogatzeko betebeharra izango du dagokion dokumentazioa aurkeztuta, aurretiazko errekerimendurik igorri behar izan gabe. | a) La entidad contratista estará obligada al cumplimiento de todas las cláusulas en materia de igualdad entre mujeres y hombres, así como a acreditar su correcta ejecución de manera efectiva, presentando la documentación pertinente sin que medie requerimiento previo. |
| b) Agirietan zehaztuko da zer ondorio dituen aipatutako klausulak urratzeak, bat eginez sektore publikoko kontratuen legerian ezarritakoarekin. | b) Los efectos de la infracción de las citadas cláusulas se determinarán documentalmente, de acuerdo con lo previsto en la legislación de contratos del sector público. |
| c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko berdintasun-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako | c) De conformidad con los artículos 62 y 210 de la Ley de Contratos del Sector Público, el o la responsable del contrato supervisará el cumplimiento de las condiciones de igualdad del contrato y realizará el |

[illegible]-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. | seguimiento de las mismas y adoptará las decisiones que sean necesarias para ello. La inspección podrá ser continua y no solo al final del contrato. |
| d) Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, kontratazio publikoko legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluaren arabera. | d) Las condiciones de esta cláusula son obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la ley de contratación del sector público. En consecuencia, el incumplimiento de estas condiciones podrá dar lugar a la extinción del contrato, de conformidad con el artículo 211.f) de la citada Ley. |
| *IX. KAPITULUA: Dirulaguntzak* | *CAPÍTULO XI: Subvenciones* |
| **40. artikulua. Xedapen Orokorra**<br>Zumaiako Udalak nahitaez txertatu beharko du genero-ikuspegia dirulaguntzak arautzen direnean, fase guztietan, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak sartu behar dituzte balorazio-irizpideetan, bai eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharretan. Zeregin horren ardura izango du dirulaguntzaren arduradunak. | **Artículo 40. Disposición General**<br>El Ayuntamiento de Zumaia deberá incluir la perspectiva de género en todas las fases de las subvenciones, incluyendo medidas de promoción de la igualdad y eliminación de las desigualdades entre mujeres y hombres en los criterios de valoración, y medidas en las obligaciones de las personas físicas o jurídicas beneficiarias. Será responsabilidad del o de la responsable de la subvención. |
| **41. artikulua. Debekua**<br>Zumaiako Udalak ez die inolako dirulaguntzarik emango honako hauei:<br>a) 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei, zehapenak irauten duen denbora tartean.<br>b) Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Euskadiko berdintasun legearen testu bateratuak ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei. Adibidez, berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak. | **Artículo 41. Prohibición**<br>El Ayuntamiento de Zumaia no concederá subvención alguna a:<br>a) Las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa, laboral o penalmente por delitos de carácter sexual, en los términos establecidos en la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio, durante el tiempo que dure la sanción.<br>b) Las personas físicas o jurídicas que incumplan los requisitos establecidos en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y en la ley de igualdad de Euskadi. Por ejemplo, las empresas que, debiendo tener en vigor un plan de igualdad, no lo tengan, y las empresas de más de 50 trabajadores y trabajadoras que no acrediten haber adoptado medidas para prevenir el acoso sexual o por razón de sexo en los términos que establezca la legislación estatal en materia de igualdad de mujeres y hombres. |

| | |
|---|---|
| c) Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei. | c) Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, itinerario, actividad, organización o estatuto que se opongan al principio de igualdad de mujeres y hombres y que discriminen por razón de sexo, ideología, lugar de nacimiento, nacionalidad u orientación sexual. |
| **42. artikulua. Balorazio irizpideak** | **Artículo 42. Criterios de valoración** |
| 1. Zumaiako Udalak, dirulaguntza publikoak erregulatzen dituzten oinarri edo arauetan, balorazio-irizpideetan, baremoaren guztizko % 5a izango da, gutxienez, emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutakoa. Horretarako, honako klausulak ezarri daitezke:<br>a) Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako ibilbide bat egiaztatzea.<br>b) Beren estatutuetako helburuen, xede sozialen edo sorrerako helburuen artean berdintasunaren sustapena izatea.<br>c) Diruz lagundutako proiektua edo jarduera exekutatuko duten pertsonek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa izatea.<br>2. Hori guztia, baldin eta objektiboki justifikatzen ez bada ehuneko hori neurriz kanpokoa dela dirulaguntzak emakume eta gizonen egoeran duen inpaktuari dagokionez. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia en las bases o normas que regulan las subvenciones públicas, el criterio de valoración tendrá como mínimo el 5% del baremo total relacionado con la igualdad de mujeres y hombres. A tal efecto, se podrán establecer las siguientes cláusulas:<br>a) Acreditar un itinerario relacionado con la igualdad de mujeres y hombres.<br>b) Promover la igualdad entre los objetivos estatutarios, sociales o de creación.<br>c) Que las personas que vayan a ejecutar el proyecto o actividad subvencionada dispongan de formación específica en materia de igualdad de mujeres y hombres.<br>2.- Todo ello, salvo que se justifique objetivamente que este porcentaje es desproporcionado con respecto al impacto de la subvención en la situación de mujeres y hombres. |
| **43. artikulua. Baldintzak** | **Artículo 43. Requisitos** |
| Dirulaguntza eman behar duen departamentuak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera, ondorengo baldintzak ezarriko dizkio dirulaguntza jasoko duenari.<br>a) Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, programa edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.<br>b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio barneratzailea erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, | El Área concedente establecerá, de acuerdo con la normativa municipal para la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres, las siguientes condiciones para el beneficiario de la subvención.<br>a) Tener en cuenta que las situaciones, condiciones y necesidades de hombres y mujeres son diferentes y en función de ello integrar la perspectiva de género en el programa o actividad.<br>b) Utilizar una comunicación inclusiva y no sexista en toda la documentación, publicidad, imagen o material. Evitar cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres y promover imágenes que muestren valores de igualdad, presencia equilibrada de |

| | |
|---|---|
| erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea. | mujeres y hombres, de corresponsabilidad en las tareas de cuidado, y diversidad de roles e identidades de género. |
| c) Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea.<br>d)<br>e) Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea. | c) Incluir en la memoria justificativa de la subvención datos desagregados por sexo.<br>d) Que las actividades, eventos o espectáculos organizados sean de contenido no sexista. |
| *X. KAPITULUA: Espazio publikoaren eta instalazio publikoen erabilera* | *CAPÍTULO X: Uso de espacios públicos e instalaciones públicas* |
| **44. artikulua. Baldintzak** | **Artículo 44. Requisitos** |
| 1. Zumaiako Udalak espazio edo/eta eraikin publikoen erabilera baimentzerako orduan kontuan izango du eskatzaileek emakume eta gizonen arteko bereizkeriak saihesten dituztela eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen dituztela. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia a la hora de autorizar el uso de espacios y/o edificios públicos tendrá en cuenta que los y las solicitantes previenen las discriminaciones entre mujeres y hombres y adoptan medidas para promover la igualdad. |
| 2. Baimena eman behar duen departamentuak ondorengo baldintzak ezarriko ditu: | 2.- El Área que deba otorgar la autorización establecerá las siguientes condiciones: |
| a) Ezin izango da diskriminaziorik egin sexua, ideologia, jaioterria, nazionalitatea edo sexu-joera bezalako arrazoiengatik. Antolatutako jardueraren eduki bakar batek ere ez du edukiko inolako mezu eta/edo ikonografia matxistarik. | a) No se podrá discriminar por razón de sexo, ideología, lugar de nacimiento, nacionalidad u orientación sexual. Ninguno de los contenidos de la actividad organizada deberá incluir mensajes y/o iconografías machistas. |
| b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan matxismorik gabeko komunikazioa erabiltzea; emakumeak bereizten dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak dituen irudia izatea. | b) Utilizar la comunicación no sexista en toda la documentación, publicidad, imagen o material; evitar cualquier imagen o estereotipo sexista que discrimine a las mujeres; con valores de igualdad, de presencia equilibrada de los sexos y de diversidad de roles e identidad de género. |
| c) Sariak berdinak edo balio berekoak izango dira emakumeentzat zein gizonentzat.<br>d) Epaimahaian eta agerraldietan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izango da (%40-%60). Lau partaideetatik beherakoetan bi sexuak ordezkatuta egon beharko dira. | c) Los premios serán iguales o de igual valor para mujeres y hombres.<br>d) La presencia de hombres y mujeres en los jurados y comparecencias será equilibrada (40-60%). En los menores de cuatro participantes, ambos sexos deberán estar representados. |
| III. TITULUA: Udal politika, eskumen eta esku-hartze eremuetan berdintasuna sustatzea | TÍTULO III: Promover la igualdad en las políticas, competencias e intervenciones municipales |

| | |
|---|---|
| *I. KAPITULUA: Pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko politikak* | *CAPÍTULO I: Políticas para mejorar las condiciones de vida de las personas* |
| **45. artikulua. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politikak** | **Artículo 45. Políticas de promoción de la infancia, adolescencia y juventud** |
| 1. Udalak, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako jarduera eta zerbitzuetan, genero ikuspegia eta berdintasun printzipioak integratuko ditu, besteak beste, genero rol eta estereotipoen ezabapena bultzatuz. Adibidez, eskola kirolean, aisialdiko eskaintzetan, udako ekimenetan, haur liburutegian, eta abar. | 1.- El Ayuntamiento, en las actividades y servicios que promueva y lleve a cabo dirigidos a la infancia, adolescencia y juventud, integrará la perspectiva de género y los principios de igualdad, impulsando entre otros fines, la eliminación de los roles y estereotipos de género. Por ejemplo, en el deporte escolar, oferta de tiempo libre, iniciativas de verano, biblioteca infantil, etc. |
| 2. Zumaiako Udalaren lehentasunezko helburua izango da herrian bizi diren edo herriko ikastetxeetako ikasle diren haur, nerabe eta gazteen eskubideak sustatzea genero-berdintasunaren eta neskatoen ahalduntzearen ikuspegitik. | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia tiene como objetivo prioritario promover los derechos de la infancia, adolescencia y juventud que viven en el municipio o estudian en los centros escolares de la localidad, desde la perspectiva de la igualdad y el empoderamiento de las niñas. |
| 3. Hezkidetza programa iraunkor bat bermatuko da herri mailan. Programa hori hezkuntza komunitate osoari eskainiko zaio, hezkuntza formalean eta ez formalean. Gai hauek lantzeko programak eskainiko ditu: hezkuntza afektibo-sexuala, genero-berdintasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa eta sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna, sare sozialen bidezko harreman osasuntsuak, eta abar. Horretarako, koordinazio guneak sustatuko dira eskualde-mailan eta herri-mailan. | 3.- Se garantizará un programa permanente de coeducación a nivel local. Este programa se ofrecerá a toda la comunidad educativa formal e informal. Ofrecerá programas que traten la educación afectivo-sexual, la igualdad de trato, la prevención de la violencia machista y la diversidad e identidad sexual, las relaciones sanas a través de las redes sociales, etc. |
| 4. Udalak udalerriko gazteen sexu-heziketara bideratutako ekintzak eta programak bultzatuko ditu, gazteek sexualitatea era osasuntsuagoan bizi ahal izateko; sexualitate askea, estereotipo eta aurreiritzirik gabea, eta norberak bere gorputz eta sexualitatearen jabe eta arduradun bakar gisa hartutako erabakien araberakoa. | 4.- El Ayuntamiento promoverá acciones y programas dirigidos a la educación sexual de las y los jóvenes del municipio, con el fin de que éstos puedan vivir la sexualidad de una forma más sana, libre de estereotipos y prejuicios, y acorde con las decisiones que cada cual tome como única propietaria y responsable de su propio cuerpo y sexualidad. |
| 5. Berariaz zainduko da haur, nerabe eta gazteen askatasun sexualak, jazarpen sexual eta sexistei aurre hartu eta detektatzea, ordenantza honetako IV. Tituluan jasotzen den indarkeria matxistaren aurkako politikekin batera. | 5.- Se velará especialmente por la libertad sexual, para la prevención y detección de las agresiones sexuales, el acoso sexual y sexistas en la infancia, adolescencia y juventud, en coherencia a las políticas contra la violencia machista recogidas en el Título IV de esta ordenanza. |

[illegible]-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| **46. artikulua. Sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna errespetatzea** | **Artículo 46. Respeto a la diversidad de la orientación sexual e identidad de género** |
| 1. Zumaiako Udalak sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen gaineko aniztasuna aitortzen du. Halaber, pertsonen arteko harremanak ez heterosexualak izan daitezkeela eta bestelako familia-ereduak sor daitezkeela aitortzen du. Horregatik, udalerriko herritar guztiak heterosexualak direla suposatu behar ez dela ere aitortzen du, baita nork bere genero-identitatea bere gorputzaz askatasunez kudeatu dezakeela ere. Azkenik, pertsona lesbianek, transek, queerrek, gayek, bisexualek eta intersexualek bizi dituzten berariazko diskriminazioa bizi dutela ere adierazten du, heteroarauaren parametroetatik kanpo daudelako. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia reconoce la diversidad en materia de orientación sexual y de identidad de género. Reconoce también que las relaciones interpersonales pueden no ser heterosexuales y que pueden surgir otros modelos de familia y convivencia. Por ello, también reconoce que no hay que considerar que toda la ciudadanía del municipio es heterosexual, y que cada cual puede gestionar libremente su identidad en su propio cuerpo. Por último, señala la discriminación específica que sufren personas lesbianas, trans, queers, gays, bisexuales e intersexuales por estar fuera de los parámetros de la heteronormatividad. |
| 2. Aurreko atalean adierazitakoa dela eta, Zumaiako Udalak honako neurri hauek bultzatuko ditu: | 2.- En relación con lo señalado en el apartado anterior, el Ayuntamiento de Zumaia impulsará las siguientes medidas: |
| a) LGTBI pertsonen kontrako diskriminazioak identifikatu eta hauen egoerak hobeto ezagutzeko diagnostikoak egingo ditu Udalak. Horrela, pertsona hauen kontrako diskriminazioei aurre egin, kolektiboaren ekarpenak, historia eta memoria berreskuratu eta egoera hobetzeko neurriak hartuko ditu Udal mailako plan baten bidez. | a) El Ayuntamiento identificará las discriminaciones contra las personas LGTBI y realizará diagnósticos para conocer mejor la situación de las mismas. De esta forma, a través de un programa municipal se tomarán medidas para combatir las discriminaciones hacia estas personas, recuperar las aportaciones del colectivo, la historia y la memoria y mejorar su situación. |
| b) Herritarrak maitasun- eta sexu-harremanetan eta genero-identitatean egon beharreko askatasunaz eta aniztasunaz sentsibilizatzeko kanpainak egitea. | b) Promoverá campañas de sensibilización ciudadana sobre la libertad y diversidad en las relaciones afectivo-sexuales y en la identidad de género. |
| c) LGTBI+ kolektiboko pertsonen arteko sareak sustatuko ditu. | c) Potenciará las redes interpersonales del colectivo LGTBI+. |
| **47. artikulua. Emakumeen ahalduntzerako politikak** | **Artículo 47. Políticas de empoderamiento de las mujeres** |
| 1. Zumaiako Udalak genero-berdintasuna sustatzeko estrategia gisa erabiliko du emakumeen ahalduntzea, historikoki bizi izan den ikusezintasuna eta gutxiespenei aurre egin, bereizkerien inguruko jabetzea sustatu, beren bizi-baldintzak hobetzeko tresnez jabetu eta espazio publikoa eskuratzeko helburuarekin. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia impulsará el empoderamiento de las mujeres como estrategia para promover la igualdad de oportunidades, con el objetivo de combatir la invisibilidad y el rechazo que históricamente han vivido, promoverá la toma de conciencia de las discriminaciones, apropiarse de instrumentos para mejorar sus condiciones de vida y del espacio público. |

-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| 2. Gauzak horrela, udal administrazioko eremu guztietatik emakumeen ahalduntzerako ekintza positiboak sustatuko dira, emakumeen aniztasuna eta intersekzionalitatea kontuan hartuz. Horrela, egoera zaurgarrian dauden kolektiboei zuzendutako ahalduntzerako ekimenak antolatuko ditu.<br>3. Zumaiako Udalak emakumeon ahalduntzea sustatzeko ekipamendu propioa sustatuko du, emakumeen antolakuntza eta partaidetzaren bidez jardungo duena. Gaur egun, ekipamendu hori Zumaiako Emakumeon* Etxea da. Ekipamendu honen funtzionamenduaren jarraibideak GAOn argitaratu dira 2023ko abuztuaren 10ean. | 2.- En este sentido, desde todos los ámbitos de la administración municipal se promoverán acciones positivas para el empoderamiento de las mujeres, teniendo en cuenta su diversidad e interseccionalidad. Así, organizará iniciativas de empoderamiento dirigidas a colectivos en situación de vulnerabilidad.<br>3.- El Ayuntamiento de Zumaia promoverá un equipamiento propio que fomente el empoderamiento de las mujeres a través de la organización y participación de las mismas. En la actualidad este equipamiento es la Casa de las Mujeres* de Zumaia. Las instrucciones de funcionamiento de este equipamiento han sido publicadas en el BOG el 10 de agosto de 2023. |
| **48. artikulua. Zaurgarritasunean dauden pertsonentzako politikak**<br>1. Zumaiako Gizarte Zerbitzuen arloak behar diren neurriak hartuko ditu pobrezia eta bazterkeria sozialaren feminizazioaren fenomenoari aurre egiteko, emakumeen behar espezifikoetan arreta jarriz.<br>2. Bestetik, programa espezifikoak diseinatuko dituzte bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeen kolektiboentzat, izan jatorria, kultura, erlijio, hizkuntza, maila sozioekonomiko, sexu orientazioa edo genero identitatea, familia eredu ez tradizionalak, desgaitasuna, adina, eta bestelakoak. | **Artículo 48. Políticas para personas en situación de vulnerabilidad**<br>1.- El área de Servicios Sociales de Zumaia adoptará las medidas necesarias para hacer frente al fenómeno de la feminización de la pobreza y la exclusión social, centrándose en las necesidades específicas de las mujeres.<br>2.- Por otro lado, diseñarán programas específicos para los colectivos de mujeres que sufren discriminación múltiple, ya sean por origen, cultura, religión, lengua, nivel socioeconómico, orientación sexual o identidad de género, modelos familiares no tradicionales, discapacidad, edad, etc. |
| **49. artikulua. Zahartzaro duinari buruzko politikak**<br>1. Zumaiako Udalak adineko emakumeen ongizatea eta babes soziala zainduko du, eta adineko emakumeek bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturalean parte har dezaten sustatuko du.<br>2. Adineko politikak diseinatzean kontuan hartuko du genero ikuspegia eta berariaz adinekoen kontrako indarkeria matxistari aurre hartu, detektatu, artatu eta erreparatzeko neurriak. | **Artículo 49. Políticas para el envejecimiento digno**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia velará por el bienestar y la protección social de las mujeres mayores y promoverá la participación de éstas en la vida política, económica, social y cultural.<br>2.- En el diseño de las políticas de personas mayores se tendrá en cuenta la perspectiva de género y específicamente las medidas de prevención, detección, atención y reparación de la violencia machista contra las personas mayores. |

b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| *KAPITULUA: Ekonomia feminismotik sustatzeko politikak* | *CAPÍTULO II: Políticas de promoción de la economía feminista* |
| **50. artikulua. Zaintza beharren nahiz lanen aitortza** | **Artículo 50. Reconocimiento de las necesidades y trabajos de cuidados** |
| 1. Zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean izango dituen eredu ekonomiko eta soziala sustatuko du Zumaiako Udalak. Horretarako, ikuspegi honekin egingo da lan: | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia impulsará un modelo económico y social centrado en el cuidado y la sostenibilidad de la vida. Para ello se trabajará con el siguiente enfoque: |
| a) Ikuspegi feministak ekarritako zaintzari buruzko hausnarketek ezagutu, zabaldu eta sakontzea Zumaiako Udalerrian, gizarte sistema hobe baterako aukera eman dezakeelako. Horretarako, ikerketa eta diagnostikoak bultzatuko dira. | a) Conocer, difundir y profundizar las reflexiones sobre los cuidados desde la perspectiva feminista en Zumaia, como oportunidad para un mejor sistema social. Para ello se potenciará la investigación y los diagnósticos. |
| b) Pertsona guztien zaintzak jasotzeko eskubidea sustatzea, zaintzak jasotzen dituzten pertsonen autonomia sustatzen dela ziurtatuz, bizi-baldintza on eta desiragarrietan zaintza beharrak asetzen direla bultzatzea. | b) Promover el derecho a los cuidados de todas las personas, asegurando la promoción de la autonomía de las personas que los reciben, la satisfacción de las necesidades de cuidados en condiciones de vida favorables y deseables. |
| c) Zaintza ez-profesionalek zaintza-lanak egiteko orduan dituzten baldintzak erraztu eta duintzea, familiako zaintzaileen ongizatea eta eskaerak kontuan harturik, eta etxeetan zaintza-lanak modu bidezkoagoan banatzen direla sustatuz. | c) Facilitar y dignificar las condiciones de los trabajos de cuidado de las personas no profesionales fomentando una mayor corresponsabilidad en el hogar, teniendo en cuenta el bienestar y las demandas de cuidadores y cuidadoras familiares. |
| d) Zaintza ardurak emakumeen eta gizonen artean banatzeko ekimenak antolatzea, bai eta ekimen komunitarioak sustatzea ere. | d) La organización de iniciativas para el reparto de las responsabilidades de cuidado entre mujeres y hombres, así como el fomento de iniciativas comunitarias. |
| e) Etxeko langile profesionalen eskubideak sustatzeko ekimenak martxan jartzea, bai langileei bai eta kontratatzaileei zuzenduak. | e) Poner en marcha iniciativas dirigidas a las familias contratantes y trabajadoras sobre los derechos de las empleadas de hogar y de cuidados. |
| f) Zaintzeko zerbitzu publikoak sustatzea, enplegu duina eta zerbitzu desiragarria uztartuz. | f) Promover los servicios públicos de cuidados, conjugando empleo digno y servicio deseable. |
| g) Zaintzaileen atsedenerako programak sustatzea. | g) Promover programas de descanso para las personas cuidadoras. |
| **51. artikulua. Zaintzarako zerbitzuak** | **Artículo 51. Servicios de cuidados** |
| 1. Zaintza bizitzaren esparru guztietan aurkitzen denez, Zumaiako Udalak ulertzen du administrazioak ezin dituela % 100ean asetu. Hala ere, egun familien eta emakumeen esku geratzen direnez zaintza ardurak maila oso desproportzionatuan, udalak Zaintza-sistema publikoa sustatuko du ahal duen heinean, esaterako, *Eguneko Zentroa, Etxez Etxeko laguntza, Haurreskola, esku-hartze* | 1.- Dado que el cuidado se encuentra en todas las esferas de la vida, el Ayuntamiento de Zumaia entiende que la Administración no las puede satisfacer al 100%. No obstante, teniendo en cuenta que, en la actualidad, las responsabilidades de cuidado recaen en las familias y mujeres en un nivel muy desproporcionado, el Ayuntamiento promoverá un sistema |

ZIRRIBORROA / BORRADOR -b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| *psikosoziala, Itsasargi zerbitzua, Zaharren Egoitza, Zaintzaileen atsedenerako zerbitzua*. | público de cuidados en la medida de sus posibilidades; como *el Centro de Día, el servicio de Ayuda a Domicilio, la Haurreskola, la intervención psicosocial, el servicio de Itsasargi, la Residencia de Ancianas y Ancianos, y el Servicio de descanso de cuidadores y cuidadoras.* |
| 2. Aipatutako zerbitzu eta programak udalaren bidez, mankomunitateen bidez, Aldundien bidez edota beste erakundeen bidez behar bezala emateko lan egingo du Udalak. | 2.- El Ayuntamiento velará por la correcta prestación de dichos servicios y programas a través del Ayuntamiento, de las Mancomunidades, de las Diputaciones o de otras entidades. |
| 3. Horrez gain, zaintza proiektu komunitarioak babestuko ditu. | 3.- Además, apoyará proyectos comunitarios de cuidados. |
| **52. artikulua. Jarduera ekonomikoa eta enplegua.** | **Artículo 52. Actividad económica y empleo.** |
| 1. Zumaiako Udalak konpromisoa hartzen du garapen ekonomikorako politiketan genero ikuspegia txertatzeko. Horrela, emakume eta gizonen presentzia eta ekarpena ezagutzeko ikerketak sustatuko ditu, enplegu sustapena genero-rol eta estereotiporik gabea sustatuko du eta emakumeen enplegagarritasuna bultzatuko du. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia se compromete a incorporar la perspectiva de género en las políticas de desarrollo económico. Así, promoverá investigaciones para conocer la presencia y aportación de mujeres y hombres, promoverá la promoción del empleo sin roles ni estereotipos de género, y fomentará la empleabilidad de las mujeres. |
| 2. Halaber, harreman etengabe eta erraza izango du udalerriko enpresa eta ekonomia-jarduera garatzen laguntzen duten udalerriko eragileekin emakumeek alor horretan dituzten baldintzak hobetzeko. | 2.- Asimismo, mantendrá una relación permanente y fluida con agentes del municipio que contribuyen al desarrollo de la actividad económica y empresarial para mejorar las condiciones de las mujeres en este ámbito. |
| 3. Turismoaren bidez garapen ekonomia sustatzeko programetan berariaz zainduko du genero rol-estereotipoak ez berproduzitzeko eta berdintasuna sustatzeko. | 3.- Velará especialmente para que en los programas de promoción de la economía para el desarrollo a través del turismo no se reproduzcan los estereotipos de roles de género y se fomente la igualdad. |
| 4. Lehen sektorea bultzatzeko ekimenetan arreta berezia ezarriko dio Zumaiako Udalak emakume baserritarren egoerari, berariaz Euskal Emakume Baserritarren estatutuak jasotzen duen gisan eta emakume artisauei, beren jarduera ekonomikoak sustatuz eta bizi-baldintzak duintzeko ekimenak sustatuz. | 4.- El Ayuntamiento de Zumaia prestará especial atención a las iniciativas de promoción del sector primario a la situación de las mujeres baserritarras, tal y como se recoge en el Estatuto Vasco de las Mujeres Baserritarras y a las mujeres artesanas, promoviendo sus actividades económicas y promoviendo iniciativas para dignificar sus condiciones de vida. |
| 5. Komertzio txikiek eta ostalaritzak herritarren kohesioa eta auzo-zaintza sustatzen dutela aitortzen du udalak. Era berean, kontuan izanik, jarduera hauen zaurgarritasun egoera eta jarduera horietan emakumeek duten | 5.- El Ayuntamiento reconoce que el pequeño comercio y la hostelería promueven la cohesión y cuidado de la ciudadanía. Asimismo, teniendo en cuenta la situación de vulnerabilidad de estas |

| | |
|---|---|
| presentzia altua, ekimen espezifikoak sustatuko dira emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko. | actividades y la alta presencia de las mujeres en ellas, se promoverán iniciativas específicas dirigidas a mejorar las condiciones de vida de las mujeres, también en estos sectores. |
| **53. artikulua. Garapen ekonomiko eta sozialerako herrien arteko lankidetza**<br>Udalak zainduko du bera parte den mugaz gaindiko lankidetza proiektuetan genero ikuspegia eta jasangarritasunekoa kontuan har daitezen, modu koherente, integral eta zeharkakoan, proiektuen fase guztietan. | **Artículo 53. Cooperación para el desarrollo económico y social**<br>El Ayuntamiento velará por que en los proyectos de cooperación transfronteriza en los que participe se contemple la perspectiva de género y de sostenibilidad, de forma coherente, integral y transversal, en todas las fases de los proyectos. |
| **54. artikulua. Pobreziari aurre egiteko neurriak**<br>Zumaiako udalak bizitza duinak bermatzeko laguntzak eta baliabideak sustatuko ditu kontuan izanik emakumeek eta haurrek bizi dituzten pobrezia egoera espezifikoak. | **Artículo 54. Medidas contra la pobreza**<br>El Ayuntamiento de Zumaia promoverá ayudas y recursos para garantizar vidas dignas teniendo en cuenta las situaciones específicas de pobreza en que viven las mujeres y la infancia. |
| *KAPITULUA: Kultura eta bizikidetza osasuntsu baterako politikak* | *CAPÍTULO III: Políticas de cultura, salud y convivencia* |
| **55. artikulua. Kultura**<br>1. Zumaiako Udalak genero-ikuspegitik berrikusiko du tokiko kultur-politika, eta neurri egokiak hartuko ditu emakumeek kulturaren arloan duten presentzia eta partaidetza berdintasunean eman dadin eta genero-rol eta estereotipoei aurre egiten dioten proposamenak sustatzeko; baita artean, sorkuntzan, kulturaren sustapenean eta programazioaren bidez egiten den eskaintzan ere.<br>2. Udalak bere kultur-politikaren eremuan programaturiko edukietan mezu edota ikonografia matxista galaraziko du.<br>3. Udalak emakumeek kulturari eta arte-jarduerari eginiko ekarpena ikusarazteko neurriak hartuko ditu. | **Artículo 55. Cultura**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia revisará su política cultural local desde el punto de vista de género, adoptando las medidas oportunas para resolver progresivamente las posibles deficiencias detectadas en relación con la participación de las mujeres en el ámbito cultural (en la creación, exposición o difusión cultural, o en el consumo cultural).<br>2.- El Ayuntamiento evitará mensajes y/o iconografías machistas en los contenidos programados en el ámbito de su política cultural.<br>3.- El Ayuntamiento adoptará medidas para visibilizar la aportación de las mujeres a la cultura y a la actividad artística. |
| **56. artikulua. Euskararen biziberritzea**<br>Zumaiako Udalak sustatuko dituen euskararen biziberritzeko politiketan kontuan hartuko du sexu-genero sistemak eragindako rol eta estereotipoek izan duten lekua euskalgintzan. Horrela, euskararen biziberritzeko politiken bidez, genero berdintasuna sustatu eta | **Artículo 56. La revitalización del euskera**<br>El Ayuntamiento de Zumaia promoverá políticas de promoción del uso del euskera que contemplen el papel y los estereotipos que el sistema de sexo-género ha tenido en la actividad cultural vasca. De esta forma, a través de las políticas de promoción del uso del euskera, se promoverá la igualdad de |

BORRADOR -b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| emakumeak ahalduntzeko ahalegina egingo du era planifikatuan. | género y se procurará el empoderamiento de las mujeres de forma planificada. |
| **57. artikulua. Jaiak eta aisialdi giroa** | **Artículo 57. Fiestas y ocio** |
| 1. Udalak jaietan eta aisialdian egon daitezkeen diskriminazio egoerak saihesteko neurriak hartuko ditu, genero rol eta estereotipoek baldintzatu gabekoak izan daitezela bermatuz. | 1.- El Ayuntamiento adoptará medidas para evitar situaciones de discriminación en las fiestas y en el ocio, garantizando que no estén condicionadas por los roles y estereotipos de género. |
| 2. Zumaiako Udala jaietako ekintzak eta bertan sortutako giroa udalerriko pertsona guztiek jaia gozatzeko giroa sortzeko lagungarriak izateaz arduratuko da, sexua, adina, aniztasun funtzionala, jatorria, hezkuntza-maila, egoera ekonomikoa edo sexu-aukera dela-eta pertsona batek ere ez dezan mugatua izan jaiaz gozatzeko eta ekintza guztietan parte hartzeko duen eskubidea. | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia velará por que las actividades festivas contribuyan a crear un ambiente en el que todas las personas del municipio disfruten de la fiesta, por razones de sexo, edad, diversidad funcional, procedencia, nivel educativo, situación económica u opción sexual e identidad de género, sin que ninguna persona tenga limitado su derecho a disfrutar de la fiesta ni a participar en ellas. |
| 3. Udalak, herriko jaiak antolatzen dituzten elkarte eta eragileekin batera, berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko jaien ildoan egingo du lan, eta herritar guztientzako jai parekideak bultzatuko ditu. | 3.- El Ayuntamiento, junto con las asociaciones y agentes que organizan las fiestas, trabajará en la línea de fiestas igualitarias y sin violencia machista y fomentará fiestas igualitarias para toda la ciudadanía. |
| **58. artikulua. Jarduera fisikoa eta kirola** | **Artículo 58. Actividad física y deporte** |
| 1. Jarduera fisikoa genero ikuspegitik eta ikuspegi intersekzional batetik sustatu ahal izateko, Zumaiako Udalak, ohitura osasungarriak jendarte guztian zabaltzeko eskaintza egokitua egingo du. | 1.- Con el fin de promover la actividad física desde una perspectiva de género e interseccional, el Ayuntamiento de Zumaia ofrecerá una oferta adaptada para difundir los hábitos saludables a toda la población. |
| 2. Zumaiako Udalak kirolaren arloko eragileekin lankidetza bultzatuko du, emakumeengan kirola sustatzeko konpromisoa lortzeari begira, edozein modalitatetan, tipologiatan (amateurra, «federatua», etab.) edota adin-taldetan. | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia impulsará la colaboración de agentes deportivos a fin de lograr el compromiso de promoción deportiva de las mujeres en cualquiera de sus modalidades, tipologías (amateur, «federado», etc.) o en grupos de edad. |
| 3. Udalak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du, ez soilik kirolean, baizik eta kirolarekin lotutako kudeaketaren eta erabakien gaineko eremuetan ere bai (klubak, elkarteak, etab.). | 3.- El Ayuntamiento promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres no sólo en el deporte, sino también en los ámbitos de la gestión y decisiones relacionadas con el deporte (clubes, asociaciones, etc.). |
| 4. Udalak askotariko jarduera fisikorako eskaintza bermatuko du, eta emakumeak eta gizonak sexuen arabera bereizitako ustezko gaitasunetan eta ezaugarrietan oinarrituriko kirol-jardunetan sailkatzen dituzten estereotipoak hausteko jarduerak izango ditu. Halaber, kirolaren dibertsifikazioaren alde lan | 4.- El Ayuntamiento garantizará una oferta de actividad física diversa y contendrá actividades destinadas a romper los estereotipos que clasifican a mujeres y hombres en prácticas deportivas basadas en presuntas aptitudes y características diferenciadas por sexos. Asimismo, |

| | |
|---|---|
| egitera bultzatuko ditu tokiko gainerako kirol-eragileak. | impulsará al resto de agentes deportivos locales a trabajar a favor de la diversificación deportiva. |
| 5. Udalak genero-ikuspegia txertatuko du kirolarekin zerikusia duten araudietan, baita kirol-esparruko diru-laguntzetan eta instalazioetako zerbitzuen kontratazioan ere. Horrela, onuradunek edo esleipen-hartzaileek zerbitzua kudeatzeko eta emateko proiektuan genero ikuspegia txertatu beharko dute nahitaez, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa bermatu beharko dute, bai antolaketan, bai zerbitzua ematen dutenean; barne zein kanpoko informazioa eta komunikazioa kudeatzen dutenean. | 5.- El Ayuntamiento introducirá el enfoque de género en las normativas relacionadas con el deporte, así como en las subvenciones en el ámbito deportivo y en la contratación de los servicios de las instalaciones. Así, las personas beneficiarias o destinatarias deberán incorporar necesariamente la perspectiva de género en el proyecto de gestión y prestación del servicio, garantizando el principio de igualdad de mujeres y hombres, tanto en la organización como en la prestación del servicio, en la gestión de la información y comunicación interna y externa. |
| **59. artikulua. Oroimen eta elkarbizitza politikak** | **Artículo 59. Memoria y convivencia** |
| Udalak aitortzen du tokian tokiko oroimena dela nortasuna artikulatzen duen funtsezko elementu bat. Horregatik, kasuan kasu dagokion departamentuaren bitartez, emakumeek historian eta udalerriaren garapenean egin duten lana ikusgai jarri eta aitortua izango dela ziurtatzeko ekimenak martxan jarriko ditu eta, berariaz, tokian tokiko oroimena gorde eta hedatzeko elementuetan emakumeak ere ager daitezen bultzatuko du; hala nola, kaleetan, parkeetan, plazetan, eraikinetan, monumentuetan eta bestelako elementu sinbolikoetan, memoria historikoan, hiri-garapen berrietan, eta abar. | El Ayuntamiento reconoce que la memoria local es un elemento esencial que articula la identidad. Por ello, a través del Área correspondiente, pondrá en marcha iniciativas para asegurar que la labor de las mujeres en la historia y en el desarrollo del municipio sea visible y reconocida y, en particular, promoverá la presencia de las mujeres en los elementos de conservación y difusión de la memoria local, como calles, parques, plazas, edificios, monumentos y otros elementos simbólicos, memoria histórica, nuevos desarrollos urbanos, etc. |
| *KAPITULUA: Lurralde jasangarrirako politikak* | *CAPÍTULO IV: Políticas para un territorio sostenible* |
| **60. artikulua. Herri-plangintza eta tokikoa** | **Artículo 60. Planeamiento Local** |
| 1. Zumaiako Udalak hirigintza feminista sustatuko du, hau da, espazioak eraldatuz herritar guztien bizitza duinak lortzea izango du helburu. Horretarako, intersekzionalitatearen ikuspuntutik, aldagai hauek kontuan izango ditu hiri-plangintzan: hurbiltasuna, bizigarritasuna, aniztasuna, autonomia eta ordezkagarritasuna. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia impulsará el urbanismo feminista, es decir, la transformación de espacios para lograr una vida digna de la ciudadanía. Para ello, desde el punto de vista de la interseccionalidad, tendrá en cuenta en el planeamiento urbanístico las variables de proximidad, habitabilidad, diversidad, autonomía y representatividad. |
| 2. Udalak hirigintza multifuntzionala sustatuko du, hirigintza zonifikatu eta | 2.- El Ayuntamiento promoverá el urbanismo multifuncional frente al urbanismo |

| | |
|---|---|
| monofuntzionalaren aurrean. Bestalde, lurraldearen antolamenduaren, herri-plangintzen eta zerbitzuen antolaketaren bidez, ondorengo neurri hauek hartuko ditu: | zonificado y monofuncional. Por su parte, la ordenación del territorio, la planificación local y la ordenación de los servicios adoptará las siguientes medidas: |
| a) Udalerriko leku ez-seguruak ezabatzea eta herriko leku guztietan segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea. | a) La eliminación de los lugares no seguros del municipio y la adopción de medidas para garantizar la seguridad en todos los lugares. |
| b) Berdintasunerako politikek eskatzen dituzten bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazten duten zerbitzuen eta ekipamenduen kokapen estrategikoa. | b) Ubicación estratégica de los servicios y equipamientos que faciliten la conciliación y corresponsabilidad exigida por las políticas de igualdad. |
| c) Irisgarritasuna bermatzeko eta barrera arkitektonikoak desagerrarazteko baliabideak jartzea. | c) Dotar de medios para garantizar la accesibilidad y eliminar barreras arquitectónicas. |
| d) Ekipamenduen eta zerbitzuen ordutegien eskaintza erantzunkidetasunaren beharretara egokitzea. | d) Adecuar la oferta horaria de equipamientos y servicios a las necesidades de corresponsabilidad. |
| e) Herritarren ongizatea sustatzeko herriaren diseinua egokitzea parke estaliak, atsedenerako lekuak, elkartzeko guneak eta antzekoak ezarriz. | e) Adecuar el diseño del municipio para promover el bienestar de la ciudadanía estableciendo parques cubiertos, zonas de descanso, puntos de encuentro, etc. |
| 2. Udalak neurri egokiak hartzea erabaki du, hirigintzako plangintza berrikusteko prozesu guztietan herritarren parte-hartzea sustatzeko, emakumeen eta erakunde feministen parte-hartzea bilatuz, parte-hartze parekidea lortzeko. | 2.- El Ayuntamiento acuerda la adopción de las medidas adecuadas para fomentar la participación ciudadana en todos los procesos de revisión de la planificación urbanistica impulsando la participación de las mujeres y de organizaciones feministas para así lograr una participación paritaria. |
| 3. Era berean, bere egingo du parte hartzeko prozesu-mota horiek burutzeko ardura duen pertsonala gaitzeko, sentsibilizatzeko edota aholkuak emateko eginkizuna. | 3.- Asimismo, asumirá la tarea de capacitar, sensibilizar y/o asesorar al personal encargado de llevar a cabo este tipo de procesos participativos. |
| 4. Zumaiako Udalak genero-ikuspegia hirigintzako plangintzan txertatzeari buruzko gogoeta eta azterketarako guneak bultzatuko ditu. | 4.- El Ayuntamiento de Zumaia impulsará espacios de reflexión y análisis sobre la incorporación del enfoque de género en el planeamiento urbanístico. |
| 5. Era berean, herria genero ikuspegitik aztertuko du, euren diseinua eta zerbitzuak; eta herritarren segurtasuna, irisgarritasuna, osasuna eta ongizatea sustatzeko azterketan ateratako ondorioen arabera, arazoak edo gabeziak konpontzeko beharrezko neurriak hartuko ditu. | 5.- Asimismo, analizará el pueblo desde la perspectiva de género, su diseño y sus servicios; y, de acuerdo con las conclusiones obtenidas en el estudio para la promoción de la seguridad, accesibilidad, salud y bienestar de la ciudadanía, adoptará las medidas necesarias para la resolución de problemas o carencias. |
| **61. artikulua. Etxebizitza** | **Artículo 61. La vivienda** |
| 1. Udalak aitortzen du kalitatezko etxe duin bat edukitzea pertsonen eta familien ongizaterako funtsezko behar batean oinarritutako eskubidea dela. | 1.- El Ayuntamiento reconoce que disponer de una vivienda digna y de calidad es un derecho basado en una necesidad |

| | |
|---|---|
| | esencial para el bienestar de las personas y familias. |
| 2. Gainera, gizon eta emakumeek etxebizitza edukitzeko eskubide berbera dutela aitortzen du, bai errentan hartuta, erosita edo jabetza lortzea ahalbidetzen duen beste modu baten bitartez. | 2.- Reconoce, además, que hombres y mujeres tienen el mismo derecho a acceder a una vivienda, ya sea arrendada, adquirida u otra forma que permita la adquisición de la propiedad. |
| 3. Etxebizitza duina edukitzeko eskubidea berdintasunez gauzatu ahal izateko, Udalak arreta berezia jarriko du egoera ahulean dauden emakumeek beren behar espezifikoengatik izan dezaketen etxebizitza-gabeziaren egoeretan. | 3.- Con el fin de poder ejercer el derecho a una vivienda digna en condiciones de igualdad, el Ayuntamiento prestará especial atención a las situaciones de carencia de vivienda que puedan tener las mujeres en situación de vulnerabilidad por sus necesidades específicas. |
| **62. artikulua. Mugikortasuna** | **Artículo 62. Movilidad** |
| 1. Zumaiako Udalak Mugikortasunaren planean genero ikuspegia txertatuko du bere atal guztietan; aurre-diagnostikoan eta planaren diseinuan, egituraketan, jarduketa ildoetan eta neurrietan. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia integrará en su Plan de Movilidad la perspectiva de género en todos sus apartados: prediagnóstico y diseño, estructuración, líneas de actuación y medidas del Plan. |
| 2. Udalak emakumeen partaidetza bultzatu eta ziurtatuko du mugikortasun politiken eta garraio publikoarekin lotutako diseinuaren, plangintzaren, kudeaketaren eta erabakien arloetan, gaur egun emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak. Horrez gain, kontuan hartuko ditu bestelako kolektibo zaurgarriak, hala nola, aniztasun funtzionala dutenak, adinduak eta gazteak, baita baliabide urriko pertsonak ere. | 2. Siendo las mujeres las principales usuarias del transporte público en la actualidad, el Ayuntamiento fomentará y asegurará la participación de las mujeres en las políticas de movilidad y en el diseño, planificación, gestión y toma de decisiones relacionadas con el transporte público. Además, tendrá en cuenta a otros colectivos vulnerables como los que presentan diversidad funcional, las personas mayores y las jóvenes, así como a las personas con escasos recursos. |
| 3. Haurren autonomia eta zaintza ardurak errazteko hainbat ekimen sustatuko ditu Udalak, hala nola, haurrak eta menpekotasun mailaren bat duten pertsonek ahalik eta autonomia handienarekin mugitu ahal izateko neurriak. | 3. El Ayuntamiento promoverá iniciativas para facilitar la autonomía de la infancia y el trabajo de cuidados, tales como, medidas para que los niños y niñas y las personas con algún grado de dependencia puedan moverse con la mayor autonomía posible. |
| **63. artikulua. Gune seguruak** | **Artículo 63. Zonas seguras** |
| 1. Udalak, Zumaia herri segurua izan dadin, beharrezko analisi eta azterketak egingo ditu maiztasunez, emakumeentzako segurtasun gabeko guneak identifikatu eta herriaren diseinutik espazio seguruak sustatzeko. | 1. El Ayuntamiento realizará periódicamente los análisis y estudios necesarios para que Zumaia sea un pueblo seguro, con el fin de identificar zonas de inseguridad para las mujeres y promover espacios seguros desde el diseño del municipio. |
| 2. Aurrekoa bermatzeko, Hirigintza departamentuak, herritarrek, eta bereziki, emakumeek identifikatutako leku ez | 2. A fin de garantizar lo anterior, el Área de Urbanismo llevará a cabo las obras, |

b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| seguruak ezabatzeko, beharrezko obrak, neurriak eta hobekuntzak gauzatuko dituzte. | medidas y mejoras necesarias para eliminar los lugares inseguros identificados por la ciudadanía y, en particular, por las mujeres. |
| **64. artikulua. Landa eremua eta auzoak**<br>1. Zumaiako Udalak genero ikuspegia sartuko du landa eremura zuzendutako udal politiketan, landa eremuko emakumeen behar espezifikoak kontuan hartuta. Horretarako, hainbat alderdi hartuko ditu kontuan: landa eremuko emakumeen bakardadea eta zahartzea, mugitzeko zailtasuna eta isolamendua besteak beste.<br><br>2. Sare komunitarioak eta landa eremuko emakumeen arteko harremanak sustatuko ditu Udalak, komunikazioa eta informazioa, udal zerbitzuen irisgarritasuna, kulturarako sarbidea eta abar bultzatuko ditu. | **Artículo 64. Medio rural y barrios**<br>1. El ayuntamiento de Zumaia incorporará la perspectiva de género en las políticas municipales dirigidas al ámbito rural, teniendo en cuenta las necesidades específicas de las mujeres rurales. Para ello, tendrá en cuenta aspectos como la soledad y envejecimiento de las mujeres del mundo rural, la dificultad de movilidad y el aislamiento.<br>2. El Ayuntamiento promoverá las redes comunitarias y las relaciones entre las mujeres rurales, fomentará la comunicación e información, la accesibilidad a los servicios municipales, el acceso a la cultura, etc. |
| **65. artikulua. Ingurumena eta energia**<br>1. Zumaiako Udalak genero-ikuspegia ingurumenaren sustapenerako politika publikoetan txertatzea bultzatuko du. Hartara, emakumeen eta gizonen bizimoduekin lotutako berariazko beharrak aintzat hartuko ditu ingurumenaren gaineko politiken eta zerbitzuen garapenean.<br><br>2. Zumaiako Udalak energiaren pobrezia lantzeko politiketan kontuan hartuko du pobrezia energetikoak zelan eragiten dien emakume eta haurrei, bai eta neurri espezifikoak hartuko ditu kolektibo hauen behar espezifikoei erantzuteko.<br>3.- Zumaiako Udalak sustatzen dituen ingurumen- eta energia-politiketan, gizonen eta emakumeen bizimoduei lotutako behar espezifikoak hartuko dira kontuan, eta emakumeen eta gizonen parte-hartzea eta informazioa baldintza berdinetan izatea bultzatuko da. | **Artículo 65. Medio ambiente y energía**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia promoverá la integración de la perspectiva de género en las políticas públicas de medio ambiente. Así, tendrá en cuenta las necesidades específicas relacionadas con los modos de vida de mujeres y hombres en el desarrollo de las políticas y servicios medioambientales.<br>2.- El Ayuntamiento de Zumaia en sus políticas de pobreza energética tendrá en cuenta cómo afecta la pobreza energética a mujeres e infacia, y adoptará medidas específicas para atender las necesidades específicas de estos colectivos.<br>3.- En las políticas medioambientales y energéticas que promueva el Ayuntamiento de Zumaia se tendrá en cuenta las necesidades específicas asociadas a las formas de vida de hombres y mujeres y se impulsará la participación e información en igualdad de condiciones a mujeres y hombres. |
| IV TITULUA: Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak<br>*I KAPITULUA: Xedapen orokorrak* | TÍTULO IV: Vidas sin violencia machista<br>*CAPÍTULO I: Disposiciones generales* |

-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| **66. artikulua. Definizioa** | **Artículo 66. Definición** |
| 1. Zumaiako Udalak indarkeria matxistari aurre egiteko politikak sustatuko ditu. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia promoverá políticas contra la violencia machista. |
| 2. Indarkeria matxista gisa ulertzen da emakumeen aurkako indarkeria, hau da, sexu-genero sistemaren logikan historikoki emakumeek pairatutako gutxiespenen eta diskriminazioen ondorioz eratorritako indarkeria, eta genero-sistemari erantzuten ez dioten gorputzen kontrako indarkeria. | 2.- Se entiende por violencia machista la violencia contra las mujeres, violencia que se deriva del menosprecio y discriminaciones históricamente sufridas por las mujeres en la lógica del sistema sexo-género, y la violencia contra los cuerpos que no responden al sistema de género. |
| 3. Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da. Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen, adineko emakumeen eta emakume transen kontra egiten dena barne. Horrela, neurriz kanpo eragiten dien indarkeriari aurre hartu nahi zaio, bai eremu publikoan, bai pribatuan. | 3.- La violencia machista contra las mujeres es una violación de los derechos humanos. Comprende toda violencia ejercida contra las mujeres por su condición de mujer, incluida la violencia ejercida contra las niñas, las adolescentes y mujeres trans. Con ello se pretende prevenir la violencia, tanto en la esfera pública como en la privada. |
| 4. Indarkeria matxistaz ari garenean, emakumeen aurkako indarkeria kontuan hartzeaz gain, matxismoaren indarkeria pairatzen duten haurrak, LGTBI+ kolektiboko pertsonak eta, oro har, sexu-genero sistemari kontra egin izanagatik pairatzen diren indarkeriak kontuan hartzeaz ari gara. Kontuan hartuko dira ere, indarkeria matxista jasan dutenak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea atsekabetzeko borondatez; indarkeria-bikarioa, esaterako. | 4. Cuando hablamos de violencia machista nos referimos no sólo a la violencia contra las mujeres, sino también a la violencia ejercida contra las niñas y niños, contra las personas LGTBI+ y, en general, contra quienes se confrontan al sistema sexo-género. También se tendrá en cuenta la violencia que se ejerce contra las personas que apoyan a las víctimas de violencia machista, así como la que se ejerce contra su entorno próximo o afectivo, especialmente contra los hijos o hijas u otros familiares, con la intención de afligir a la mujer, como es la violencia vicaria. |
| 5. Indarkeria matxistak esparru ezberdinetan eragiten du (bikote-harremanetan, familian, lan-esparruan, eskolan, gune birtualetan) eta modu ezberdinetan (psikologikoan, ekonomikoan, fisikoan, sexuzkoan...). | 5.- La violencia machista se ejerce en diversos ámbitos (relaciones familiares, laborales, escuela, espacios virtuales) y de modos diversos (psicológica, económica, física, sexual…). |
| **67. artikulua. Jarduera-esparru orokorra eta neurrien egokitzapena** | **Artículo 67. Marco general de actuación y adecuación de las medidas** |
| 1. Udal-politika publikoen diseinuak, departamentu guztietan eta bakoitzaren jarduera-esparruan, indarkeria matxista mota guztiak hartuko ditu kontuan, indarkeria hori zein espaziotan ematen den, nork jasotzen eta nork egiten duen kontuan hartuz. | 1.- El diseño de las políticas públicas municipales, en todas las áreas y en el ámbito de actuación de cada una de ellas, tendrá en cuenta los diferentes tipos de violencia machista, en función del espacio en el que se ejerza, de quien la reciba y de quien la realice. |
| 2. Diseinu horretan, departamentu guztietan eta bakoitzaren jardueren esparruan, bestelako indarkeria-sistemikoei aurre | 2.- En este diseño, en todas las áreas y en el ámbito de sus actividades, se adoptarán |

ZIRRIBORROA BORRADOR -b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| hartzeko neurriak hartuko dira, hala nola; pertsona transen kontrako indarkeria, genero-identitate eta homosexualitatearen kontrako indarkeriak, adinekoen kontrakoak eta, batez ere, haur eta nerabeen kontrako indarkeriak. | medidas preventivas contra otras formas de violencia sistémica, como la violencia contra las personas trans, las violencias contra la identidad de género y la homosexualidad, las personas mayores y, sobre todo, las violencias contra la infancia y la adolescencia. |
| *II KAPITULUA: Prebentzioa* | *CAPÍTULO II: La prevención* |
| **68. artikulua. Prebentzioa eta sentsibilizazioa**<br>1. Zumaiako Udalak berak bakarka nahiz beste erakunde batzuekin batera, kanpainak eta ekintzak egingo ditu Zumaiako herritarrak indarkeria matxistaren larritasunaz kontzientziatzeko.<br>2. Udalak indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen ahalduntzea indartuko du, hori guztia Zumaiako Udaleko beste arlo batzuekin elkarlanean, hala nola Udaltzaingoarekin, Gizarte Zerbitzuekin, Hezkuntzarekin, Berdintasunarekin eta Emakumeen* Etxearen bitartez, besteak beste.<br>3. Halaber, gizonezkoei zuzendutako ekintzak ere bultzatuko ditu konpromiso irmoa har dezaten indarkeria matxistaren aurka eta jarrera arduratsua har dezaten portaera matxisten aurrean. | **Artículo 68. Prevención y sensibilización**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia, de forma individual o en colaboración con otras instituciones, desarrollará campañas y acciones dirigidas a concienciar a la población de Zumaia de la gravedad de la violencia machista.<br>2.- El ayuntamiento reforzará el empoderamiento de las mujeres que se enfrentan a la violencia machista, todo ello en colaboración con otras áreas municipales del Ayuntamiento de Zumaia, como la Guardia Municipal, Servicios Sociales, Educación, Igualdad y a través de la Casa de las Mujeres*, entre otras.<br>3.- Asimismo, promoverá acciones dirigidas a los hombres para que se comprometan firmemente contra la violencia machista y adopten una actitud responsable ante los comportamientos machistas. |
| **69. artikulua. Trebakuntza**<br>1. Zumaiako Udalak prestakuntza emango die bere langileei indarkeria matxistako gaietan, bereziki indarkeria hori pairatzen duten emakumeak zuzenean artatzen dituzten teknikariei eta udaltzainei, haur eta nerabeekin lan egiten duten teknikariei, baita udalaren ardurapeko bestelako langileei ere. Era berean, prestakuntza hori bera bultzatuko du indarkeria matxistaren arloan funtzioak dituzten gainontzeko arloetan.<br><br>2. Indarkeria matxistaren gaia bestelako egoera zaurgarriekin gurutzatzen denean, edota intersekzionalitatearen ikuspegitik, bestelako egoera pertsonal eta sozialekin gurutzatzen denean kontuan hartu beharreko neurriei buruzko trebakuntza sustatuko da aipatutako udal langileentzat. | **Artículo 69. Formación**<br>1.- El Ayuntamiento de Zumaia formará a su personal en materia de violencia machista, especialmente al personal técnico y a la guardia municipal que atienda directamente a las mujeres que la sufren, al personal que trabajen con niños, niñas y adolescentes, así como a trabajadores y trabajadoras que sea necesario. Asimismo, potenciará esta formación en las áreas municipales que lleven a cabo políticas contra la violencia machista.<br>2.- Cuando la violencia machista se cruce con otras situaciones de vulnerablilidad, o desde el punto de vista de la interseccionalidad, por otras circunstancias personales y sociales, se promoverá la formación sobre las medidas a tener en cuenta para el personal municipal mencionado. |

BORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| 3. Berdintasun sailak prestakuntza-ekitaldiak sustatuko ditu Zumaiako erakunde, elkarte eta herritarrentzat, irakasteko nola gauzatzen den indarkeria matxista, nola ezagutu daitekeen eta nola egin dakiokeen aurre. Lanketa espezifikoak egingo dira emakumeekin eta kolektibo zehatzekin. Prestakuntza hauek hainbat erakunderen bidez eskaini daitezkeenez, Berdintasun sailak komunikazioa eta koordinazioa bermatuko du Jabekuntza Eskolaren, Emakumeon* Etxearen eta bestelako eragileen artean. | 3.- El Área de Igualdad promoverá actos de formación dirigidos a asociaciones y ciudadanía de Zumaia sobre la violencia machista, cómo se puede conocer y cómo afrontarla. Se realizarán formaciones específicas con mujeres y otros colectivos concretos. Dado que estas formaciones pueden ser ofertadas a través de diferentes entidades, el área de Igualdad garantizará la comunicación y coordinación con la Escuela de Empoderamiento, la Casa de las Mujeres* y otros agentes. |
| 4. Berdintasun Arloak indarkeria matxista prebenitzeko programak bultzatzen jarraituko du, baita haur eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre hartzeko programak ere udalerriko ikastetxeetan, ikasle eta irakasleei zuzenduak. Horiek zuzenean edo gaiarekin zerikusia duten beste erakunde eta entitate batzuekin koordinatuta antolatuko dira. | 4.- El Área de Igualdad continuará impulsando programas de prevención de la violencia machista, así como de la violencia contra la infancia y la adolescencia en los centros escolares del municipio dirigidas al alumnado y profesorado. Estas se organizarán directamente o en coordinación con otras instituciones y entidades relacionadas con la materia. |
| *III. KAPITULUA: Detekzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa.* | *CAPÍTULO III: Detección, atención, coordinación y reparación.* |
| **70. artikulua. Baliabideak, arreta, babesa eta erreparazioa** | **Artículo 70. Recursos, atención, protección y reparación** |
| 1. Zumaiako Udalak neurri hauek bultzatuko ditu bere eskumenen barruan: | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia, en el ámbito de sus competencias, promoverá las siguientes medidas: |
| a) Bermatuko du indarkeria matxista pairatzen ari diren emakumeek arreta osoa eta pertsonalizatua jasotzen dutela, indarkeria egoeretatik sortzen diren beharrizan guztiei erantzuteko gisan, eta beren eskura jartzen direla kasu bakoitzeko inguruabar sozial edo pertsonalek eskatzen dituzten baliabide egokienak. | a) Garantizará que las mujeres que sufren violencia machista reciban una atención integral y personalizada que responda a todas las necesidades derivadas de las situaciones de violencia y pongan a su disposición los recursos más adecuados a las circunstancias sociales o personales de cada caso. |
| b) Berdintasuna bermatuko du eta ez du onartuko inolako bazterkeriarik ezein arrazoi dela medio, dela pertsonaren joera sexuala, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, aniztasun funtzionala, ezta beste ezein ezaugarri pertsonal nahi sozialengatik ere. | b) Garantizará la igualdad y no aceptará discriminación alguna por razón de orientación sexual, edad, creencia o ideología, pertenencia a una minoría étnica, nacional o lingüística, nivel económico, diversidad funcional, ni cualquier otra característica personal o social de la persona. |
| c) Behar diren neurriak hartuko ditu beren inguruabar pertsonal eta sozialen kausaz arreta integrala iristeko zailtasun gehiago dituztenen, hau da, indarkeria matxista | c) Adoptará las medidas necesarias para garantizar el cumplimiento de los derechos de quienes tengan mayores dificultades para acceder a una atención integral sobre |

ESKERBORRA5-6BORRADOR-b287-897acfa054cc

| | |
|---|---|
| pairatu dutenen eskubideak bete daitezen, bereziki aniztasun funtzionala duten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein izanik ere beren egoera administratiboa. Lagundu egingo zaie indarkeria pairatzen duten emakumeei autonomia pertsonala lortzen eta bizimodu normaldua izaten. | la causa de sus circunstancias personales y sociales, es decir, de quienes hayan sufrido violencia machista, en particular de las mujeres con diversidad funcional y de las mujeres migradas, cualquiera que sea su situación administrativa. Se favorecerá la autonomía personal y la vida normalizada de las mujeres que sufren violencia. |
| d) Adingabeen interesen defentsa bermatuko da. | d) Se garantizará la defensa de los intereses de las y los menores. |
| e) Bermatuko da azkar eta malgu arituko dela, kasuek eskatzen duten erantzuna ahalik eta azkarrena izan dadin. | e) Se garantizará la rapidez y flexibilidad necesarias para que la respuesta a los casos sea lo más rápida posible. |
| f) Eginahalean saihestuko da bigarren mailako biktimizazioa, ahalik eta gehien gutxituz indarkeria matxista pairatutako emakumeek profesional eta erakundeekin dituzten harremanen ondorioz izan ditzaketen eragozpenak. | f) Se evitará la revictimización durante la diligencia, reduciendo al máximo las molestias que puedan sufrir las mujeres víctimas de violencia machista como consecuencia de sus relaciones con profesionales e instituciones. |
| 2. Zumaiako Udalak, Gizarte Zerbitzuen bidez, udalerrian indarkeria matxistari arreta emateko beharrezko baliabideak eta zerbitzuak diseinatu eta garatuko direla bermatuko du. Zerbitzu hauek eskainiko dira: harrera, informazioa ematea, deribazioa, balorazioa, orientazioa, arreta psikologikoa, laguntza juridikoa eta bide-laguntza. Bestetik, Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen beharrei erantzuteko eskura dauden prozesuak eta baliabideak indartuko ditu. | 2.- El Ayuntamiento de Zumaia, a través de sus Servicios Sociales, garantizará el diseño y desarrollo de los recursos y servicios necesarios para la atención a la violencia machista en el municipio. Se ofrecerán servicios de acogida, información, derivación, valoración, orientación, atención psicológica, asistencia jurídica y acompañamiento. Por otro lado, reforzará los procesos y recursos disponibles para dar respuesta a las necesidades de las mujeres que sufren violencia machista. |
| 3. Zumaiako Udalak "Indarkeria eta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei lagundu eta arreta emateko erakundeen arteko jarduera-protokoloa" indarrean edukiko du uneoro, eta berrikusi, eguneratu eta hobetuko du EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III Akordioari jarraiki. | 3.- El Ayuntamiento de Zumaia mantendrá vigente en todo momento el "Protocolo de actuación interinstitucional para la intervención y atención a mujeres víctimas de violencia y malos tratos" y lo revisará, actualizará y mejorará de acuerdo con el III Acuerdo interinstitucional para la coordinación de la atención a víctimas de violencia machista contra las mujeres en la CAE. |
| Berdintasun sailak protokoloa sustatu eta koordinatuko du eta esku-hartzea eta arreta hobetzeko proposamenak egingo ditu. Eta indarkeria jasan duten emakumeen ahalduntze prozesua sustatzeko jarduerak eta zerbitzuak sustatu eta gauzatuko ditu. | El Área de Igualdad promoverá y coordinará el protocolo y formulará propuestas de mejora de la intervención y atención. Así, promoverá y ejecutará actividades y servicios que promuevan procesos de empoderamiento de las mujeres víctimas de violencia. |
| Protokolo horretan parte hartzen duten gainerako udal arloek, hala nola Gizarte Zerbitzuek eta Udaltzaingoak, indarkeria matxistaren aurkako politiken jarraipenean, | Las demás áreas municipales que participen en dicho protocolo, como Servicios Sociales y Guardia Municipal, colaborarán en el |

| | |
|---|---|
| ebaluazioan eta hobekuntzan lagunduko dute.<br>4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekzioa, arreta koordinazioa, babesa eta erraparaziorako ezinbesteko baliabidea dira Emakumeon* Etxeak eta Jabetze Eskola. Horregatik, zerbitzu hauek Gizarte Zerbitzuekin eta Berdintasun sailarekin harreman zuzena eta koordinatua izango dute. | seguimiento, evaluación y mejora de las políticas contra la violencia machista.<br>4. La Casa de las Mujeres* y la Escuela de Empoderamiento son recursos imprescindibles para la detección, la coordinación de la atención, la protección y la reparación de la violencia machista contra las mujeres. Por ello, estos servicios mantendrán una relación directa y coordinada con los Servicios Sociales y con el Área de Igualdad. |
| *IV. KAPITULUA: Salaketa soziala* | *IV. CAPÍTULO: Denuncia social* |
| **71. artikulua. Aldarri eta ekintza publikoak** | **Artículo 71. Reivindicaciones y acciones públicas** |
| 1. Zumaiako Udalak argi eta garbi agertuko du indarkeria matxistaren kontrako jarrera ordezkari politiko nahiz teknikoen bidez, izan eraso zehatzen aurrean nahiz eguneroko jardueran.<br>2. Zumaiako Udalak indarkeria matxistaren aurkako erantzun instituzionaleko udal-protokolo bat du indarrean, eta eguneratua izango du. Horrez gain, komunikaziorako irizpide edo pautak izango ditu aldarri publikoak egitean, izan hautetsien nahiz udal langileen adierazpenen bidez. | 1.- El Ayuntamiento de Zumaia mostrará su rechazo a la violencia machista a través de sus representantes sean políticos o técnicos; tanto ante agresiones concretas como en su actividad diaria.<br>2.- El Ayuntamiento de Zumaia tiene en vigor, y mantendrá actualizado, un protocolo municipal de respuesta institucional contra la violencia machista. Asimismo, incorporará criterios o pautas de comunicación en la elaboración de las respuestas públicas, ya sea a través de las declaraciones del personal electo o personal municipal. |
| 3. Salaketa soziala mugimendu sozialekin batera era koordinatuan egingo da, gehien bat, mugimendu feministarekin elkarlanean. | 3.- La denuncia social se realizará de forma coordinada con los movimientos sociales, especialmente en colaboración con el movimiento feminista. |
| XEDAPEN GEHIGARRIA | DISPOSICION ADICIONAL |
| **Lehena.- Arauaren jarraipena eta ebaluazioa**<br>Zumaiako Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal-ordenantzaren segimendua eta ebaluazio txostena egingo du Berdintasun Planaren ebaluazio urtean. | **Primera. - Seguimiento y evaluación de la norma**<br>El Ayuntamiento de Zumaia elaborará un informe de seguimiento y evaluación de la Ordenanza Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el año de evaluación del Plan de Igualdad. |
| AZKEN XEDAPENAK | DISPOSICIONES FINALES |
| **Lehena.- Udal jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak.**<br>Udal-ordenantza GAO argitaratzen denetik urtebeteko epean, bigarren tituluan jasotzen | **Primera. - Medidas para la incorporación de la perspectiva de género en la actividad municipal.** |

| | |
|---|---|
| diren udal jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak benetan betetzeko helburuarekin, beharrezko prozedurak egokitu eta sortuko dira. Batez ere, udal administrazioaren zerbitzura dihardutεn langileen kudeaketari, genero eraginaren aurretiazko ebaluaketari buruzko prozedurari, genero-ikuspegidun aurrekontuei eta, kontratazio publiko eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko kapituluei dagokionez. | En el plazo de un año desde la publicación de la Ordenanza Municipal en el B.O.G., con el fin de dar cumplimiento efectivo a las medidas de incorporación de la perspectiva de género en la actividad municipal recogidas en el Título Segundo, se adecuarán y crearán los procedimientos necesarios. En particular, en relación con la gestión del personal al servicio de la administración municipal, el procedimiento de evaluación previa de impacto de género, los presupuestos sensibles y los capítulos relativos a la incorporación de cláusulas de igualdad en las contrataciones públicas y subvenciones. |
| **Bigarrena.-Argitaratu eta indarrean jartzea.** Udal-ordenantza hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik kontatzen hasita 15 egun baliodun igaro ostean sartuko da indarrean. | **Segunda. - Publicación y entrada en vigor.** La presente Ordenanza Municipal entrará en vigor a los 15 días hábiles siguientes a su publicación en el BOLETIN OFICIAL DE GIPUZKOA. |

ESKUc725e595-6c2d-41f3-b287-897acfa054cc



EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110

Alkateak Maite Egañari eman dio hitza

MAITE EGAÑA: Aipatu Zumaiako emakume eta gizonen berdintasuneko udal ordenantza honen bidez Zumaiako udalak berdintasun-politiketan egindako eta iten eta  egin nahi duen bidea kontsolidatzea dela asmoa. Bide batez, baita Euskadiko berdintasun legeak esaten duen moduan, ba Tokiko Administrazioak berdintasunari buruzko arau propioak egiteko konpromisoari erantzuten dio eta baita Zumaiako emakume eta gizonen berdintasunerako laugarren berdintasun planean jasota dauden ekintzei ere, hauek gauzatzeko. Udal ordenantza honek udalari eragiten dioten berdintasunari buruzko arauak batzen ditu eta emakume eta gizonen berdintasunerako bidean pauso sendoak ematea du helburu.

Ordenantza hau lau multzotan edo lau titulu nagusitan banatzen da eta  justu horiek dira gero  zabal arautzen dianak ja pixkat multzoa jakiteko bakoitza zer dan, zertan datzan, ba lehenengoa da udal barruko berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabideak, egiturak eta hauen funtzioak jasotzen dituena. Bigarrenak, aldiz, administrazio prozedura arruntetan genero-ikuspegia nola txertatu zerrendatzen du,  adibidez komunikazio ez-sexista, kontratazio publikoa, hitzarmenak, hirigintzako arauak, aurrekontuak genero ikuspegiz aurretiazko ebaluazioa egiteko. Hirugarrenak udalan eskumen eta politiketan genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista zeharka txertatzeko jarraibideak ezartzen ditu. Eta azkenengo atalak, indarkeria matxistari aurre egiteko irizpide eta betebeharrak orduan Ordenantza hauek guzti hau arautzen dute eta hemendikan aurrea ba pixkat bide hori sendotzea da, esan deten bezela, ba hori sendotzea dake helburu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko. Maite. Zerbait komentatzeko? Ba bozkatu eingo dugu. Aldeko bozkak?

**Aldeko botoak:  15 boto (9 EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

LEHENA.- Zumaiako Udaleko  Berdintasunerako ordenantzari behin behineko onarpena ematea espedientean jasota dagoen moduan

BIGARRENA.- Espedientea, eta ondorioz, hasieran onartutako ordenantza kontsultetarako, jendeaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea ezartzea, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Aldi berean, udal ordenantzaren testua udalaren web atarian argitaratzea: www.zumaia.eus.

[illegible]-b287-897acfa054cc

HIRUGARRENA.- Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko bilkuraren berariazko akordiorik behar izan gabe, eta ordenantzaren testu osoa isilbidez behin betiko onartzeko erabakia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

**2.6.- ERABAT DEUSEZ DEKLARATZEA A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**LURRALDE BATZORDEAREN IRIZPENA**

**2024KO URRIAREN 23KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURAREN INGURUAN.**

Udala izapidetzen ari den hurrengo espedienteari dagokionez, NEREA EGAÑA EGAÑAk (NAN: 72458313X) eskatuta, Maria Belen Manterola Egañari, titular gisa, eta Juan Ignacio Manterola Chaparteguiri eta Maite Egaña Elorriagari, titularkide gisa, 2005eko azaroaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez Egaña Manterola A-155 panteoiaren titulartasuna ematearen ondoriozko administrazio-egintza berrikusteko eskaera dela eta, eta Udalbatzak 2024ko uztailaren 24an hartutako erabakiaren arabera, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio egintza hori ofizioz berrikusteko prozedurari.

Aurrekari hauek ikusita

- Interesdunaren eskaria:  2024ko uztailaren 10an
- Alkate probidentzia: 2024ko uztailaren 11an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2024ko uztailaren 11an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2024ko uztailaren 17an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2024ko uztailaren 24an
- Interesdunei jakinarazpena alegazioak egiteko 2024ko abuztuaren 8an
- Idazkariaren ziurtagiria alegazioen inguruan 2024ko urriaren 18an
- Idazkariaren txosten-erabaki proposamena 2024ko urriaren 18an

BORRADOR -b287-897acfa054cc

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2024ko URRIAREN 23ko Lurraldea Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: 7

Argi Yeregui Egaña(EH Bildu)

Iñaki Ostolaza (EH Bildu)

Marina Bidasoro(EH Bildu)

Josemi Antia (EAJ)

Iker Mardaras (EAJ)

Ander Olaizola (EAJ)

Duñike Agirrezabalaga (PSE)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera :

LEHENA.- Erabat deusez deklaratzea A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia, 2005eko azaroaren 24an ebatzi zena, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: "Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak edo presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badituzte horretarako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean"; zehazki, hileta-emakidari buruzko eskubidea, horretarako funtsezko betekizunak bete gabe, panteoiari buruzko erabaki hori ez zelako egin Zumaiako udal-hilerriaren Araubidearen eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

[illegible]-b287-897acfa054cc

urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan aurreikusitako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea.

HIRUGARRENA.- Hizpide dugun egintza berrikusteko osoko bilkuraren erabakia hartzeko epea etetea, eskaera hau egiten denetik irizpena jasotzen den arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluak aurreikusten duen aukerari jarraikiz.

Zumaia, 2024ko , urriaren 23a.

Argi Yeregui Egaña.

LURRALDEA batzorde informatzailearen BATZORDEBURUA

Usten det  aurreko osoko bilkuran aurrekuan ekarri gendula baita ere eskaera hau eta onartu egin gendun eta kasu hontan pasata alegazio epea, alegazioak aurkeztu ez direnez, azken finean  hemen onartu beharko duguna onartzeko ekartzen duguna da erabat deuseztea deklaratzea A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia, 2005eko azaroaren 24an ebatzi zena. Orduko erabakia guk hemen deuseztatzen da,

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ: Besterik gabe esatea gaur prest dugula erabaki hori, baina arazorik ez delako egon. Baina Euskadiko aholku batzordea duela azkenengo hitza,  hartaz gaur gure aldetik espedientea bidaliko genioke hala ikusten baduzue eta Euskadiko aholku Batzordeak erabaki bere erabakiaren zain, hilabeteko epea luke berriz ere berak erabakitakoaren arabera, hona ekarri beharkoko genuke erabaki hori berresteko. Onartzea eta Euskadiko Aholku Batzordera bidaltzea. Badakizue atzera botatzeko, deusezak diren  erabakiak atzera botatzeko prozedura nahiko zorrotza eta zurruna da eta beharrezkoak dira,  beharrezkoa da irizpena Euskadiko Aholku Batzordea, horretako dago sortuta,  batez ere ba erabaki gisa honetako erabakiak, EAEko administrazio ezberdin eta ezberdinenak, inguruko bere erabakia ere plazaratzen.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko Alex. Bozkatuko  dugu.  Aldeko bozka?

**Aldeko botoak:    15 boto  (9  EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak:  0**

**Abstentzioak:        0**

**ERABAKIA:**

LEHENA.- Erabat deusez deklaratzea A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia, 2005eko azaroaren 24an ebatzi zena, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren

barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: "Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak edo presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badituzte horretarako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean"; zehazki, hileta-emakidari buruzko eskubidea, horretarako funtsezko betekizunak bete gabe, panteoiari buruzko erabaki hori ez zelako egin Zumaiako udal-hilerriaren Araubidearen eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan aurreikusitako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea.

HIRUGARRENA.- Hizpide dugun egintza berrikusteko osoko bilkuraren erabakia hartzeko epea etetea, eskaera hau egiten denetik irizpena jasotzen den arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluak aurreikusten duen aukerari jarraikiz.

**3.-PROPOSAMENA**

**3.1.- ZUMAIAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOETAN HAINBAT ZERBITZU EMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA.**

Lehendabizi bozkatu egin behar dugu ea proposamena onartzen dugun edo ez. Ekartzen dugun proposamena da hemen komentatu, eztabaidatu eta onartzea Zumaiako udalaren kirol instalazioetan hainbat zerbitzu emateko kontratazio espedientea onartzea.

Aldeko bozkak?

**Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

Beraz, proposamena eztabaidatu edo komentatu eta bozkatu eingo degu.

BORRADOR-b287-897acfa054cc

Zumaiako Udala

2024IAKU0012

**ZUMAIAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOETAN HAINBAT ZERBITZU EMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA.**

**PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE SERVICIOS VARIOS EN LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES DE ZUMAIA.**

## AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

**LEHENA.-** Ikusita Kiroletako sailak egin duen memoria Zumaiako udalaren kirol-instalazioetan hainbat zerbitzu kontratatzeko beharra adierazten duena.

**PRIMERO.** A la vista de la memoria justificativa del Departamento de Deportes sobre la necesidad de contratar servicios varios en las instalaciones deportivas municipales de Zumaia.

**BIGARRENA.-** Adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak ikusita:

**SEGUNDO.** A la vista de las características del contrato que se pretende adjudicar:

| | |
|---|---|
| Kontratu-mota: ZERBITZU-KONTRATUA<br>Tipo de contrato: CONTRATO DE SERVICIOS | |
| Kontratuaren xedea: Zumaiako udalaren kirol-instalazioetan hainbat zerbitzu ematea<br>Objeto del contrato: Prestación de servicios varios en las instalaciones deportivas municipales de Zumaia. | |
| Kontratazio-prozedura: IREKIA<br>Procedimiento de contratación: ABIERTO | Izapidetze-mota: ARRUNTA<br>Tipo de Tramitación: ORDINARIA |
| Erregulazio harmonizatuko kontratua: BAI<br>Contrato sujeto a regulación armonizada: SÍ | |
| CPV kodea: 92600000-7 Kirol zerbitzuak<br>Código CPV: 92600000-7 Servicios deportivos | |
| Kontratuaren balio zenbatetsia: 2.846.125,28 €<br>Valor estimado del contrato: 2.846.125,28 € | |
| Urteko gehieneko aurrekontua BEZ gabe: 711.531,32€<br>Presupuesto máximo anual IVA excluido: 711.531,32€ | BEZ % 21: 149.421,58€<br>IVA 21: 149.421,58€ |
| Urteko gehieneko aurrekontua BEZ barne: 860.952,89€<br>Presupuesto máximo anual IVA incluido: 860.952,89€ | |
| Lizitazioaren urteko oinarrizko aurrekontua (lizitatzaileak eskaini beharreko zerbitzu hauek egiteko aurreikusitako kostuak batu dira):<br><br>El presupuesto base de licitación anual (se ha calculado en base a la suma de los costes estimados para la realización del máximo de horas anuales previstos de los siguientes servicios a ofrecer por la licitadora): | |

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| ZERBITZUA SERVICIO | ORDUAK HORAS | ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA | URTEKO AURREKONTUA PRESUPUESTO ANUAL | BEZ IVA | URTEKO AURREKONTUA PRESUPUESTO ANUAL |
|---|---|---|---|---|---|
| SOROSPENA SOCORRISMO | 4.378 | **33,37** | 146.090,92€ | 30.679,09€ | 176.770,02€ |
| JARDUERAK ACTIVIDADES | 4.618 | **34,33** | 158.555,39€ | 33.296,63€ | 191.852,02€ |
| HARRERA RECEPCIÓN | 3.311 | **30,66** | 101.520,37€ | 21.319,28€ | 122.839,65€ |
| GARBIKETA LIMPIEZA | 4.515 | **28,73** | 129.735,58€ | 27.244,47€ | 156.980,05€ |
| MANTENUA MANTENIMIENTO | 3.184 | **35,96** | 114.505,78€ | 24.046,21€ | 138.551,99€ |
| ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACIÓN | 1.592 | **36,23** | 57.674,11€ | 12.111,56€ | 69.785,67€ |
| KOORDINAZIOA COORDINAZCIÓN | 100 | **34,49** | 3.449,17 | 724,33€ | 4.173,49€ |
| **GUZTIRA/TOTAL** | | | **711.531,32€** | **149.421,58€** | **860.952,89€** |

PREZIOA ZEHAZTEKO MODUA: Zerbitzu ezberdinen unitate prezioak (zerbitzu orduko). Egindako kalkulurako aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa 2023ko abuztuaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (157 zenbakia) argitaratutako "Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol Instalaziotako Hitzarmen Kolektiboa" da, eta BPXPORT S.L. enpresak 2019ko apirilaren 2an sinatutako zentruko hitzarmen.

SISTEMA DE DETERMINACIÓN DEL PRECIO: Precios unitarios de cada servicio (por hora de servicio). El Convenio Colectivo de aplicación para el cálculo efectuado es el "Convenio Colectivo de Instalaciones deportivas de Titularidad Pública", publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa (nº157) el 13 de agosto del 2023 y el pacto de empresa firmado por BPXport S.L. el 2 de abril del 2019.

Unitate-prezioak gehienez (orduko prezioak). Lizitatzaileek beherantz hobetu ahal izango dituzte:
Precios unitarios máximos (Precios por hora). Podrán ser mejorados a la baja por las licitadoras:

| SOROSLE ZERBITZUA SERVICIO DE SOCORRISMO | ORDUKO PREZIOA PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak) Costes directos (gastos personal) | 30,34€ |
| Zeharkako gastuak (%6) Costes indirectos (6%) | 1,82€ |
| Mozkin Industriala (%4) Beneficio industrial (4%) | 1,21€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **33,37€** |
| BEZ/IVA (%21) | 7,01€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **40,38€** |

| KIROL JARDUERAK<br>ACTIVIDADES DEPORTIVAS | ORDUKO PREZIOA<br>PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak)<br>Costes directos (gastos personal) | 31,21€ |
| Zeharkako gastuak (%6)<br>Costes indirectos (6%) | 1,87€ |
| Mozkin Industriala (%4)<br>Beneficio industrial (4%) | 1,25€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **34,33€** |
| BEZ/IVA (%21) | 7,21€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **41,54€** |

| HARRERA ZERBITZUA<br>SERVICIO DE RECEPCIÓN | ORDUKO PREZIOA<br>PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak)<br>Costes directos (Gastos personal) | 27,87€ |
| Zeharkako gastuak (%6)<br>Costes indirectos (6%) | 1,67€ |
| Mozkin Industriala (%4)<br>Beneficio industrial (4%) | 1,11€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **30,66€** |
| BEZ/IVA (%21) | 6,44€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **37,10€** |

| GARBIKETA ZERBITZUA<br>SERVICIO DE LIMPIEZA | ORDUKO PREZIOA<br>PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak)<br>Costes directos (Gastos personal) | 26,12€ |
| Zeharkako gastuak (%6)<br>Costes indirectos (6%) | 1,57€ |
| Mozkin Industriala (%4)<br>Beneficio industrial (4%) | 1,04€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **28,73€** |
| BEZ/IVA (%21) | 6,03€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **34,77€** |

| MANTENU ZERBITZUA<br>SERVICIO DE MANTENIMIENTO | ORDUKO PREZIOA<br>PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak)<br>Costes directos (Gastos personal) | 32,69€ |
| Zeharkako gastuak (%6)<br>Costes indirectos (6%) | 1,96€ |
| Mozkin Industriala (%4)<br>Beneficio industrial (4%) | 1,31€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **35,96€** |
| BEZ/IVA (%21) | 7,55€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **43,52€** |

| ADMINISTRARI ZERBITZUA<br>SERVICIO DE ADMINISTRACIÓN | ORDUKO PREZIOA<br>PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak)<br>Costes directos (Gastos personal) | 32,93€ |
| Zeharkako gastuak (%6)<br>Costes indirectos (6%) | 1,98€ |
| Mozkin Industriala (%4)<br>Beneficio industrial (4%) | 1,32€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **36,23€** |
| BEZ/IVA (%21) | 7,61€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **43,84€** |

| KOORDINAZIO ZERBITZUA<br>SERVICIO DE COORDINACIÓN | ORDUKO PREZIOA<br>PRECIO HORA |
|---|---|
| Zuzeneko gastuak (Pertsonal gastuak)<br>Costes directos (Gastos personal) | 31,36€ |
| Zeharkako gastuak (%6)<br>Costes indirectos (6%) | 1,88€ |
| Mozkin Industriala (%4)<br>Beneficio industrial (4%) | 1,25€ |
| Prezioa orduko (BEZa gabe)/Precio hora (sin IVA) | **34,49€** |
| BEZ/IVA (%21) | 7,24€ |
| PREZIOA ORDUKO GUZTIRA/PRECIO HORA TOTAL | **41,73** |

| | |
|---|---|
| Kontratuaren iraupena: 2 URTE<br>Duración del contrato: 2 AÑO | Luzapena: 2 URTE<br>Prórroga: 2 AÑO |

**HIRUGARRENA.-** Lotetan ez banatzeari eta baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostenak ikusita.

**TERCERO.** A la vista de los informes sobre la no división en lotes y sobre la insuficiencia de medios.

**LAUGARRENA.-** Ikusita kontu-hartzailetzako txostena, adierazten duena aurrekontuko baliabideekiko zenbatekoa den kontratazioak dakarren gastuaren ehunekoa.

**CUARTO.** A la vista del informe de intervención sobre el porcentaje que supone la contratación en relación con los recursos del presupuesto.

**BOSGARRENA.-** Ikusita idazkaritzako txostena, adierazten duena jarraitu beharreko prozedura.

**QUINTO:** A la vista del informe de Secretaría sobre el procedimiento a seguir.

**SEIGARRENA.-** Horretarako landu diren Baldintza administratiboen agiria, Baldintza teknikoen agiria eta Eranskinak ikusita.

**SEXTO.** A la vista de los pliegos de cláusulas administrativas particulares, los pliegos de prescripciones técnicas y los ANEXOS elaborados al efecto.

**ZAZPIGARRENA.-** Ikusita Euskara saileko eta Berdintasun saileko txostenak.

**SÉPTIMO.** Vistos los informes del departamento de Euskara y del departamento de Igualdad.

**ZORTZIGARRENA.-** Ikusita kontu-hartzailetzako txostena, adierazten duena

**OCTAVO:** A la vista del informe de intervención sobre la existencia del

dagokion kreditua dagoela.

**LEGEDI APLIKAGARRIA**

Legedi aplikagarria honako hau izango da:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, 63, 99tik 102ra, 116, 117, 122, 124 eta 131tik 159ra bitarteko artikuluetan eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa.

- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.

- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 72. artikulua. (817/2009 Errege Dekretua indarrean sartzean indarrean jarraitu duten artikuluak)

Azaldutakoa ikusita, espedienteak Legediak ezarritako izapideei jarraitu diela irizten da; bestalde, espedientea onartzea Osoko bilkurari dagokio Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

crédito correspondiente.

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

La Legislación aplicable al asunto es la siguiente:

— Los artículos 63, 99 a 102, 116, 117, 122, 124 y 131 a 158 y las Disposiciones Adicionales Segunda, Tercera y Decimoquinta de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

— El Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

— El Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. (Artículos vigentes tras la entrada en vigor del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo).

Visto cuanto antecede, se considera que el expediente ha seguido la tramitación establecida en la Legislación aplicable procediendo su aprobación por el Pleno de la Corporación de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

b287-897acfa054cc

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikuluak ezarritakoarekin bat etorrita, behean sinatzen duenak honako ERABAKI-proposamen hau igortzen du:

Por cuanto antecede, y de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, el que suscribe eleva la siguiente propuesta de ACUERDO:

**ERABAKI PROPOSAMENA**

**LEHENA.-** Zumaiako udalaren kirol-instalazioetan hainbat zerbitzu, erregulazio harmonizatukoa, prozedura irekiaren eta izapidetze arruntaren bidez kontratatzeko espedientea onartzea, eta lizitatzea.

**BIGARRENA**. Dagokion gastua onartzea udal aurrekontuaren kontura (1 1300.227.342.01.99) eta hurrengo urteetako aurrekontuetan beharrezkoak diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartzea.

**HIRUGARRENA.** Loteetan ez esleitzea jasotzen duten Baldintza administratibo berezien agiria, baldintza teknikoen agiria eta eranskinak onartzea.

**LAUGARRENA.** Lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, III. Eranskinean jasotzen duen edukiarekin.

**BOSGARRENA.** Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta espedientean jasotzea lizitazio-iragarkia zein egunetan bidali den

**SEIGARRENA.** Kontratazio espedienteko agiriak kontratugilearen profilean argitaratzea, bereziki, baldintza administratiboen agiria eta baldintza teknikoen agiria.

**PROPUESTA DE ACUERDO**

**PRIMERO.** Aprobar el expediente para la contratación, mediante procedimiento abierto y tramitación ordinaria de servicios varios en las instalaciones deportivas municipales de Zumaia, sujeto a regulación armonizada, convocando su licitación.

**SEGUNDO.** Aprobar el gasto correspondiente con cargo al presupuesto municipal (1 1300.227.342.01.99) y adoptar el compromiso de reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

**TERCERO.** Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas y Anexos correspondientes que regirán el contrato y que no prevén su división en lotes.

**CUARTO.** Publicar el anuncio de licitación en el perfil de contratante con el contenido contemplado en el anexo III de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

**QUINTO.** Publicar el anuncio de licitación en el Diario Oficial de la Unión Europea, dejando constancia en el expediente de la fecha de envío del anuncio de licitación.

**SEXTO.** Publicar en el perfil de contratante toda la documentación integrante del expediente de contratación, en particular el pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas.

[illegible]-b287-897acfa054cc

**ZAZPIGARRENA.** Kontratazio-mahaiko kideak izendatzea eta bere osaera kontratugilearen profilean argitaratzea:

- Lehendakaria: Gorka Arregi Gaztañaga (Hirigintzako arduraduna).
- Mahaikidea: Alexander Marañón Muñoz, (udaleko idazkaria) edo legez haren ordezkaritza hartzen duena.
- Mahaikidea: Nerea Azpillaga Etxeberria (udaleko kontu-hartzailea) edo legez haren ordezkaritza hartzen duena.
- Mahaikidea: Noelia Bastias Garcia(hirigintzako teknikaria).
- Idazkaria: Amaia Gonzalez (Administrazio orokorreko teknikaria).

Dena den, korporazioak egoki deritzona erabakiko du.

**SÉPTIMO.** Designar a los miembros de la mesa de contratación y publicar su composición en el perfil de contratante:

- Presidente: Gorka Arregi Gaztañaga (Responsable de urbanismo) Vocal: Alexander Marañón Muñoz (Secretario de la Corporación) o quien legalmente le sustituya.
- Vocal: Nerea Azpillaga Etxeberria (Interventora de la Corporación) o quien legalmente le sustituya.
- Vocal: Noelia Bastias García (Técnica de urbanismo).
- Secretaria: Amaia Gonzalez Iribar (Técnica de Administración General).

No obstante, la Corporación acordará lo que estime pertinente.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Hemen dago kiroldegiko kontratua, zerbitzuen kontratua eta azken finean dira 2.846.125,28 eurokoa, lau urtekoa, bi gehi bikua eta gehiengo aurrekontua urterokoa izango da 860.952,99. Hor dokumentazioan dauzkazute ze arlotan emango den zerbitzua eta dira sorospen zerbitzuan, jarduerak, harrera, garbiketa, mantenua, administrazioa eta koordinazioa, eta bakoitzari dagokion ordu kopuru, gehiengo ordu kopurua. Eta gero baita ere kontuan hartuta hitzarmena sinatuta daukatela langileak, beraz, hitzarmenaren arabera dagozkion orduko prezioa eta horrekin ateratzen da urteko kopurua. Esan bezala, bi gehi bi. Eta orain goaz lizitazioa ateratzera. Zerbait komentatu nahi baldin badezue? Esan Xabier.

XABIER ODRIOZOLA: 2012ko azken Pleguetatik ba kontratatuko diren zerbitzuak, blokeak berdin mantentzen dira, orduak eta prezioak aldauz. Lehen esan duzun bezela. Bai esan masaje zerbitzua plegu hauetatik kanpo geratzen dela, baino komisioan hitzegin gendun bezela, masaje zerbitzu hau kontratatzeko pleguak beraiek bakarrik aterako dira bere momentuan. Bale. Bai, Komisioan hitzegin genuen bezala guri preokupatzen diguna urteroko jardueren aukeraketak, ordutegiak, antolamenduak dira gehienbat, adibidez kiroldegiko oaingo jarduerak, gap, pilates, zumba, TRX eta beste batzuk dira eta helburu nagusia gaur egungo egoerara egokitzea izango litzateke eta zerbitzu publiko bat izanik eskatzaileetatik inor ez kanpoan geratzea. Bale. Orduan geratu ginan azkenik ba kiroldegiko jarduera hauek urteroko antolamendua urtero-urtero hitzegingo genituela pixkat komisioetan eta bueno konpromezua espero deularik ba guk baiezkoa bozkatuko dugu.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko Xabier. Zeuk komentatzeko zerbait.

Bueno egia da hori da, jarduerak ez ditugula aipatzen, ze jarduera egingo dian urtero, baizik eta ze  ordu kopuru ematen dun eta momentu hontan ba salak edo instalazioak ematen dun jarduera kopuru maximoa. Hori kalkulatu da. Bueno ba besterik gabe, aldeko bozka?

**Aldeko botoak:    15 boto  (9  EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak:  0**

**Abstentzioak       0**

**4.- <u>UDALBATZAKO ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.</u>**

**4.1.- UDALAREN 2024KO 18., 19., 20., ETA 21. ERREPARO ORRIEN ETA HAUEN ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

## <u>KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (18/2024):</u>

## <u>AURREKARIAK:</u>

**<u>Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek  epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:</u>**

KONTRATUEN ERANSKINA

| Enpresa | Kontratatutako zerbitzua | Data Kontratua | Iraupena | data amaitu |
|---|---|---|---|---|
| Eulen | Eguneko zentroa | 01/02/2009 | 1 + 1 | 01/02/2011 |
| Eulen | Etxez etxeko laguntza | 01/04/2022 | 2 | 2024/04/01 |
| UTE LV ZUMAIA | Kale garbiketa | 11/01/2016 | 1+1 | 11/01/2018 |
| Arazi IKT SL | Algorri kudeaketa | 20/04/2016 | 1+1 | 20/04/2018 |
| Kastore Gest S.L. | Hainbat zerbitzu | 05/11/2009 | 2+1 | 05/11/2012 |
| Serkonten | Edukiontzi higienikoak | 01/11/2016 | 1 | 01/11/2017 |
| Erreka | Ate automatikoen mantenua | 01/10/2016 | | 01/10/2017 |
| Kalexka elkartea | Kale heziketa/esku hartze programa | 01/07/2017 | 2+2 | 01/07/2021 |
| BPXPORT S.L. | Kiroldegiko zerbitzua | 12/09/2012 | 2+2 | 12/09/2016 |
| GEZE IBERIA S.R.L.U. | Ate automatikoa mantenua | 23/07/2019 | 1 | 23/07/2020 |
| TECNOGYM TRADING S.A | Gimnasioko makinariaren mantenua | | | |

**<u>Aplikagarria zaizkion arauak:</u>**

**1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.**

**2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

**3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.**

**4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.**

**5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.**

**6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.**

**Zehaztasunak:**

**21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebehar ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen araberakoa izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebehar ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoen erabilpenerako mankomunatuei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoak."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**
Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"<u>218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak</u>."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketen aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.
**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

-b287-897acfa054cc

**32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena**

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

   eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedientean jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenari edo xedapenari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikuluaren c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientean akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzailetzak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu
izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu

BORRADOR-b287-897acfa054cc

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**

| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
|---|---|---|---|---|
| 2024/8/1 | 24A0007 | UTE LV ZUMAIA | UZTAILA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua | 32.978,69 |
| 2024/9/3 | 24A0008 | UTE LV ZUMAIA | ABUZTUA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua | 32.978,69 |
| 2024/8/31 | 240349 | ARAZI IKT, S.L. | ABUZTUA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa | 5.442,81 |
| | | | | **71.400,19** |

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak, kale garbiketa zerbitzuak eta kiroldegiko zerbitzuaren kontratuak lehentasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

2024IAKU0012

## ALKATE EBAZPENA

### AURREKARIAK

2024ko irailaren 17an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (18/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**

| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
|---|---|---|---|---|
| 2024/8/1 | 24A0007 | UTE LV ZUMAIA | UZTAILA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua | 32.978,69 |
| 2024/9/3 | 24A0008 | UTE LV ZUMAIA | ABUZTUA Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbiketa zerbitzua | 32978.69 |
| 2024/8/31 | 240349 | ARAZI IKT, S.L. | ABUZTUA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa | 5.442,81 |
| | | | | **38.421,50** |

## ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

